



Oñatiko
fabriketan
emakumeen
(ezinbesteko)
lana

Edurne Iriondo Plaza

Selma Huxley Barkham bilduma

— 4 —

Edurne Iriondo Plaza

**Oñatiko
fabriketan
emakumeen
(ezinbesteko)
lana**



Selma Huxley Barkham bilduma

4. alea

© Egilea: Edurne Iriondo Plaza

Azaleko argazkia: Chocolates Loyolako kutxaratze eremuan emakumeak lanean.

Chocolates Loyola markaren jabearen baimenarekin argitaratua.

L.G.: D 00659-2026

ISBN: 978-84-921814-9-0

Osaketa grafikoa: Zirrimarra eta Astidiseinua estudio grafikoak (Andoain)

Inprimaketa: Leitzaran Grafikak SL (Andoain)

Poz handiz aurkezten dugu Selma Huxley Barkham Ikerketa Beka-
ren IV. edizioaren emaitza den lan hau. Oñatiko industriaren his-
torian emakumeek izan duten rola aztertzen duen ikerketa honek
ekarpen baliotsua egiten dio gure herriaren memoria kolektiboari,
eta, aldi berean, historian sarritan bigarren planoan utzi diren bi-
zipen, lan eta ekarpenak lehen lerrora ekartzen ditu.

Industria jardueraren inguruan eraiki den kontakizun tradizio-
nal askotan ez ditu emakumeak protagonista gisa aitortu, nahiz eta
haien lana ezinbestekoa izan den lantegietan, tailerretan, bai eta
ezkutuan egiten ziren lan askotan ere. Liburu honek XIX. men-
dearen amaieratik gaur egunera arteko ibilbidea egiten du, ema-
kumeen parte hartzea, lan-baldintzak eta erronkak aztertuz, eta
bidean aurkitu diren hutsuneak agerian utziz.

Ikerketa hau, ordea, ez da soilik iraganari buruzko ekarpen bat.
Gure oraina ulertzeko eta etorkizuna eraikitzeko tresna ere bada.
Izan ere, emakumeen ekarpenak ezagutzeak eta aitortzeak aukera
ematen digu gure historiaren ikuspegi osatuagoa, bidezkoagoa eta
errealagoa eraikitzeko. Historiak erakusten digu gizartearen eral-
daketak ez direla pertsona gutxi batzuen lanaren emaitza; aitzitik,
askotan isilarazi edo ikusezin bihurtu diren pertsona askoren aha-
leginari esker gertatu direla.

Horixe da, hain zuzen ere, Selma Huxley Barkham Ikerketa Beka-
ren funtsa eta arrazoia. Liburu hau irakurle askorentzat ezagutza
iturri izatea espero dugu, baina baita hausnarketarako gonbidape-
na ere: iraganari begiratzeko, emakumeek gure herriaren eraikun-
tzan izan duten lekua aitortzeko eta etorkizun berdinzaleago baten
alde lanean jarraitzeko.

IZARO ELORZA ARREGI

OÑATIKO ALKATEA

Herriko industria-historiaren
hutsunetxo bat ahotsez bete
duten *emakumiei*.

ESKERRAK

Ezagutza-eremu honetako nire lehen ikerlana abiatuta, eta ondarrutarra izanda, laguntza asko-asko jaso dut: ez dago nahikoa hitz laguntza guztia eskertzeko. Haste-ko, hainbat emakumeren testigantzak lotzeko zubigile bikainak izan ditut. Zubigile nagusia eta Oñatiko gizar-tean kokatzen lagundu nauena nire amaginarreba Txelo Tomé Mateos izan da. Besteak, nagusiki, Nuria Letamendi Martín, Isabel Rebollo González, Mariasun Zelaia Zumelaga, Ander Lizarralde Lizarralde eta Nieves Barrena Arregi. Artxibozainek ere ekarpen handia egin dute, eta hauek ditut azpimarratzekoak: Izar Salaberri Iñarra (Oñatiko Udal Artxiboa), Garazi Garaio Ellakuria (Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa), Pilar Paino Ortuzar (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusia) eta Olatz Etxeberria Mendizabal (Gipuzkoako Artxibo Orokorra). Herriko historialariei dagokienez, denak egon dira momentu oro esku bat botatzeko prest. Harremanetan jarritako ordenan: José Ramón Arrazola Urkiaga, Jerardo Elortza Egaña, Tomás Igartua Arrue, José Antonio Azpiazu Elorza eta Antón Azpiazu Lanz. Jerardoregana eta José Ramonengana jo dut gehien dokumentuetan aurkitutako hutsuneak betetzeko laguntza eske, eta eman didaten laguntza eta denbora ezinbestekoak izan dira. Ezin aipatu gabe utzi Rafael Ruzafa Ortega eta José Antonio Pérez Pérez ere, EHUKo Historia Garaikideko irakasle eta ikerlariak, industria-ondarearen erreferentziekin eta galdetegiaren inguruko gomendioekin emandako laguntzarengatik.

Familiako emakumeren baten edo/eta enpresen inguruko kontsultak egiten, familiakoekin harremanetan jartzen, argazkiak eta horiek erabiltzeko baimena eskatzen, informazioa kontrastatzen eta bestelakoetan laguntzen aritu zaizkit Marta Zubia Guinea, Anabel Dominguez González, Juan Gordo Mendizabal, Ignacio Gereta Maiztegi, Iñaki Galdos Irazabal, Maribel Elorza Jauregialzo, Aintzane Elorza Sánchez, Edurne Ruiz Arregi, Iñaki Kortabarria Ugarte, Mikel Korkostegi Urzelai, Arantxa Egaña Azurmendi, Josefina Urzelai Martínez de Albeniz, Beatriz Gereka Zelaia, Arantxa Arrazola Markiegi, Javier Balzategi Maiztegi, Ricardo Uriarte Alzola, Lino eta Arantzazu Urzelai Rodríguez, Axun Arzuaga Lasagabaster, Arantxa Ugarte Uribeetxeberria, Jon Egaña Mendizabal, Miren Arregi Amasorrain, Nieves Agirre Lizarralde, Luis Mari Madina Arrondo, Bixente Elguero Madinabeitia, Bixente Olalde Igartua, Marijo Ibarrondo Uriarte, Joxefe Diaz de Tuesta, Angel Madinabeitia Maiztegi, Mailu Orueta Biain, Isidro Palacín Bueso, Mikel

Ugarte Ezpeleta, Elvira Arkauz Aiastui, Edurne Arkauz Esnaola, Edurne Olalde Igartua, Beatriz Irizar Elortza, Pili Saiz Guix, Tina Kortabarria Txintxurreta, Elena Bengoa Unzurrunzaga, Maria Jesús Guridi Aldanondo, Idoia Zubia Arriaran, Mari Karmen Arriaran Etxeberria, Kontxi Fernández Rodríguez, Miguel Angel Kortabarria Guridi, Juan Antonio Txintxurreta Jauregialzo, Itxaso Larrauri Rebollo, Aitzol Guridi Zubia, Ana Jesus Iturbe Munarriz, Arantxa Arkauz Bikuña, Gema Arregi Galdos, Gema Meruelo Amenabar, Mikel Bengoa Jauregi, Edurne Urteaga Peña, Iñaki Agirre Murguzur, Eskarne Eraña Atxaga, Iker García Delgado, Ernesto Unzurrunzaga Galdos, Oihana Jausoro Agirre, Zaida Fernández Pérez, Bernat Alberdi Fernández, Kepa Aranburu Agirre, Iñaki Olarra de la Cruz, LANA Koop. E., ULMA Lifting Solutions, Cartonajes Arregi S.A., Galvanoplastia Arguitu S.L., ULMA Architectural Solutions, Santa Ana klaratarren komentua, Bidaurretako klaratarren komentua, Onnera Group, ULMA Taldea, ULMA Forged Solutions, Betik, Grupo IAN, Euskadiko Artxibo Historikoa, *Diario de Noticias de Álava*, Eibarko Udal Artxiboa, Bergarako Udal Artxiboa, Sorluzeko Udala, Orioko Udal Artxiboa, Eibarko Andretxea, Memoria Historikoaren Dokumentu Zentroa, Administrazioaren Artxibo Nagusia, Makina Erreminta Museoa, Zumalakarregi Museoa eta Emakunde.

Eskerrak Nagore Goñi Lorenzori, argazkiengatik. Maider Galardi Fernandez de Agirreri eta Leire Castrillo Velez de Mendizabali, EHUKo Antropologia Feministako ikerlari eta irakasle, hasieratik eman didazuen laguntza eta aholkuengatik, bai lana bideratzen, bai zalantzak argitzen eta beste hamaika kontutan. Jone Arriolabengoa Martiarenari, Oñatiko Udaleko berdintasun teknikaria, hasieratik proiektuan atera diren kudeaketa modu guztietan laguntzeagatik. Elena Leiñena Mendizabali, EHUKo Berdintasun Zuzendaria (2021-2025), proiektuaren hasieran emandako babesarengatik. Eta EHUKo Bilboko Ingeniaritza Eskolan Ingeniaritza Mekanikoaren Saileko zuzendari den José Antonio Sánchez Galíndez; eta kide diren Franck Girot Mata eta Mario Renderos Cartagenari, jasotako babes eta laguntzarengatik.

Azkenik, aitari, artxiboetan emandako lehen pausoetan gidatzearen; amari, 1970eko hamarkadan tailer batean lan egindako emakume baten begiradatik galdetegi bideratzen laguntzearen, eta Aitorri eta Emiliri, lan hau aurrera eramateko ostu dizuedan denbora guztiarengatik.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	13
2. HELBURUAK ETA IKERGALDERAK	15
3. METODOLOGIA	17
4. OÑATIKO INDUSTRIAREN HASTAPENAK: TESTUINGURU HISTORIKOA ETA AITZINDARIAK...	19
4.1. INDUSTRIA IRAULTZA	19
4.2. INDUSTRIALIZAZIOAREN HASTAPENAK GIPUZKOAN	20
4.3. OÑATIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA (1842-1866)	21
4.4. INDUSTRIA MODERNOAREN AITZINDARIAK OÑATIN	23
5. EMAKUMEAK INDUSTRIALIZAZIOAREN HASTAPENETAN	25
5.1. EMAKUMEAK BRITAINIA HANDIKO INDUSTRIA IRAULTZA	25
5.2. EMAKUMEAK EUSKAL INDUSTRIALIZAZIOAREN HASTAPENETAN	27
6. INDUSTRIAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTU HISTORIKOETAN IDENTIFIKATUTAKO EMAKUME TITULARTASUNDUNAK	33
6.1. INDUSTRIA-ERROLDETAKO 3. TARIFAREN EZAUGARRIAK	33
6.2. INDUSTRIAKO DOKUMENTU HISTORIKOAK AZTERTZEAN JARRAITUTAKO PROZEDURA	34
6.3. ERREGISTRO HISTORIKOETAN IDENTIFIKATUTAKO EMAKUME IZEN PROPIO TITULARTASUNDUNAK	35
7. OÑATIKO FABRIKETAN LAN EGINDAKO EMAKUMEAK LIBURUETAN	47
7.1. KAKAOAREN ILUNTASUNA ETA TXOKOLATEAREN MAGIA OÑATIN (2007).....	47
7.2. GERRAKO GARRAK OÑATIN (2011).....	49
7.3. LOS GARAY. UNA SAGA INDUSTRIAL EN OÑATI DURANTE 150 AÑOS (2015)	53
7.4. ANTGINAKO ZUBILLAGARI BEGIRADA BAT (2017)	53
7.5. ENARAK (2019)	54
7.6. IKUSEZINAK. OÑATIKO EMAKUMEEN LANAK (2021)	54
7.7. OLABARTARRAK (2024)	57
7.8. ARAOZTARRAK (I) (2025)	57
8. OÑATIKO FABRIKETAN LAN EGIN DUTEN EMAKUMEEN KOPURUA	59
8.1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA (1900-2001)	59
8.2. DOKUMENTU HISTORIKOETATIK JASOTAKO INFORMAZIOA.....	60
8.3. ENPRESEI ESKATUTAKO INFORMAZIOA.....	79
9. HERRIKO FABRIKETAN LAN EGIN DUTEN EMAKUMEEN TESTIGANTZAK	83
9.1 JATORRIA.....	83
9.2 ENPLEGUA FABRIKAN.....	85
9.3 FABRIKAZ KANPOKO LAN ETA ARDURAK.....	89
9.4 FABRIKAKO LAN IKUSEZINAK	91
9.5 FABRIKAKO LANA.....	91
9.6 FABRIKAKO HARREMANAK	98
9.7 EREMU SENTSORIALA.....	102
10. FABRIKAZ KANPO EGINDAKO LAN PRODUKTIBOAK.....	105
11. HUTSUNE: TARTE EDO GUNE HUTSA; GABEZIA.....	107
12. ONDORIOAK.....	115
13. ETORKIZUNEKO LAN ILDOAK.....	119

1. SARRERA

Ikerlan hau ikuspegi feministatik landutako industria-ondare immaterialaren esparrura mugatuko da. Hori horrela izateko, bi ardatz diskurtsibo hartuko ditu: aztergai den gizartearen eta testuinguruaren analisia, eta berdintasunetiko begirada. Funtsezko bi ideia horiek gabe, industrializazioa eta horren ondare material edo immateriala egiten den edozein hurbilketa osatugabea izango litzatekeela uste da.

Herriko industria historikoki burdinaren eta egurraren lanketari lotuta egon da nagusiki herrian industria modernoa ezarri arte urte luzeetan zehar. ULMA taldea sortu aurretik, Oñatiko industria ezaguna zen hainbat produkturengatik: Zahor txokolateak, Garayren metalizko hodiak, CEGASA enpresaren Tximist pilak, Ezpeletaren aterkiak, Altunaren Auste Estana guraizeak, Betik zotzak... Industria-jardun horiek guztiek, industria-ondarearen ikuspuntutik, bai eta bertako lan arloko memoriarengatik ere, herriaren aberastasunaren adierazle dira.

Industria-kultura, baserrietako tradizioarekin batera, herriaren identitatearen funtsezko zati da. Belaunaldiz belaunaldi, industriak forma eman dio kultura-paisaia-ri eta eguneroko bizitzari, eta guztion den ondarea sortu. Ondare hori ez dute enpresa handiek edo figura nabarienek bakarrik eraiki: fabriketako emakume eta gizon langile anonimoek ere bultzatu dute. Emakume horien presentzia aitortzeak zera esan nahi du, herriko historia osoa kontatzea, herritar asko nola bizi ziren ezagutzea, nola egiten zuten lan ulertzea, eta familiak nola antolatu eta bizi ziren jabetzea. Emakume horiek industria-ondarearen kontakizunean sartzea herriaren memoria kolektiboa aberasteko modu bat da.

Ikerlanari 1866tik 2000ra arteko denbora-tartea jarri zaio, Oñatin industriak eta gizarteak izandako bilakaera hobeto ulertzeko. 1866an Garay y Cía enpresak La Minerva izeneko pospolo fabrika jarri zuen martxan Olaldeko errothan, eta horri esker hasi zen herrian industria moderno edo mekanizatuaren garapena. Denbora-tar-

te luzea bada ere, horrek aukera ematen du ikusteko nola aldatu den industria urteen joanean eta nola moldatu diren emakumeen lan moduak garai bakoitzean.

Azken hamarkadan hainbat ekimen abiatu dira gizarteko arlo askotan emakumeek izan duten garrantzia azaleratzeko eta historian nahiz kulturen sortu duten ondarea zabaltzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek partaidetzarekin, industriara bideratutako bi adibide aipa daitezke, besteak beste: bata, *Women's Legacy*¹ proiektu europarra, eta, bestea, 2022an TICCIH erakundeak (The International Committee for the Conservation of the Industrial Heritage) Balmasedako La Encartada fabrika-museoan antolatutako kongresua eta haren emaitza gisa argitaratutako *Trabajos de (no) andar por casa*² akten liburua.

Orain arte egindako berrikuspen bibliografikoan ez da aurkitu argitalpenik industrializazioaren hastapenetatik XX. mendearen bukaerara arte Oñatiko fabriketan emakumeek izan duten presentzia aztertu duenik, modu jarraituan behintzat. Anton Azpiazu Lanzen *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin*³ liburuan, emakumeak zabal ageri dira txokolategintzaren industrian, eta merezi duten lekua ematen zaie hala. Artixa Kultur Elkartearen *Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak*⁴ liburuan, historian zehar egin dituzten lanak eta izan dituzten lanbideak erakusten dira argazkien bidez, tartean CEGASA, Zahor eta ULMAko langileekin. Ama- goia Gurrutxaga Urangaren *Enarak*⁵ liburuan, Oñatira industriara lanera etorritako nafar eta espainiar jato-

1 Women's Legacy (2020). <https://womenslegacyproject.eu>

2 TICCIH (2024). *Trabajos de (no) andar por casa. Perspectivas de género para el patrimonio industrial*. Bizkaiko Foru Aldundia. ISBN: 978-84-7752-747-3

3 Azpiazu Lanz, A. (2007). *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin*. SS-953-2007.

4 Artixa Taldea (2021). *Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak*.

5 Gurrutxaga Uranga, A. (2019). *Enarak*. Jerardo Elortza bilduma (2). Oñatiko Udala.

erriko protagonisten testigantzak agertzen dira. Herriko zenbait auzotako ohiturei eta historiari buruz argitaratutako liburuetan ere ageri dira fabriketan lan egindako emakume gutxi batzuen testigantzak: Zubillagari buruzkoan⁶, auzotarrek eta Artixa Taldeak idatzia; eta Olabarta⁷ eta Araotz⁸ auzoei buruzkoetan, Ander Lizarralde Lizarralderenak. Gogoratu Guran Taldearen *Gerrako garrak Oñatin*⁹ liburuan, 36ko gerraren testuinguruan industrian jardundako emakume langile batzuk ageri dira. Azpiazuk eta Creixellek garaytarren¹⁰ familia- eta enpresa-historiaz idatzitakoan, pare bat emakume izen azaleratzen dira, eta Iñigo Ramírez de Okarizen *Oñati, gure herria*¹¹ liburuak, berriz, emakume langileen lan baldintzak aipatzen ditu.

Ez nuke nahi Garbiñe Garai Letamendiren Soziologia ikasketen Lizentziatura Amaierako Lana aipatu gabe utzi. 1987. urtean aurkeztutako *Oñatiko industrializazioaren lehenengo urratsak (1860-1936)* lanean industriari lotutako bi emakume izen propio aipatzen dira. Garbiñeren lana aitzindari, interesgarri eta oinarritzat hartu da, honek aurkeztu duen testuinguruaren azterketa eta berrikuspenarengatik. Hala ere, lan hau ez da kontuan hartu argitaratutako liburuak aztertzerako orduan, ez bait du aurrez aipatutako argitalpenen natura.

Hori horrela, beharrezkotzat jo da ikerkuntza hau egitea, herriko fabriketan lan egin duten emakumeak eza-gutzeko.

Datozen ataletan, lehenbizi helburuak zehaztuko dira, metodologia planteatu, eta testuinguru historikoaren zertzelada batzuk eman. Hurrengo ataletan, helburuekin batera ezarritako ikergalderei erantzuteko asmoz, industriarekin lotutako dokumentu historikoetan agertu diren emakume titularrak identifikatuko dira, bai eta Oñatiko fabriketan lan egindako emakumeak izanda liburuetan agertu direnak ere. Herriko fabriketan zenbat emakumek lan egin duten jakiteko, erregistro historikoetatik eta enpresetatik jasotako informazioan oinarritu da. Azken bi ataletan, testigantzak jasoko dira: fabriketan lan egin duten emakumeenak eta fabrikako lan produktiboa fabrikaz kanpo egin dutenenak. Eta bu-

katzeko, aurreko ataletan zehar berdintasunaren begiradatik identifikatutako hutsuneak, ondorioak eta etorkizuneko lan ildoak azalduko dira.

Azkenik, azpimarratu nahi da Oñatin industrializazioa hasi zenetik emakumeak fabriketan egon ziren bezala agertzen dituen kontakizun bat sortzea duela helburu lan honek. Bertan izan duten tokia eta eragina ezagutzera eramateko prozesua irekiko da, agerian jartzeko eta merezi duten aitortza emateko.

6 Villar, A., Igarzabal, E., Ereitten eta Artixa (2017). *Antxinako Zubillagari begirada bat*. SS-632-2017.

7 Lizarralde Lizarralde, A. (2024). *Olabartarrak*.

8 Lizarralde Lizarralde, A. (2025). *Araoztarrak (I)*.

9 Gogoratu Guran Taldea (2011). *Gerrako garrak Oñatin*. Intxorta 1937 Kultur Elkartea.

10 Azpiaz Elorza, J.A., eta Creixell Garay, J.L. (2017). *Los Garay. Una saga industrial en Oñati durante 150 años*.

11 Ramírez de Okariz Tellería, I. (1994). *Oñati, gure herria*. Oñatiko Udala. ISBN: 84-606-1903-6.

2. HELBURUAK ETA IKERGALDERAK

Proiektu hau abiatzean helburuak definitu eta ikergalderak planteatu ziren, atalez atal garatu ahala galdera horiei erantzun ahal izateko.

Ikerlanaren helburu nagusia Oñatiko fabriketan lan egin duten emakumeen ekarpena ezagutzea eta azalerratztea da, eta, horretarako, herriko industria-paisaiaren konfigurazioan eta egitura sozioekonomikoan zer-nola-ko eragina izan duten aztertzea.

Helburu nagusi horrekin lotutako azpi-helburuak honako hauek dira:

- Erregistro historikoetan eta liburuetan agertu diren Oñatiko industriarekin lotutako emakume izen propioak identifikatzea eta nor ziren/diren ezagutzea.
- Herriko fabriketan lan egin duten emakumeen kopurua ezagutzea.
- Herriko fabriketan enplegatutako emakumeen lana, lan baldintzak, lan harremanak eta bizimodua ezagutzea eta balioestea, arreta berezia jarrita haien eguneroko esperientziak egituratu zituzten faktoreetan.
- Herriko fabriketako produkzioa fabrikaz kanpo egin zuten emakumeen lana, lan baldintzak eta bizimodua aztertzea eta aitortzea.
- Begirada feministatik, industriako emakume langileengan eragina izan duten hainbat dimentsiotako hutsuneak identifikatzea.

Ikergalderei dagokienez, honela adierazi dira:

- Oñatiko industriarekin lotutako zenbat emakume izen propio daude erregistro historikoetan?
- Erregistro historikoetan titulartasuna izan duten emakumeen artean, titulartasuna izateaz gain, zenbatek egin dute lan fabriketan?
- Oñatiko industrian lan egindako zenbat emakume izen propio ageri dira argitaratutako liburuetan?

- Zenbat emakume izen propio ageri dira bai erregistro historikoetan eta bai argitaratutako liburuetan?
- Dokumentu historikoetan eta liburuetan identifikatutako emakumeek kointziditzen dute?
- Erregistratu da fabriketako emakume enplegatuen kopurua dokumentu historikoetan?
- Zenbat emakumek egin dute lan Oñatiko fabriketan?
- Identifikatu da hutsunerik industriako emakume langileengan eragina izan duten dimentsioetan?

3. METODOLOGIA

Ikerlanean planteatutako helburuak lortzeko, metodologia kuantitatibo eta kualitatiboko zenbait teknika erabili dira, atal bakoitzari egokituta.

Marko teorikoa

Lana abiatzean aurrera eraman den lehenbiziko atala marko teorikoaren garapena izan da, eta, horretarako, gaiari buruz idatzitakoa aztertu da, oinarri bezala hartzeko. Markoa eta irismena ondo finkatzea eta mugatzea oinarritzakoa da, horrek ikerlanaren atal oro elikatzen duelako, aurrerago azalduko den bezala. Ikerlan honetan bi ezagutza-eremu nagusi gurutzatzen dira: industria-ondarea eta genero azterketa. Hasiera batean ikerkuntzako intentsitate handiena fase horrek jaso badu ere, proiektu osoan bizirik egon da atal hori, bertatik jaso baita informazioa beste lan eremuak zehazteko, estrategiez baliatzeko eta lortutako emaitzak interpretatu ahal izateko.

Iturri dokumentalen azterketa

Artxibo historikoetan egindako lehen urratsa Oñatiko enpresen zerga-ordainketak bilatzea izan da. Horiek identifikatu ondoren, bertan agertutako informazioa bahetu behar zen. Industria izendapenak herriko jardun ekonomiko guztiak barnebiltzen zituen, eta, beraz, aurrez landutako marko teorikora bueltatu beharra zegoen. Atal hori aurrera eramatean muga batzuk aurkitu dira. Alde batetik, trazabilitatea erabatekoa ez izatea aztergai izan den denbora-tarte osoan, urte batzuetako dokumentazio faltarengatik. Bestalde, industria-enpresak sailkatzeko moduak aldatuz joan izana denboran zehar, ziurtasunez identifikatu ezin izatea baitakar horrek. Eta, azkenik, erroldetan identifikatutako zergadun titularren izendapenean akatsak egotea, beste dokumentu batzuen oinarri direlako.

Liburuetan eta dokumentu historikoetan emakume izen propioak identifikatu ondoren, horiek ezagutu nahi izan dira, eta fabriketan zer rol zuten jakin. Emakume izeneko titulartasunaren atzean nor dagoen eta enpresan zer leku izan duen jakiteko, prozedura honi jarraitu zaio gehienetan: agiri sakramentalak lortu eta, ondoren, oinordekoekin harremanetan jarri ahal izan bada, haiekin elkarrizketa izan, edo informazioa eskatu. 25 emakume izen propio identifikatu dira, eta kasu guztietan familiek

prestasun osoz erantzun diete emakumeok ezagutzearen egindako galderei. Kasu batzuetan ez da oinordekorik aurkitu.

Dokumentu historikoetatik, bestalde, enpresek urte jakin batzuetan lan kategoriaren arabera sailkatuak zituzten enplegatuen kopuruak jaso dira.

Emakume langileei buruzko datu eskaera industria-enpresei

Gaur egun aktibo dauden eta 2000. urtea baino lehen industria-jardunean zebiltzan enpresei eta kooperatibei langileei buruzko informazioa eskatu zaie galdetegi bidez. Galdetu zaie, batetik, urte bakoitzean zenbat emakumezko langile eta zenbat gizonezko langile zituzten, eta, bestetik, langile horien lan eremua zein zen: produkzioa, administrazioa, diseinu teknikoa eta/edo berrikuntza/garapena, salmentak edo bestelakoren bat (garbiketa, erizaintza, jantokia, etab.). 11 enpresak bidali dute erantzuna, eta horietatik seik adierazi dute eskatutako daturik ez dutela, 2000 baino lehenagokoak digitalizatu gabe dituztelako.

Elkarrizketa sakonak

Fabriketan enplegatuta egondako 50 emakumeren testigantzak jaso dira, elkarrizketa sakonen bidez¹². Elkarrizketa guztietan galdetegi bera erabili da, nahiz eta galdera batzuk ez izan denek erantzutekoak. Adibidez, jatorriz oñatiarrak ez diren emakumeek erantzuteko diseinatuak edo/eta ezkondukoan fabrikako enplegua utzi zutenek bakarrik erantzutekoak. Elkarrizketatutako emakume gazteenak 54 urte ditu, eta nagusienak 95. Hain adin tarte handiko lagina izanda, galderek oso irreak izan behar izan dute, garai desberdinak bateratu eta egoera sozioekonomiko guztietan erabilgarriak izateko. Landa-lana 2024ko abendutik 2025eko azarora bitartean egin da.

Galdetegiak 51 galdera ditu, zazpi multzotan sailkatuta: *Jatorria*, *Enplegua fabrian*, *Fabrikaz kanpoko lan eta ardurak*, *Lan ikusezinak*, *Fabrikako lana*, *Harremanak* eta *Eremu sentSORIALA*. Egindako galderen bidez, emaku-

¹² Juaristi Larrinaga, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. 139. or.

meak ezagutzeaz gain, fabriketako bizipenetara gerturatu nahi izan da, lehen eskutik jakiteko zer toki zuten lanean, nolako baldintzak eta zein zen testuinguru sozioekonomikoa. Elkarrizketa hasitakoan emakume guztiei esan zaie libre direla galderaren bati ez erantzuteko, hala nahi izanez gero. Galdera ireki moduan planteatu dira gehienak, elkarrizketatuek aukera izan zezaten egokia iruditzen zitzaien mailaraino sakontzeko.

Elkarrizketatutako emakumeek fabrika bakarrean edo gehiagotan egin dute lan. Testigantzen atala definitzerakoan, ez da mugatu elkarrizketen kopurua, baina ahalegina egin da herriko ahalik eta fabrika eta sektore aniztasun zabalena lortzen, ahal izan den neurrian. Ikerlanean entzun diren ahotsen fabriketako bizipenak eta errealtatea islatzea izan da helburua. Elkarrizketatzeko emakumeekin lehen kontaktua ikerlan honetako ikertzaileak egin du kasu batzuetan; beste batzuetan, berriz, aurrez elkarrizketatutako emakume batek edo zubi lanetan aktiboki laguntzen ibili diren 6 pertsonak egin dute lehen kontaktua, eta ondoren ikertzailea jarri da haiekin harremanetan.

Lan metodologia zehaztean, erabaki da elkarrizketak egin aurretik galdetegia erakustea eta ematea. Bi helburu ditu horrek: erantzun beharreko galderak prestatu ahal izateko astia hartu ahal izatea elkarrizketatuak, eta lasaiago erantzuteko aukera ematea. Jakinik ere lan egiteko modu horrekin bat-batekotasuna galtzen dela, elkarrizketetan parte hartu duten emakumeak lasai sentitzeari eman nahi izan zaio lehentasuna. Azpimarratu beharra dago parte hartu duten emakume gehienek ez dutela aurrez inongo elkarrizketatan parte hartu, eta horrek ezinegona eragin diezaiekeela askori. Kasu batzuetan, ikertzailea aurrez geratu da emakumeekin, kafe bat hartu eta galdetegia erakutsi eta emateko. Besteetan, whatsapp bidez bidali zaizkie galderak, eta inprimatuta ere eman zaizkie batzuei. Bi elkarrizketatuen kasuan, elkarrizketa baino lehen irakurri dituzte galderak eta ondoren abiatu da elkarrizketa. Bederatzi emakumeren kasuan, galdetegia azaltzeaz batera izan da elkarrizketa. Galdetegia bidali edo eman ondoren elkarrizketarako hitzorduak gehienetan telefonoz adostu dira.

Hizkuntzari dagokionez, elkarrizketatutako emakume bakoitzari irakurtzeko erosoan zaion hizkuntzan bidali zaio galdetegia. % 30ek galdetegia euskaraz jaso dute; % 50ek, ele bitan, eta gainontzeko % 20ak, gazteleraz bakarrik. Erantzuteari dagokionez, euskaraz jasotakoek euskaraz erantzun dute; euskaraz eta gazteleraz jasotakoek, berriz, % 60k euskaraz eta gainontzeko % 40ek gazteleraz. Ikerlanaren emaitzen memorian txertatu nahi direnean elkarrizketetan esandakoak edo eginda-

ko iruzkinak, hitzez hitz jasoko dira eta jatorrizko hizkuntza gordeko da.

Saio bateko testigantza bideoz grabatu da; beste zazpitan erantzunak idatziz jaso dira; emakume batek, hasierako elkarrizketan galdetegia zertaz doan azaldu ondoren, erantzunak e-mailez bidali ditu; eta gainontzekoetan, elkarrizketak audioz grabatu dira. Elkarrizketak ez dira osorik transkribatu. Galderen erantzunekin matrize bat osatu da, modu bisualean, elkarrizketako galdera bakoitzetik jasotako erantzun guztiak bistan edukitzeko, eta horren azterketa eta ondorengo idazketa errazteko.

Elkarrizketa batzuk bakarka egin dira, eta beste batzuk, berriz, bi edo hiru emakume elkarrekin batuta. Kasu batean, fabrika bereko bederatzi emakume batera elkarrizketatu dira. Pertsona batekin baino gehiagorekin egin denean elkarrizketa, elkarrekin gusturago/seguruago sentitzen zirelako izan da; kasu guztietan, fabrika berean lan egin dutelako, edo familiakoak direla-eta edo beste arrazoi batengatik gertutasuna dutelako. Nahiz eta taldean batu galdetegiari erantzuteko, elkarrizketatu bakoitzak erantzun guztiak eman edo ondoakoak adierazitakoarekiko adostasuna erakutsi du.

Elkarrizketatu guztiek ahoz eman dute baimen informatua elkarrizketako informazioa ikerlanerako erabiltzeko, eta erantzun guztiak anonimoak izango dira. Parte hartzaileen anonimotasuna bermatze aldera, zenbaki bana esleitu zaie, eta haien esanak edo iruzkinak bakoitzari esleitutako parte hartzaile zenbakiaren bidez adieraziko dira.

Fabrikaz kanpo lan egin duten hiru emakumeen inguruko informazioa jasotzeko, prozedura berberari jarraitu zaio, baina aldaketa batzuekin. Bi elkarrizketa euskaraz izan dira, eta bat, gazteleraz. Etxean edo garajeetan jardun duten emakumeak elkarrizketatzeko, 15 galderako galdetegi zehatz bat prestatu da, haien lan egiteko modua ezagutzeko. Erantzunei dagokienez, bi elkarrizketa audioz grabatu dira, eta kasu batean erantzunak eskuz jaso dira.

4. OÑATIKO INDUSTRIAREN HASTAPENAK: TESTUINGURU HISTORIKOA ETA AITZINDARIAK

Mende luzez oso ezagunak izan ziren Oñatiko fanderian eta errementari tailerretan ekoiztutako produktuak: ultzeak, zartaginak, altzairuak, etab. XIX. mendeko seigarren hamarkadan, Industria Iraultza herrira heldu zenean, produkzio eredu hori irauli egin zen eta Industria Modernoa bezala ezagutzen duguna ezarri zen. Industria Iraultza mende bat arinago Britainia Handian sortu zen, eta garapen ekonomiko modernoaren ereduaren ezarri zuen.

4.1. INDUSTRIA IRAULTZA

XVIII. mendearen erdialdean Britainia Handian hasitako Industria Iraultzak trantsizio erabatekoa ekarri zuen landa- eta artisautza-ekonomian oinarritutako egitura sozioekonomikotik ekoizpen sistema mekanizatura. Eraldaketa hori faktore ugariaren konbinazioari esker gertatu zen, eta ez bakarrik lurrin makina sortu eta erabiltzeari esker, gehienon iruditerian ikur ikoniko bezala hura txertatuta badago ere.

Faktore nagusien artean nabarmentzekoak dira, alde batetik, XVII. mendetik XVIII.era bitartean laborari xumeek lantzen zituzten landa-lur komunal irekiak hesitzeko prozesua (*Enclosure Acts*),¹³ lursailen pribatizazioa eta lur-jabe handien sorrera bultzatu zuena, eta, bestetik, XVII. mendean yeomen ingelesak abiatutako nekazaritza-iraultza, uzta-errotazioaren bidez eta nekazaritza-ko makineriaren berrikuntzaren bidez jabego pribatua sendotzea ekarri zuena. Siegfried Giedionen¹⁴ liburuak ondo aztertzen du mekanizazioak nola birmoldatu zituen egunerokotasuna eta lana, aurrerapen teknikoak historia anonimoetan eta pixkanakakoetan oinarrituta. Eraberritze horiek elikagaien ekoizpena handitu zuten, hazkunde demografikoa bultzatu, eta industriarako lan indarra askatu, landa-eremuak uztera bideratu eta in-

dustria-guneetara mugitzeko. Ekonomiaren alorrean, Britainia Handiak gobernu egonkorra eta merkataritza eta enpresa-ekimena sustatzea laguntzeko baldintzak erraztu zituen. Garraio azpiegituraren garapenari esker, errepide, kanal eta zubien sare baten bidez, hornidura eta banaketa erraztu ziren.

Faktore horietaz gain, industrializazioa azkartzea lagundu zuten beste batzuek. Berrikuntza teknologikoa ekonomiaren hazkundearen eragileetako bat izan zen¹⁵, eta momentu hartan sektore ugari zabaldu zen: ehungintzara, ikatza eta metala prozesatzeko sektorerara, eta sistema hidraulikoen garapenera, besteak beste. Siderurgiak aurrerapauso handiak eman zituen ikatz- eta burdina-meatzeeen gertutasunari esker; metalurgia-tratamendu berriak aplikatuz, kalitate handiko altzairua ekoizten hasi ziren, eta makina, garraio sistema eta egitura sendoagoak fabrikatzea ahalbidetu zuen horrek. Hasieran meatzaritzan aplikatutako lurrin makinak ekoizpena eta garraioa irauli zituen, energia ibaie-tako ur fluxuetatik emantzipatu eta trenbidera eta nabigaziora zabaldua.

Britainia Handian sortutako Industria Iraultza bi alditan zabaldu zen. Lehen aldia, 1750-1850 bitartean, Frantzia, Belgika, Estatu Germaniarretan eta AEBn ezarri zen¹⁶, eta bigarren aldia (1850-1915) heldu zen Oñatira. Hurrengo lerroetan XIX. mendearen bigarren erdiko industria modernoaren ezaugarri nagusiak laburbilduko dira.

Industria Iraultzaren garaian, makinaren erabilera sistematikoak eta ekoizpen prozesuen mekanizazioak eraginda nagusiki, aldaketa ekonomiko eta sozial sakonak gertatu ziren. Mekanizazio horrek fabrikazioaren zentralizazioa, masa-ekoizpena eta laneko espezializazio maila handia ekarri zituen, eta, produktuen estandari-

¹³ Allen, R.C. (2004). *Revolución en los campos. La reinterpretación de la revolución agrícola inglesa*. Zaragoza: Pressas Universitarias de Zaragoza; Ediciones Universidad de Salamanca (Monografías de Historia Rural:3). 13-32. 21.or.

¹⁴ Giedion, S. (1948). *Mechanization Takes Command: A Contribution to Anonymous History*. Oxford University Press.

¹⁵ Jiang, M. (2024). *A Review of the Impacts of Industrial Revolutions in World History*. Proceedings of 3rd International Conference on Interdisciplinary Humanities and Communication Studies. 234-239. 238.or.

¹⁶ Mohajan, H.K. (2019). The First Industrial Revolution: Creation of a New Global Human Era. *Journal of Social Sciences and Humanities*, 5(4), 377-387. 382.or.

zazioarekin batera, eskala handiko fabrikazioa erraztu zuen. Hala ere, horrek lehengaiekiko menpekotasuna areagotu zuen, eta, horregatik, garraio bideak eta komunikazio sareak azkar modernizatu eta hedatzea bultzatu zen, hornidura eta banaketa etengabe bermatua izateko.

Ekoizpen eredu berriak oso bestelako lan egitura ekarri zuen, erlojupeko kontrol zorrotza, sirenek markatutako lan erritmoa, eta denbora baliabidetzat hartzen hasi zen¹⁷. Lanaldiak luzeak ziren, lan baldintzak oso gogorrak, eta adingabeek ere lan egiten zuten. Egoera horrek, bai eta estatuan 1884an Gizarte Erreformen Batzordeak egin zuen inkestak ere eraginda¹⁸, langileek klase kontzientzia hartzea ekarri zuen, eta horrek bide eman zuen aurrerago lan arloko legeak sortu eta gizarte erreformak bultzatu zitezen, langileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko.

4.2. INDUSTRIALIZAZIOAREN HASTAPENAK GIPUZKOAN

Gipuzkoan industrializazio prozesua XIX. mendeko laugarren hamarkadan hasi zen. Aurreko hamarkadetan, etengabeko gatazka militarrek izan ziren. Horrek gizarteko eremu guztietan egoera garratzak eragin eta probintziako aurrerabide guztiak geldiarazi zituen. 1808tik 1813ra bitartean Gipuzkoa Frantziak okupatuta egon zen, Frantseste edo Espainiako Independentzia Gerra deritzonaren testuinguruan. Garai horretan, Napoleonen tropek probintzia okupatu zuten, eta aldaketa politiko eta sozialak eragin. Frantziarren okupazioa bukatu eta 20 urtera beste gatazka bat piztu zen: Lehen Karlistada. 1833tik 1839ra bitartean iraun zuen interes dinastiko-politiko eta ekonomikoek bultzatutako gatazka hark, eta Gipuzkoan gudu handiak izan ziren.

Aduanen lekualdaketak, energia hidraulikoa erabiltzeko aukerak, burgesia ekintzailea, inbertsio nazionalak eta nazioartekoak, Gipuzkoaren kokapen geografiko estrategikoa... horrek guztiak berpiztu egin zuen industria-ekonomia. Beste faktore ezinbesteko bat gipuzkoarren *ikasitako edo jasotako gaitasunak* izan ziren. Deba ibaiaren arroan, adibidez, langile askok trebetasun teknikoetan jakintza handia zuten, mende luzez burdina

lantzen jardutearen ondorioz garatuta¹⁹. Eraldaketa ez zen bat-batekoa izan, ordea. Industria modernoa gutxinaka joan zen txertatzen, eta urte luzez industria tradizionala eta modernoa batera gertatu ziren, sinbiosi moduko batean.

Gipuzkoako industria modernoaren hastapenak Tolosako Nuestra Señora de la Esperanza papergintza-fabrikarekin hasi ziren, 1842an. Aurrez bazeuden artisautzako teknikak erabiltzen zituzten papergintza-etxeak, baina makina modernizatuak ezartzeak paper jarraitua ekoiztea ahalbidetu zuen Brunet, Guardamino y Cía enpresan²⁰. Pascual Madozek honela deskribatu zuen 1849an Tolosako papergintza-industria: «Hiru paper fabrika daude: bat bi eraikinetan banatuta, Berastegi ibaiaren gainean, Igarondo pasealekuaren sarreraren aurrean, makineria onarekin muntatuta, eta bertan kalitate bikaineko papera egiten da eskuz; beste biak paper jarraitukoak dira, dimentsio handietan eraikiak, azken aurkikuntza onenetan»²¹ oinarritutako makinekin. Madozen deskribapen hori lehen aipatutako aurrerabide gutxinakakoaren adibide da. Ezagutza eta lan egiteko modu tradizionala du oinarrian industria modernoak, eta berrikuntza teknologikoa txertatu dio, produktu berri eta/edo lehiakorragoak ekoizteko.

1846an, Bergaran, Fábrica de Hilados, Tejidos y Estampados de Vergara izeneko ehungintza-fabrika modernoa sortu zuten Blanc, Frois eta Silva merkatariek²². 1847an, berriz, siderometalurgiaren sektoreko lehen industria modernoa ezarri zen Iraetako fanderian, eta, hurrengo mendean Gipuzkoako industrializazioaren motor bihurtuko zen hartan, txapa ekoizteari ekin zioten²³.

1860ko hamarkadan, gerora probintziako bi enpresa handienak bihurtuko zirenak sortu ziren. Lehenbizi,

17 Luchien K. (2014). Time as a periodization of management practices. *Management & Organizational History*, 9:4, 414-432. 418.or.

18 Arbaiza, M. (2015). Cuerpo, emoción y política en los orígenes de la clase obrera en España (1884-1890). *Revista Ayer*, 98(2), 45-70. 50.or.

19 González Portilla, M., Urrutikoetxea Lizarraga, J., eta Zarraga Sangroniz, K. (2015). *La "otra industrialización" del País Vasco. Las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación social durante la primera industrialización*. Euskal Herriko Unibertsitatea. 95.or.

20 Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/antzinako-lanbideak/un-poco-historia>

21 Madoz, P. (1849). *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar / por Pascual Madoz*, XV [Toledo-Vettonia]. 14.or.

22 Perallón, J.E., eta López, J.L. (1996). *El mundo azul de Tavex. 150 años tejiendo su historia*. Tavex. 31.or.

23 Herreras Moratinos, B. (1998). Dos intentos de modernización de la siderurgia vasca. *Vasconia*. 25. 195-215. 205.or.

1860an, Beasainen, San Martin Burdin Fabrika²⁴ (CAF izango zenaren hazia), probintziako lehen labe garaia zuena eta egur ikatzez elikatua. Gero, 1869an, Arrasaten, sarrailagintzaren sektoreko Vergarajaúregui, Rezusta y Cía²⁵, aurrerago Unión Cerrajera bihurtuko zena.

1864ko abuztuan Ferrocarril del Norte edo Norteko burdinbide deritzona inauguratu zuten, Irun eta Madril lotzen zituen trenbidea, eta lehen mailako eragile bihurtu zen Gipuzkoako industrializazioaren aurrerabidean²⁶.

4.3. OÑATIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA (1842-1866)

XIX. mendearen erdialdean, Oñatik aldaketa eta gertakari erabakigarriak bizi izan zituen. 1845ean behin betiko sartu zen Gipuzkoako probintzian, bi aldeek adostasunez ezarritako baldintzetan. Baldintza garrantzitsuenak bi izan ziren. Lehena, Ormaiztegitik Elorregira (Bergara) Oñati zeharkatuz egitekoa zen errepidea irekitzea. Bigarrena, probintziak instituturako urteroko finantzazio finkoa izatea (20.000 errealekoa) eta, noizbait berriro unibertsitate maila izatera helduko balitz, zenbateko hori handitzea²⁷.

Oñatik eta Gipuzkoako Aldundiak adostutako bigarren baldintza horrek Sancti Spiritus Unibertsitatea Bigarren Hezkuntzako institutu bihurtua zela adierazten du. 1842an itxi zuten Unibertsitatea, unibertsitatetzat ulertu ohi dugun erakunde bezala²⁸. Datu aipagarri gisa, esan dezagun Unibertsitate hartan 1806an eta 1807an Zuzenbideko ikasketetan matrikulatuta egon zela María Antonia de Kortazar²⁹, Oñatin bizi zen emakume gipuzkoarra, nahiz eta jatorri zehatza ez dagoen argi. Litekeena da Espainiako estatuko unibertsitate batean bere izen propioarekin ofizialki izena emandako lehen emakumezko ikaslea izatea. Hala balitz, ikasgelan gizonetzko

ikaskideekin batera egon zen eta ez zuen haien itxura hartu beharrik izan³⁰.

Unibertsitateak hainbat forma izan zituen, hala nola institutu, Errege eta Pontifikal Unibertsitatea (Lehen eta Bigarren Karlistadetan), nekazaritza-eskola eta abar, harik eta 1901ean behin betiko itxi zuten arte. Oso neurri kaltegarria izan zen euskal probintzientzat, eta are gehiago Oñatirentzat. Ikasleak garrantzi handiko diru iturri ziren herrian, ostatua, hornitza eta kontsumoa zekarten eta.

1849an Madozek honela deskribatu zuen Oñatiko industria: «3 burdinola, 2 mailu, non burdinurtuari zenbait aldaketa ematen zaizkion; sutegi asko herrian eta auzoetan, zeinetan lantzen baitira mota guztietako iltzeak, burdineria, sarraila-gauzak, ingudeak, eta nekazaritza tresnak eta aparailuak, nazio barrura eta itsasoz bestaldera esportatzen direnak; larrua ontzeko fabrika, eta ehundegiak, bertako txurra ardien artilezko zaku eta mantetarako, eta etxeko mihiseetarako, [eta] 23 irin errota; auzoetan nekazaritza eta teilak eta adreilu fabrikak, eta Araotzeko hargindegia. Mende honen hasieran fanderia bat ezarri zen, baina gaur egun haren aztarnak eta hondakinak baino ez daude»³¹. Herriko industrian lan egiteko modua aski tradizionala eta artisautza maila altukoa zela ikus daiteke deskribapenean.

1855ean Oñati bortitz jo zuen kolerak. Izurriteak bi agerraldi izan zituen, sorburu desberdinekoak. Lehena uztailaren 19an hasi zen Arantzazun³². Bigarrena herri-gunean bertan sortu zen, abuztuaren 13an hasita, eta azaroaren 13an bukatutzat jo zen epidemia³³. Koleraren eraginez, 149 pertsona hil ziren. Beste 65 lagun ere urte berean hil ziren, kolera diagnosirik gabe baina gaixotasun horrek eragiten dituen sintomak zituztela, behear-koa, besteak beste³⁴. Azken batean, hiru hilabete eskasetan 200 bizitza inguru eramane zituen izurriteak. Uste

24 Legorburu Faus, E. (2000). *La labranza del hierro en el País Vasco. Hornos, ruedas y otros ingenios*. Euskal Herriko Unibertsitatea. 202. or.

25 *Ibidem*, 201. or.

26 Ruzafa Ortega, R. (2023). Las empresas constructoras del ferrocarril en el norte de España a mediados del siglo XIX: el negocio de la subcontratación. *Alcores. Revista de Historia Contemporánea* (27), 121-146. 134. or.

27 Gorosabel, P. (1862). *Diccionario histórico-geográfico de la provincia de Guipúzcoa*. 3. edizioa (1971), La Gran Enciclopedia Vasca. 352. or.

28 Azpiazu Elorza, J.A. (2020). *Historia social de la Universidad Sancti Spiritus*. Kutxa Fundazioa. 290. or.

29 *Ibidem*, 125. or.

30 Azurmendi, N. (2021/11/07). María Antonia de Cortázar, la primera universitaria. *Diario Vasco*.

31 Madoz, P. (1849). *Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de Ultramar / por Pascual Madoz, XII [Nabaja-Pezuela de las Torres]*. 288. or.

32 Zumalde, I. (1957). *Historia de Oñate*. Donostia, Gipuzkoako Aldundia. 641. or.

33 *Ibidem*, 646. or.

34 Arrizabalaga Valbuena, J. (1984). *Las repercusiones demográficas en la epidemia de cólera de 1855 en Guipúzcoa. El caso de Oñate* [Kongresuko aktak]. III Congreso de la Sociedad Española de Historia de las Ciencias (1. liburukia, 121-142), Donostia. 128. or.



1. irudia. Osinurdin, 1967 inguruan. Argazkia: Plazaola

da Oñatik 5.500 biztanle inguru zituela 1855ean³⁵, eta % 3,6 hil ziren.

1850eko hamarkadan ordena ekonomiko tradizionala pixkanaka higatuz joan zen, eta herriko burdingintzan nabaritu ziren lehen zantzuak. Industria Iraultzaren olatuak bultzatutako enpresak teknologia berritzaileak erabiltzen hasiak ziren beste herrialdeetan, produktu aurreratuagoak merkaturatzen zituzten, eta oñatiarrak ezin ziren lehiatu haiekin. Siderurgia-fabrika aurreratuak labe garaiak eta Bessemer bihurgailuak erabiltzen ari ziren koke ikatza errez, eta herriko burdinolek, aldiz, egur ikatza eta energia hidraulikoa besterik ez zuten. Basoak modu intentsiboan ustiatu izanaren ondorioz, ikatza gertu aurkitzerik ez zeukaten, eta horrek lehen-gaiaren prezioa garestitzen zuen. Ekoizpena energia hidraulikoan oinarrituta egoteak urtearen bi herenetan ziurtatzen zien energia, ur emariaren menpe zeuden

eta. Bi faktore horiek, produkzio maila apalagoa izatea zekarten-eta, Oñatiko metaleko negozioen lehiakortasuna mugatu zuten.

1850eko hamarkadan, Juan Antonio de Balanzategi Oiarbidek (Mexikon bizi zen indiano bat) Zubillaga auzoko Osinurдинen kobrezko galdara-fabrika bat erai-ki zuen³⁶. Leku berean, Osinurдинen, Quintín Dugiol-sek kobre fabrika sortu nahi izan zuen 1852an, baina ez zuen luze iraun³⁷.

1856an, herrian nabaria zen lanik eza, eta Andrés Lizaur Korkostegik, karitateak bultzatuta, enpresei zein herri-ko langile jendeari lana emateko asmoz, bai eta lanik ezak zekartzan ondorioak ekiditeko ere, herriko zenbait obra zibil ordaindu zituen bere diruarekin³⁸.

35 Elorza, J., Madariaga, J., eta Zumalde, I. (2000). *1845: Oñati eta Gipuzkoaren bategitea*. Elkar Lankidetzan bilduma. 56.or. (1844ko udal erroldan 4.605 biztanle erregistratu ziren, eta 1857koan, 5.646 biztanle).

36 *Ibidem*, 82.or.

37 Villar, A., Igarzabal, E., Ereitten eta Artixa (2017). *Antxinako Zubillagari begirada bat*. 100.or.

38 Zelaia Arza, X. (2022). *Oñati XIX. mendean. Hirigintza eta etxegintza*. Oñatiko Udala. 204.or.

1857an, Oñatin bi fabrikak burdina ekoizten zuten, beste batek brontzea, larrua ontzeko *kurteixa* bat ere bazeuen, eta denen artean 26 langile enplegatzen zituzten. Ultzeak eta sarrailek fabrikatzen zituzten zenbait sutegi ere bazeuden, eta 180 langileri ematen zieten lana horiek³⁹.

1860an Oñatiko eta Gipuzkoako biztanleria aktiboa sektoreka nola banatuta zegoen alderatuz gero, aldea nabaria da. Oñatin, *fabrikatzaile/industrial* gisa biztanleria aktiboaren % 1,06k jarduten du, eta Gipuzkoako probintzian, berriz, % 5,43k⁴⁰. Probintziako industrializazio aurrerabidearen aldean Oñati atzean geratzen ari zela garbi erakusten du horrek.

4.4. INDUSTRIA MODERNOAREN AITZINDARIAK OÑATIN

Industria tradizionaletik modernora lehen jauziak eman zituzten egitasmoak aurkezten dira atal honetan. Teknologiaren aldetik eta industria-antolakuntzan eredu aurreratuagoak txertatu zituzten ekoizpen sistemetan, eta lehiakorragoak bihurtu ziren hala.

1866. Garay y Cía. La Minerva pospolo fabrika.

1866ko urtarrilaren 6an, Oñatiko Udalak mezu bat jaso zuen Garay y Cía enpresa-sozietate aretxabaletarrek bidalia. Oñatin eskala handiko pospolo fabrika bat muntatzeko nahia adierazi zuten mezu hartan, eta helburu hori gauzatzeko laguntza eskatu. Udalak, negozio horrek herriari ekar diezaiokeen onura kontuan hartuta, onartu egin zuen eskaera. Laguntza-konpromisoa honela proposatu zuen Udalak: obrarako beharrezkoa den zurezko material guztiaz doan hornitzea; teilaz, adreiluz eta karez kostu prezioan hornitzea, eta udal zergen bidez aurreko urtean bildutakotik gorako guztia enpresari ematea hurrengo bi urteetan. Garay y Cía-k ontzat eman zuen Udalaren proposamena, baina udal zergen gainetikoak 3 urtekoak izatea eskatu zuen, eta Udalak onartu⁴¹.



2. irudia. 1875an txanponak egiteko erabilitako trokela⁴².

Argazkia: Oñatiko Udal Artxiboa.

Fabrika Olalden kokatu zen, aurrez burdinola eta errota egondako lekuan. Hainbat emakume aritu ziren lantegian lanean, adingabe eta gizonekin langile taldea osatuta. Negozioa martxan egon zen Bigarren Karlistadara arte, non *Karlos VII.aren txanpon fabrika* bihurtu zen.

Bigarren Karlistada amaitu ondoren, berriro pospoloak ekoizteari ekin zioten. Hurrengo orriko irudian erakusten da garai hartako pospolo kaxa batek zeraman irudia.

1871. Oñativia e hijo y Candaudap. La Trinidad pospolo fabrika.

Arantzazuko Ama kalean egon zen, Lusabarri deituriko lursailean, eta 1875ean bukatu zuen industria-jarduna⁴³.

1877. Moyua, Guerrico y Cía. Puntapax fabrika.

Torreazon, ur jauzi baten bidez gurrpil hidrauliko handi bat biraraziz, puntapax edo parisputak ekoizten hasi ziren, teknologia aurreratuagoa erabiliz. Oñatiri lotutako jardunik ezagunenetakoa da, eta negozio hori martxan jartzeak ultzeginen sutegi tradizionalak desagertzera eraman zituen. Ia sutegi guztiak itxi ziren, 36ko gerraren ondoren ultzeak eskuz egiten jarraitu eta artisau eran lan egiten zuen bakarren bat izan ezik. Puntapaxen ekoizpenak emaitza onak eman zizkien eta,

39 Zumalde, I. (1957). *Historia de Oñate*. Donostia, Gipuzkoako Aldundia. 356.or.

40 Elorza, J., Madariaga, J., eta Zumalde, I. (2000). *1845: Oñati eta Gipuzkoaren bategitea*. Elkar Lankidetzan bilduma. 76.or.

41 Zumalde, I. (1957). *Historia de Oñate*. Donostia, Gipuzkoako Aldundia. 357.or.

42 Oñatiko Udal. *Bigarren Karlistada Oñatin*. <https://www.xn--oati-gga.eus/eu/onati/historia/karlistadak/bigarren-karlistada-onatin>

43 Azpiazu Elorza, J.A., eta Creixell Garay, J.L. (2016). *Los Garay. Una saga industrial en Oñati durante 150 años*. 39-40.or.



3. irudia. Garay y Arregui pospolo fabrikan ekoiztutako kaxa baten gainaldeko irudia. Argazkia: Nagore Goñi.

1884an, Konteari Zubillagako ola erosi zioten, burdinazko eta altzairuzko erremintak fabrikatzeko⁴⁴.

1893. Biain y Cía. Etxe eta kaleetako argindarra ekoizteko enpresa.

Ubao ibaiaren indar hidraulikoa aprobetxatuz, etxe eta kaleetako argindarra sortzeko lehen enpresa sortu zuten. Unión Cerrajera sarrailagintzako enpresak energia behar zuen Arrasate eta Bergarako lantegietarako, eta Biain y Cía bereganatu zuen⁴⁵. Cerrajerak inbertsioak egin zituen gero, ahalik eta energia gehien sortu eta burujabetza energetikoa lortzeko. Estrategia horren barruan, ur kanalizazioko sistema berria eta Olateko zentrala eraiki ziren.

⁴⁴ Ramírez de Okariz Tellería, I. (1994). *Oñati, gure herria*. Oñati-ko Udala. 56. or.

⁴⁵ Herreras Moratinos, B. *Olateko indarretxea*. Euskal Industria Ondarea. 390-394. 391. or.

5. EMAKUMEAK INDUSTRIALIZAZIOAREN HASTAPENETAN

Atal honetan, emakumeek Britainia Handiko Industria Iraultzan eta Euskal Herriko industrializazioaren hastapenetan izan zuten tokia laburbiltzen da.

5.1. EMAKUMEAK BRITAINIA HANDIKO INDUSTRIA IRAULTZA

XVIII. mendean, Britainia Handian hasitako Industria Iraultzaren ondorioz, artisautzako ofizioek eta tailerrek fabrika kapitalistari bide eman zioten. Adituen ustez, ehunetarako hariak eskuz irutea izan zen industriaurreko ekonomian emakumeen langintza nagusia; litekeena da %75erainokoa izatea XVIII. mendeko Ingalaterrako emakume langileen artean⁴⁶. Industrializazioak etxea (aurrez emakume askoren artisautza lanerako lekua) eta lantokia bereiztea eragin zuen, eta, hala, aurrez etxean harigintzan eta nekazaritzan aritzeko zituzten aukerak suntsitzea. Espazio produktiboa eta erreproduktiboa banandu egin ziren. Bestalde, 1750-1850 artean hazkunde ekonomiko modernorako trantsizioarekin batera, industria berriak sortu ziren (kotoizko ehunak, adibidez), emakumeentzako lanpostu berriak eskaintzen zituztenak. Garai hartako industriako emakume gehienak ehungintzaren eta jantzigintzaren sektorean enplegatuta zeuden: 1841ean eta 1851n, %82 eta %84⁴⁷, hurrenez hurren. Ehungintzaren testuingurua aztertu duten ikerlariak diotenez, lanpostuetan genero segregazioa egiten zen eta lansari desberdinak jasotzen zituzten. Gizonezkoek eta emakumezko lankideen *jardun berdinarengatik*: gizonezkoek bi aldiz gehiago irabazten zuten⁴⁸. Aztertu duten dokumentaziotik ezin ondorioztatu dezakete emakumezkoek eta

gizonezkoek lan berberak egin edo/eta lanpostu berberak betetzen zituztenik. Ikerlariak enpresen artxiboetatik jasotako informazioan identifikatu dutena zera da, gizonezkoak lanpostu banaketako sailkapenean maila altuagoetan ageri direla⁴⁹. Generoaz hitz egiten denean, gizarteko bateko kideei sozialki esleitzen zaien identitateaz ari gara, kasu honetan sexu desberdintasuna oinarri hartuta. Generoa gizarte kategoria bat den heinean, kulturalki eta historikoki zehaztuta dago. Gizarte harremanak antolatzeke funtsezko printzipio egituratzailea da, etengabe aldatuz eta azalberrituz doana⁵⁰.

Industria Iraultza sortu zenean, emakumeei zenbait genero ezaugarri ezarri zitzaizkien, beren izaieran eta biologian oinarritutako justifikazioz apainduta: ahuldura fisikoa, menpekotasuna, pasibotasuna, gozotasuna... Gizonei, berriz, indar fisikoa, kementa, lidergoa, adimena eta abar ezarri zitzaizkien, eta balio horiexek bihurtu zituzten preziatu. Emakume langileen harreman sozialak hiru eremutan kokatu daitezke: fabrikako zuzendariekin, lankide gizonezkoekin eta gizartearekin. Enpresek beren izaeragatik emakumeei lan mota batzuk esleitzen dizkiete, gizonen aldean lansari txikiagoak eman, eta kostuaren ikuspuntutik errentagarri dira hala. Mekantzioa heldu ondoren, fabriketako jardueretan erabili beharreko indar fisikoa, ehungintzan behintzat, ez da oso handia, eta esleitutako lan horiek egiten dituzte emakumeek. Enpresek emakumeekiko interesa izateko beste arrazoi bat zera da, otzanak direla eta ez dutela interesik gizonak antolatzen hasiak ziren protosindikalismoan⁵¹.

46 Muldrew, C. (2012). 'Th'ancient Distaff' and 'Whirling Spindle': measuring the contribution of spinning to household earnings and the national economy in England, 1550-1770. *Economic History Review*, 65 (2), 498-526. 520.or.

47 Burnette, J. (2009). *Gender, work and wages in industrial revolution Britain*. Cambridge University Press. 20-21.or.

48 Minoletti, P. (2013). The importance of ideology: the shift to factory production and its effect on women's employment opportunities in the English textile industries, 1760-1850. *Continuity & Change*, 28 (1), 121-146. 8. or.

49 *Ibidem*, 9.or.

50 Mellén, I., eta López de Maturana, V. (2024). *Genero-ikuspegia duen memoria historikoa. Emakumeak kontakizun historikoan txertatzeko gida praktikoa / Memoria histórica con perspectiva de género. Una guía práctica para incluir a las mujeres en el relato histórico* (Amelia Barquín laguntzaile). Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea. 41.or.

51 Minoletti, P. (2013). The importance of ideology: the shift to factory production and its effect on women's employment opportunities in the English textile industries, 1760-1850. *Continuity & Change*, 28 (1), 121-146. 14.or.

1850etik aurrera, Britainia Handiko fabriketan emakumeen parte hartzea nabarmen apaldu zen, eta joera hori eragin zuten hiru faktore nagusi identifikatu dira. Seguruenik, ez maila berean, baina hiru faktoreen konbinazioak bultzatu zuen enpleguaren portaera hori. Gizonezko langileek, genero ideologia erabiliz, argudiatu zuten emakumeen lekua etxean zegoela, eta gizonezkoen soldatak nahikoa altua izan behar zuela emaztea eta seme-alabak mantentzeko: gizonek *familia-soldata* irabazi behar zutela. Emakumeak baztertzeari familia-soldata lortzeko bidea bezala justifikatu zuten⁵², alegia, Adam Smithen soldata-irizpideetan oinarrituta. Smithek, ekonomiari buruzko lehen liburu modernotzat jotzen den *Nazioen aberastasuna* argitaratu zuen 1776an, eta, lan horretan, ekonomiarekin lotutako hainbat elementuren artean (merkatua, moneta, aberastasuna, etab.), lanaren banaketari buruzko teoria ekonomikoa aurkeztu zuen, eta familia-kideen arteko soldata-bereizketaren teoria planteatu:

«Gizonak beti bere lanetik bizi behar du, eta bere soldatak bera mantentzeko nahikoa izan behar du, gutxienez. Gehienetan hori baino handiagoa ere izan behar du, familia bat sortzeko gai izango bada [...]. [...] behargin apalenez bizirik irauteko behar dutenaren bikoitza irabazi beharko lukete gutxienez, horrela andre-gizonek bi seme-alaba hazi ahal izateko; eta andrearen lanak, zeina seme-alabak hazteaz arduratzen baita, bere burua mantentzeko lain baizik ez du behar eta.»⁵³

Beste hipotesi bat da fabriketako emakume enplegatuei zegokienez lan arloko legediak ezarritako mugek enpleguaren murrizketak eragin zituztela. Izan ere, XIX. mendean erdialdetik aurrera, lan arloko legediak emakume eta adingabeentzako gero eta babes neurri gehiago ezarri zituen, eta, hala, emakumeen industria-enplegurako sarbidea mugatu. 1850eko Fabrika Legeak⁵⁴ emakumeen ordutegia mugatu zuen eta gaueko lana debekatu zien, emakumeak haurren eta adingabeen kategoria juridiko berean kokatuta; eta hurrengo araudiak, 1867⁵⁵ eta 1878koek⁵⁶, murrizketa horiek industria gehienetan zabaldu zituzten, eta gauez lan egiteko debekuak ezarri. Emakume langileen osasuna babeste aldera hartutako neurri bezala gizarteratu ziren, baina

hona hemen zer planteatzen duten horren harira Lewisek eta Daviesek⁵⁷: zergatik jarri zuten politikariek arreta manufaktura-industrian hain tinko, eta alde batera utzi, adibidez, erizainen gaueko lana edo etxeko zerbitzarien ordu luzeak, horiek, definizioz, emakumeen lantzat hartzen baziren? Babesgarri gisa jarri arren, neurri horiek, hain zuzen, emakumeen industria-aukerak estutu eta gizonezkoen *familia-soldata* eredua indartu zituzten.

Aurrez adierazi den bezala, emakume langileek hiru eremutan zituzten harremanak. Azken eremua gizartea da, eta hor pixkanakako eraldaketa sakona gertatu zen 1850era heldu arte. Emakumeak XVIII. mendean fabrika mekanizatueta lanean hasi ziren unean gizarte mailako eztabaida sortu zen, ea fabrika edo etxean egon beharko luketen. Aurrerago, XIX. mendean erdira heltzerakoan, hori jada ez da eztabaidagai, monologo bihurtzen da. Generoari ezarritako ezaugarriak azalberritu egin ziren eta morala ekuazioko beste adierazle bat bihurtzera heldu zen. Garaiko moralean oinarrituta, emakumeak etxeratu egin beharko luke: *Etxeko Aingerua* da, eta amatasuna eta familiaren zaintza dira bere izatearen rol *natural* edo *berezkoak*. Viktoriar garaiko feminitatearen ideala erakusten du termino horrek, zer espero den emakume ororengandik: xalotasuna eta senarraren nahiak asetzeko erabateko sumisioa. Izenak Coventry Patmore poetaren poema-bilduma batean du jatorri⁵⁸; lan horretan, Patmoreren eta gizartean zabaldua dagoen feminitatea ulertzeko modua ageri da. Emakumearen espazioa etxera mugatzen bada, harreman sozialen eremua edo esfera bitan banatzen da: publikoa eta pribatua. *Esfera bereizien* ideologiak esfera publiko maskulino bat eta etxekotasunaren eta zaintzaren esfera pribatu femenino bat irudikatzen ditu. Naturalizat aurkezten bazen ere, banaketa hori emakumeen aukera ekonomikoak eta eskubide politikoak mugatzea justifikatzen zuen eraikuntza kultural bat zen. Sortu zen ideologia horren kontrako mugimendu bat, eta Virginia Woolf idazlea izan zen korrante horretako figura esanguratsuenetako bat. Woolfek hainbat lan eta hitzaldi eman zituen emakumeen askatasun eta espazioen premia zabaltzeko. Ildo horretako bere lan ezagunenetakoa, *Etxeko Aingerua hiltzea*⁵⁹, Medikuntzako ikasgela batean emandako hitzaldi baten transkripzioa da, eta

52 Burnette, J. (2009). *Gender, work and wages in industrial revolution Britain*. Cambridge University Press. 246. or.

53 Smith, A. (1976). *An inquiry into the nature and causes of the wealth of nations* (W. Straham eta T. Cadell in the Strand, argit). 83. or.

54 Hutchins, B.L., eta Harrison, A. (1911). *A history of factory legislation*. P. S. King & Son. 96. or.

55 *Ibidem*, 168. or.

56 *Ibidem*, 247. or.

57 Lewis, J., eta Davies, C. (1991). Protective legislation in Britain, 1870-1990: equality, difference and their implications for women. *Policy & Politics*, 19 (1), 13-25. 13. or.

58 Patmore, C. (1854-1862). *The angel in the house*. Cassell & Company, Limited. <https://www.gutenberg.org/cache/epub/4099/pg4099-images.html> (2025-11-25ean kontsultatua)

59 Booke Cameron, S. (2020). Virginia Woolfs Post-Victorian Feminism. *Critical Alliances. Economics and Feminism in English Women's Writing (1880-1914)*. 169-196. 169. or.

emakume batek askatasunez pentsatu, sortu eta idatz dezan «Etxeko Aingerua hil» behar dela adierazi zuen bertan. *Gela bat norberarena*⁶⁰ saiakeran, 1929an argitaratua, emakume idazleek tradizio patriarkalaren sisteman duten lekuaz eta beharrez ari da, eta gaur egun ere manifestu feminista izaten jarraitzen du.

Eztabaida ideologikoak maila sozioekonomiko altuko jendeak izan zituen, nahiz eta Industria Iraultzaren hasieratik langile klasekoek *ogi irabazlearen* produkzio ekarpena ez ezik familiako beste kide guztiena ere ezinbestekoa zuten biziraupenerako⁶¹.

XX. mendean administrazio bulegoak *feminizatutzat* jo izan badira ere, ez da beti horrela izan. Industrializazio goiztiarragoa izan zuten herrialde batzuetan eztabaida sakona sortu zuen emakumeak bulegoetan lanean hasteak. Ameriketako Estatu Batuetako kasua bikain azaltzen du Margery W. Daviesek *Woman's Place Is at the Typewriter* liburuan. AEBko Gerra Zibil edo Sezesio Gerran (1861-1865), Francis Elias Spinner AEBko Ogasun Zuzendaria zen eta eskulan eskasia larriarekin egin zuen topo, bulegoetako gizon langileak frontean zeudelako, borrokan. Aurkakotasun ikaragarriari aurre egin ondoren, bulego lanetarako emakumeak kontratatzeari ekin zion, *esperimentu* gisa aurkeztuta, emakumeei lan mekanikoak emanda, hala nola bonuak eta dibisak sailkatzea eta paketatzea. *Esperimentu* horrek gerra ondoren jarraitu egin zuela-eta, kontra zeudenak isilarazteko justifikazio gisa, Spinnerrek adierazi zuen emakume batzuek lan gehiago eta hobe egiten zutela, soldata erdiaren truke⁶². Industrializazioa zabaltzen joan zen heinean, industriak ere bulegoetarako lan indarra behar izan zuen, eta AEBko emakumeak apurka-apurka leku hori bete zuten, mekanografen kasuan adibidez, 1870ean % 4,5 izatetik 1930ean % 95,4 izateraino.

Administrazio lana hasieran gizonek egiten bazuten ere, aldaketa teknologikoak erraztu egin zuen emakumeak arlo horretan sartzea. Carlos Gliddene eta Christopher Latham Sholesek bulegoko idazmakina berria asmatu zuten, eta, 1874an Remington enpresak merkaturatuta, sekulako arrakasta lortu zuen. Makinaren kontzeptu berri hura neutroa zen generoari dagokionez, eta haren erabilera ez zen lotu XIX. mendearen hasie-

ran gizonezkoak nagusi ziren bulegoekin. Hala, emakumeentzat errazagoa izan zen makina berriekin lotutako administrazio lanpostuak lortzea. Hil aurretik, Sholesek hauxe esan zuen idazmakinez: «Beti hainbeste lan egin behar izan duten emakumeen alde zerbait egin dudala sentitzen dut. Horri esker, bizimodua errazago aterako dute.»⁶³

5.2. EMAKUMEAK EUSKAL INDUSTRIALIZAZIOAREN HASTAPENETAN

Hego Euskal Herriko industrializazioaren lehen fasean emakumeek izan zuten presentziari buruzko azterlanei dagokienez, zenbait argitalpenek industria-sektoreetan izandako jarduera erakusten dute. Gai hori aztertu duten ikerlari batzuek diotenez, XIX. mendearen amaierako erroldetatik ateratako informazioan gabezia handiak daude emakumeen lanbide jardueren inguruan. Gabezia horiek zaildu egiten dute lanbideekin eta produkzio jarduerarekin lotutako datuak behar bezala interpreta-tzea⁶⁴.

Bidean zailtasunak topatu arren, historialari batzuk badabilta datu historiko horietatik industria-memoria osatzen eta emakumeen partaidetza azaleratzen. Horietako bat Mercedes Arbaiza Villalonga da. Hark egindako ikerketen arabera, emakumeak oso intentsitate handiz sartu ziren Euskal Herriko fabrika-sistamarako trantsizioaren testuinguruan sortutako lan merkatuetara⁶⁵. 1850-1879 bitartean, emakumeen jarduera-tasak honako hauek ziren aztertutako herri horietan sektoreko langile guztiekiko:

- Barakaldoko ekipamendu ondasunen industrian: % 70,6

- Trapagarango meatzaritza-industrian: % 55,8

60 Woolf, V. (1929). *A room of one's own*. Hogarth Press. (2013). *Gela bat norberarena*. Consonni.

61 Humphreys, J. (1991). "Lurking the Wings...": Women in the History of the Industrial Revolution. *Business and Economic History*. Second Series, 20. ISSN 0849-6825. 33.or.

62 Davies, M.W. (1982). *Woman's place is at the typewriter: office work and office workers, 1870-1930*. Temple University Press. 51.or.

63 ASME (American Society of Mechanical Engineers), (2011). *Sholes & Glidden 'Type Writer'. A Historic Mechanical Engineering Landmark*. October 6, 2011. Milwaukee, WI. 9-10.or. <https://www.asme.org/wwwasmeorg/media/resourcefiles/aboutasme/who%20we%20are/engineering%20history/landmarks/249-sholes-glidden-type-writer.pdf>

64 González Portilla, M., Urrutikoetxea Lizarraga, J., eta Zarraga Sangroniz, K. (2015). *La "otra industrialización" del País Vasco. Las pequeñas y medianas ciudades: capital humano e innovación social durante la primera industrialización*. Euskal Herriko Unibertsitatea.163.or.

65 Arbaiza Vilallonga, M. (2002). La construcción social del empleo femenino en España (1800-1935). *Revista Arenal*, 10 (2). 222.or.

- Erretereriako kontsumo ondasunen industrian: % 40,3

- Bergarako ehungintzan: % 46,8.

Garai hartako burgesiak eta botere politikoak ez zuen begi onez ikusten emakumeak fabriketan lanean aritzea. Gizonek produzitzea eta emakumeak soilik erreproduzitzera bultzatu nahi zituzten, Britainia Handiko mekanismoak gurean hamarkada batzuk geroago aplikatuta.

Espainiako estatuan, Pilar Sinués Navarro idazle eta aldizkari zuzendariak *El ángel del hogar* liburua argitaratu zuen 1857an. Geroago, izen bereko aldizkaria sortu zuen (4. irudia): «literaturari, hezkuntzari, modei, antzerkiei, aretoei eta onura berehalako eta aitortua duten era guztietako lanei buruzko asteroko aldizkaria». Arrakasta handia izan zuen aldizkariak (1865-1881), eta ikuspuntu liberaletik emakumearen heziketa moralari buruzko kezka islatzen duten testuak argitaratu zituen. Besteak beste, emakumeen gizarte eginkizunaren eta hezkuntza jasotzearen garrantzia azpimarratu zuen⁶⁶. Sinuésen lanak eremu publikora ahal bezainbeste hurbiltzen den feminitate eredu bat agertzen du, Espainia isabeldarrean emakumeei ezarritako muga sozial eta kulturalak gainditu gabe⁶⁷. Nerea Aresti Estebanen ustez, ordea, Pilar Sinués Navarro nekez hartu daiteke etxekotasun burges liberalaren idealaren sortzaile edo egiletzat. Sinuésen liburu ezaguna, sentimendu katolikoaren aldeko gorazarrea egiten du, bai emakumeen bai gizonen esparruan, gizartearen ohiko ordena kolokan jar zezakeen modernitatearen aurrerakadaren aurrean⁶⁸.

Alderdi pertsonalari dagokionez, garai hartan norberaren literatura-ekoizpenen irabazietatik bizi zen emakumezko idazle bakarrenetakoa da Pilar Sinués Navarro. Iturri batzuen arabera, horrexegatik eskatu zion bere senar José Marcos y Sanchís idazleak banantzea, 1875ean; ezin izan zuen onartu berak baino arrakasta handiagoa izatea emazteak⁶⁹.

66 Molina Puertos, I. (2009). La doble cara del discurso doméstico en la España liberal. El “Ángel del hogar” de Pilar Sinués. *Pasado y Memoria: Revista de Historia Contemporánea* (8), 181-197. 187.or.

67 *Ibidem*, 196.or.

68 Aresti Esteban, N. (2000). El ángel del hogar y sus demonios. Ciencia, religión y género en la España del siglo XIX. *Historia Contemporánea* (21), 363-394. 368.or.

69 Biblioteca Nacional de España. <https://www.bne.es/es/autores/sinues-maria-pilar>

AÑO II.

MADRID 8 DE ENERO DE 1865.

NÚM. 1.º

EL

ANGEL DEL HOGAR,

PÁGINAS DE LA FAMILIA.

Revista semanal de literatura, educación, modas, teatros, salones y toda clase de labores de inmediata y reconocida utilidad.

EJEMPLOS MORALES, INSTRUCCION Y AGRADABLE RECREO PARA LAS SEÑORITAS.

BAJO LA DIRECCION DE.

MARÍA DEL PILAR SINUÉS DE MARCO.

SUMARIO.

Hija, esposa y madre, (continuación), por María del Pilar Sinués de Marco.—*Julio del año*, por D. José Marco.—*La buena fama*, por Fernán Caballero.—*Deberes de la mujer*, (continuación), por D. Eusebio Blasco.—*Hijo por hijo*, (continuación) por doña María Mendosa de Vives.—*Explicaciones y aplicación del figurin*, por Pamela.—*LÁZAR*.—*Un figurin*.

Con este número se reparte además el pliego primero del tomo tercero de la *Galería de mujeres célebres*.

HIIA, ESPOSA Y MADRE.

CARTAS DEDICADAS A LA MUJER ACERCA DE SUS DEBERES PARA CON LA FAMILIA Y LA SOCIEDAD.

PARTE SEGUNDA.

ESPOSA.

DEDICATORIA.

A las Esposas.

Para vosotras escribo esta segunda parte de mi libro. Jóvenes que ya lleváis sobre vuestros delicados hombros el grave peso de los deberes conyugales, tan áridos algunas veces de cumplir.

Vereis en ella por cuantas pruebas puede pasar la mujer virtuosa y cristiana, y como todo lo vencen la paciencia y la dulzura: como consuela todos los pesares la confianza en Dios, y como no hay que desesperar nunca de la providencia, que suele sacar la alegría del seno mismo del mas acerbo dolor.

Si la vida no tuviese amargas pruebas, no se llamaría valle de lágrimas: no hay que buscar en ella felicidad completa: el cielo tiene sus nubes; la vida los tiene también: mas para disiparlos están la augusta luz de la razón, y la llama sacrosanta de la fe cristiana: ellas nos alumbran en las tinieblas de la vida y nos hacen esperar otra mejor y mas dichosa.

En tanto que las jóvenes reposan bajo el techo paternal, sus deberes son muy sencillos: las graves luchas son las de la esposa: tres figuras vereis en estas páginas: compadeced á la una é

imitad á las otras dos que salen triunfantes de las mas duras pruebas.

Esto es lo que espera y esto es lo que desea que suceda vuestra amiga,

La autora.

I.

MÉLIDA Á MME. HONORIA.

Urres de Jalón, Noviembre de 18...

Estoy muy triste, querida amiga mía; triste porque ya he perdido la esperanza de que venga V. á pasar algunos días á mi lado: triste, porque mi buena mamá vá á separarse de mí: triste, sobre todo, porque aquí no soy amada.

Y no crea V. que, al decir esto, me refiero al pobre Bautista—así desea él que le llamen—ni á su padre, ni á su hermano: él me adora: el bondadoso anciano solo vé por mis ojos, y Santiago me quiere con todo su corazón.

Su madre! la madre de mi esposo es la que no puede vencer la antipatía que me profesa: es su madre la que es mi enemiga!

Afecta tratarme con una consideración que me abruma, y otras veces me encarga de los quehaceres mas penosos y mas rudos: al día siguiente de casarme, me levanté un poco tarde: ella misma me sirvió el desayuno cuando me vió y me dijo con mas afectación que buena voluntad:

—Señora, esta no es la hora en que nos levantamos aquí.

© Biblioteca Nacional de España

4. irudia. «El ángel del hogar» aldizkariaren ale bat, 1865ean Madrilén argitaratua eta Pilar Sinués Navarrok zuzendua. BNE (Espainiako Liburutegi Nazionala) - Hemeroteca Digitala

1900. urteaz geroztik, hainbat ekimen legegile eta sozial bultzatu ziren, hala nola familia-soldataren aldarrikapena langile klasearen artean. Horrek emakumeen lanaren gizarte balioa birdefinitzera eramane zuen. Ideal horiek eta lanaren sexu banaketa XX. mendearen lehen herenera arte ez ziren erabat gauzatu. Momentu horretatik aurrera, industrian emakumeen presentzia murrizten joan zen sektore batzuetan. Adibidez, Bergarako ehungintzako datuak honako hauek dira⁶⁵: 1880-1899 bitartean, langileen % 39,7 emakumeak ziren; 1900-1910 bitartean, % 28,2, eta 1920-1935 bitartean, berriz, % 26,4.



5. irudia. Tolosa (1899). Elosegi txapel fabrikako ehuntze gela⁷⁰. Polikarpo Elosegi bilduma.

Bergarako ehungintzaren datuak adierazgarriak izan arren, Euskal Herriko fabriketan emakumeen presentzia ez zen murriztu industria-sektore guztietan. Feminitatea eremu erreproduktiboarekin eta maskulinitatea familiako ogi irabazlearekin lotzen zituzten genero ereduak gizartean barneratuta zeuden. Ideia horiek, klase ertain eta burgesetan eragin handi samarra izan arren, ezarpen mugatua izan zuten langile klasekoen praktikan. Eskulana eskatzen zen lekuetan, emakumeek, ezkongabeak edo ezkonduak izan, lan merkatuan parte hartu zuten⁷⁰. Ideologia hegemonikoak ez zuen galarazi emakume ezkonduak lan egitea. Ezarritako legedien bidez eta eremu produktiboaren egitura ideologiaren ereduera moldatzearen bidez, emakumeek baldintza okerragotan lan egitea lortu zen. Emakume ezkonduen

kasuan, haien lana familia-soldataren osagarritzat hartzen zela-eta, lansari txikiagoa ordaintzen zieten. Familien behar ekonomikoengatik, batetik, eta enpresek eskulan premia zutelako, bestetik, emakumeen lana behar-beharrezkoa zen sistema ekonomikoko partaide guztientzat⁷¹.

Gure geografiako hainbat herritan, kontsumoaren bilakaerak eta teknologiaren modernizazioak industria-aniztasuna bultzatu zuten, eta ekoizpen sare konplexu bat eratu zen. Emakumeen ekarpena erabakigarria izan da hainbat sektoreen funtzionamendurako. Hona hemen zenbait sektore eta lekutan emakumeek izan duten presentzia ikusarazten duten adibide batzuk:

⁷⁰ Aguado Higón, A. M., eta Sanfeliu, L. (2021). Workers and Republicans. Women and work during the Second Republic and the Civil War in Valencia. *BAETICA. Estudios de Historia Moderna y Contemporánea* (41), 367-389. 369. or.

⁷¹ *Ibidem*, 370. or.



6. irudia. 1856an, emakumeak pospolo fabrikan lanean⁷³. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Boinas Elosegui (Tolosa)

Fabrika askok industria-jardunerako gizonak kontratatzen bazituzten ere, emakumeen lansariak txikiagoak zirela-eta⁷² enpresa batzuetan azken horiek ziren langile talde nagusia. Ehungintza-sektorean, adibidez, emakume langileak oso ugari ziren.

Nuestra Señora del Juncal pospolo fabrika (Irun)

Fosforera Española izenez ere ezagutzen zen. 1856an sortu zen, eta 1908an 253 langileko plantillatik 216 emakumeak ziren⁷³.

Heraclio Fournier (Gasteiz)

1870ean sortua, 1950eko hamarkadan ia 1.000 enplegatu izatera heldu zen⁷⁴. Gehienak emakumezkoak ziren, eta *naipera* esaten zieten.

Industrias Muerza - Espárragos Carretilla (San Adrian)

1875etik zainzurien eta barazkien kontserbagintzan dihardute. Emakumeak beti izan dira gehien kontserba-industria horretan.

La Conchita⁷⁵ (Sodupe, Gueñes)

Zakuak, jutezko eta espartuzko hariak, eta paperezko zakuak ekoizten zituzten. Plantillaren gehieneko historia: 750 langile; % 70 emakumeak ziren.

Tabakalera (Donostia)

⁷² Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte. *Las trabajadoras de la fábrica Boinas Elosegui de Tolosa*. <http://www.patrimoniointustrialvasco.com/patrimonio/las-trabajadoras-de-la-fabrica-boinas-elosegui-de-tolosa/>. Lizentzia: CC BY-SA.

⁷³ Re-wiring. *Fábrica*. <https://expo.re-wiring.eu/es/abcd/fabrica/>. Lizentzia: Copyleft.

⁷⁴ Fournier. <https://www.nhfournier.es/blog/las-naiperas/>

⁷⁵ Barrio Marro, J. (2022). *Obreras: 11 fábricas del Valle de Cadagua / Lantegietako emakumeak: Kadagua haraneko 11 fabrika*. Bizkaiko Foru Aldundia. 229.or.



7. irudia. 1932 inguruan zainzuriak aukeratzeko lanetan. Conservas Muerza - Espárragos Carretilla. Grupo IANi esker eskuratua.



8. irudia. Emakume zigarrogileak Tabakalerako tailerlean lanean⁷⁶. Altadis, Tabakalera.


⁷⁶ Gordegia. <https://gordegia.eus/argazkia/grdgo23-016/>. Identifikazio Kodea: GRDGo23-016. Lizentzia: CC BY-SA.

Artiach (Bilbo)

Deustuko erriberan zegoen galleta-fabrika hori, eta 1924an egunean 18.000 kg galleta ekoizten zituen. Oso enpresa handia bihurtu zen, 800 langilera heltzeraino⁷⁷, eta langileen bi heren beti izan dira emakumezkoak.

Indar (Beasain)

Fabrika horretan emakumeek ekarpen garrantzitsua egin zuten, besteak beste, harilketa-lanetan.



9. irudia. Emakumeak harilketan Indarren⁷⁸. Aranzadi.

Sociedad Anónima Cooperativa Alfa (Eibar)

1920an sortutako kooperatiba hori armagintzan hasi zen⁷⁹. 1924an, josteko makinak ekoiztera pasatu, eta arrakasta handia izan zuen. Langile gehienak gizonezkoak ziren, baina hainbat emakumek ere egin zuten lan bertan. Alfaren politika soziala oso aurreratua izan zen, bai soldaten aldetik, bai langileei eta familiei ematen zizkien zerbitzuengatik.



10. irudia. Enpresari nazioarteko ospea eman zioten josteko makina mitikoak lanerako prest dituzte bi emakumek. Eibarko Udal Artxiboari esker eskuratua.

«Gerraurrean Alfako gizon eta emakumeek ordutegi differentea zeukaten. Emakumeak gizonak baino behar handiagoa zeukanez, ordutegia moldatzea adostu zuten. Eibarko enpresetan oro har ordutegia honakoa zen: 08:00etatik 12:00etara eta 13:30etik 17:30era. Alfako emakumeen ordutegia, berriz, honakoa zen: 08:15etik 11:45era. Horrela goizean lanera joan aurretik oheak egiteko astia zeukaten, eta eguerdiko ordu laurden hori bazkaria prestatzeko aprobetxatzen zuten. Arratsaldean, oster, 14:15etik 17:15era arte egiten zen lan. Eguerdian beranduago sartzen zen harrikoa egiteko eta arratsaldean, berriz, lehenago irten erosketak egiteko. Zazpi ordu lan egin arren, emakumeak zortzi orduak kobratzen zituen. Gerraostean gauzak aldatu eta ordutegi bera ezarri zieten guztiei. Astean kobratzen zen, lehenengo emakumeak eta gizonak ondoren»⁸⁰.

⁷⁷ Ibáñez, M., eta Zabala, M. (2007). *Las galleteras de Deusto. Mujer y trabajo en el Bilbao industrial*. BBK Fundazioa, Bilboko Udala. 53.or.

⁷⁸ Gure Gipuzkoa. <https://www.guregipuzkoa.eus/?lang=eu&pag ed=6&s=f%C3%A1brica#gallery/55e36d8de50e6eaf29oodf737bd86c42/158511/comments>. Lizentzia: CC BY-SA.

⁷⁹ ALFA. (1954). *Máquinas de coser Alfa S.A.* Breve historial. Eusko Ikaskuntza. Fondo de José María Arizmendiarieta. 103.40.295. 1. or.

⁸⁰ Beistegi, M. (2003/01/10-17). Emakumea Eibarko industriaren gorakadan. *Eusko News & Media*, 194. <https://www.eusko News.eus/0194z/bk/gaia19401eu.html>

6. INDUSTRIAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTU HISTORIKOETAN IDENTIFIKATUTAKO EMAKUME TITULARTASUNDUNAK

Proiektuaren helburuetan aipatu bezala, Oñatiko industriaren dokumentazio edo erregistro historikoan emakume izen propiorik ba ote zegoen jakitea zen horietako bat. Horretarako, atal hau hiru zatitan egituratuta aurkezten da. Hasteko, 3. tarifa ordaintzen zuten zergadunen ezaugarriak eta horiek industria modernotzat hartzearen zergatia ikusiko dira. Ondoren, azterketan zehar jarraitutako prozedura azalduko da. Bukatzeko, erregistroetan identifikatu diren eta industria-enpresen titulartasuna izan duten emakumeen izen propioak aurkeztuko dira.

6.1. INDUSTRIA-ERROLDETAKO 3. TARIFAREN EZAUGARRIAK

Industria-errola historikoetan gaur egun merkataritza bezala sailkatutako jardunak ageri dira. Industria-enpresen inbentarioa definitzerakoan, *industria modernoko* enpresak edo protoindustriatzat jo daitezkeen industria-jardunak hartu dira kontuan. Kasu askotan, XX. mendeko lehen bi hamarkadetan ez zituzten aurrez definitutako modernitatearekin lotutako ezaugarri guztiak betetzen, baina batzuk bai. Industrializazio maila hori integratua zuten enpresak 3. tarifaren bidez tipifikatuta zeuden Foru Aldundiko zerga-erroldean. Lehenago azaldu da industrializazioan zein urrats egin ziren modernizaziora jauzia egiteko, eta produkzio sistemaren mekanizazioa izan zela ezaugarri garrantzitsuenetakoa. Historikoki, artisautzako tailerra eta industria-jarduna bereizi dituen bi ezaugarri nagusiak langileen kopurua eta tresneriaren konplexutasun maila izan dira. Artisauen kasuan, langileen kopurua mugatua izan ohi zen. Askotan, artisauak bakarka egiten zuen lan, tailerrean edo etxean, eta beste batzuetan ikastun batekin edo berekin batera⁸¹. Bestalde, artisauak erabilitako tresneria eta lanabesak apalagoak eta konplexutasun maila nabarmen txikiagokoak izan ohi ziren.


Gipuzkoako Foru Aldundiak, zergadunen sailkapena ezartzean, 3. tarifako sailkapenaren barruan sartu zituen artisautzat mekanizaziorantz egin zuten enpresak; adibidez, txokolate ekoizleak. Artisauak, aldiz (banastaginak, abarketaginak, abarkagileak, aulkigileak eta abar), 4. tarifako 7. klasean bateratuta zeuden. Ikerlan honetan egindako azterketan, 3. tarifen sailkatutako zergadunak soilik hartu dira kontuan. Bereizteko irizpideak zehazteko, 1923-24. urteetako Industria Ekoizpenaren Estatistika hartu da oinarritzat⁸². Hura osatzeko, herriko enpresa gehienei eskatu zitzaizkien adieraz zezatela zenbat langile zituzten (generoaren arabera bereizita) eta zer energia-iturritzat baliatzen ziren. Estatistikatik jasotako informazioa adierazle bikaina izan da lantegi bakoitzaren langile kopurua eta mekanizazio maila ikusteko: gakoak industria modernoaren definizioarako.

Prozedura azaltzen hasi aurretik eta sarrera modura, 1901-1964 bitarteko industria-erroldean 3. tarifen sailkatutako negozioen titulartasuna zenbat emakumek zuten ikusiko da. Urte bakoitzeko zergadun guztien kopurua kontuan hartuta emakume izen propio erregistratuak guztizkoarekiko zenbat diren adierazten dute ehunekoek.

11. irudian ikus daitekeenez, emakumeen presentzia %1 - %9,5 artekoa izan da. Grafikoak erakusten duen bezala, gainera, emakumezkoen titulartasun maila, murrizta ez ezik, gorabehera handikoa izan da. Emakume kopuruaz gaiz, beste aldagai batzuek ere izan dute eragina emaitza horretan. Adibidez, 1910ean, lehenago 3. tarifakotzat hartzen ziren jardun batzuk sailkapen horretan sartu zituzten (*errementari* zirenak, esaterako, *erreminta-ekoizle* izendatu zituzten), eta zergadunen kopuru orokorra handitzea ekarri zuen horrek. Edonola ere, diagramako datuek argi uzten dute industriaren eremuan oso emakume ordezkari eta titular gutxi izan direla. Kopuru handiena 1963koa da, eta orduan ere %9,5 baino ez ziren.

⁸¹ Elorza, J., Madariaga, J., eta Zumalde, I. (2000). 1845: Oñati eta Gipuzkoaren bategitea. Elkar Lankidetzan bilduma. 84.or.

⁸² Gipuzkoako Artxibo Orokorra (AGG-GAO). AGG-GAO JD-IT 4171



11. irudia. 1901-1964 bitarteko industria-erroldean (3. tarifako sailkapenekoetan) emakumezko zergadunek duten presentzia, ehunekotan (%).

6.2. INDUSTRIAKO DOKUMENTU HISTORIKOAK AZTERTZEAN JARRAITUTAKO PROZEDURA


Dokumentu historikoen analisia emakume izen propioak identifikatzeko eta horiek negozio bakoitzean zer toki izan duten jakiteko egin da. Horretarako, lehenik eta behin industria-dokumentuak aztertu dira. Ondoren, emakumezko titularrak identifikatu eta izen propioa agertzen den ikusi da. *Viuda de* titulartasun izendapena duten kasuetan, senarra identifikatu da, aurreko urteetako erroldetatik. Gero, elizbarrutiko ezkontza-agirietan emakumearen izena bilatu da. Behin industria-jardunaren titulartasuna duen emakumea nor den jakinda, elizbarrutietako agirien bidez informazio hori osatu eta oinordekoak identifikatzeko ahalegina egin da. Lortu da oinordekoak identifikatzea batzuetan, eta ezinezkoa izan da beste zenbaitetan. Azken urratsa, hala, identifikatu ahal izan diren oinordekoekin harremanetan jartzea izan da, hauxe galdetzeko: ea identifikatutako emakumea titularra bakarrik izan den edo, aitzitik, titu-

larra eta fabrikako langilea. Hemen ikus daiteke, 12. iru-diko fluxu diagraman, jarraitutako prozedura.

Aztertu diren dokumentu historikoak bi multzotan banatu dira, nolako erregistroak diren kontuan hartuta: alde batetik, 1880-1964 bitarteko industria-matrikulak eta -erroldak aztertu dira, eta, bestetik, 1938-1980 bitartean Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari egindako eskaeren espedienteak.

1880-1964: INDUSTRIA-MATRIKULEN ETA -ERROLDEN AZTERKETA

Oñatiko industriarekin lotutako dokumentu historikoe-tan zer emakume dauden identifikatzeko, zenbait artxi-botako espedienteak aztertu dira. Alde batetik, zergekin lotutako informazioa dutenak: industria-matrikulak (Oñatiko Udal Artxiboa) eta industria-erroldak (Gipuzkoako Artxibo Orokorra [AGG-GAO], Tolosan). Espe-



12. irudia. Dokumentu historikoak aztertze erabilitako prozeduraren fluxu diagrama.

diente horietan, urtez urte industria-jarduna izan duten enpresen edo/eta zergadunen zerrendak ageri dira, bai eta bakoitzak ordaindu beharreko zergaren zenbatekoa ere. Industria-erroldek 1901-1964 bitarteko informazioa jarraitua ematen dute, trazabilitate maila handiz. Bestalde, XIX. mendearen bukaerako zerga-espedienteak industria-matrikuletatik lortu dira, baina horiek ez dute urteroko jarraipenik.

Aztertutako dokumentuetan zenbait elementu mugatzailerekin topo egin da. Jasotako oinarritzko informazioa industria-jardueren zergak ordaindu izana aitortzen duten enpresa-izenak edo enpresaren titularraren izenak dira. Zerrenda erregistratua ageri den izen soziala, kasu askotan, pertsona bati lotuta dago modu nominatiboan, baina ez da ematen informaziorik pertsona horren azpian jarduera bakarra edo gehiago dauden jakiten lagundu dezakeenik. Bestalde, izen sozialetan akatsak aurkitu dira, eta, beraz, ez da baztertzekoa zuzendu gabeko akats batzuek bere horretan irautea.

1938-1980: GIPUZKOAKO INDUSTRIAKO ORDEZKARITZAREN BITARTEZ KUDEATUTAKO ESKAEREN ESPEDIENTEAK

Oñatiko industriarekin lotutako espedienteak bi artxibotan kontsultatu dira: EAEko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusian, Gasteizen, eta *Nueva Industriako* espedienteak, berriz, Espainiako Administrazioaren Artxibo Nagusian (AGA), Alcalá de Henaresen. Espediente horiek 1938-1980 bitartean Industriako Ministerioari egindako eskaerak dira, Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzaren bitartez kudeatuak. Eskaera horiek enpresa berri bat sortzeko, enpresa handitzeko, lekualdatzeko, makina berriak erosteko eta abarretarako baimen eske aurkezten ziren.

1980-2000 bitartean ez da identifikatu industriaren eremuko enpresetan titulartasuna duen emakume izen propiorik. Ez da ahaztekoa XX. mendeko azken bi hamarkadetako joera dela negozioak izena eta *marka* izatea, eta ez izen nominatiboa pertsona baten izen propioarekin.

6.3. ERREGISTRO HISTORIKOETAN IDENTIFIKATUTAKO EMAKUME IZEN PROPIO TITULARTASUNDUNAK

Datozen lerrootan, aztertutako espedienteetan aurkitu diren emakume izen propioak aurkezten dira. Emakume izenak identifikatu ondoren, kontaktatu ahal izan diren oinordekoei galdetu zaie ea badakiten beren arbaso horrek parte hartu izan zuen industria-jardueran. Ez dakitela erantzun dute batzuek, eta fabrikan aktiboki parte hartu zuela, beste zenbaitek. Familiarekin harremanetan jarri ezin izan denean, fabrikan lan egindako emakumeei eta gizonei galdetu zaie lantegiaren jabea buruz. Informazioa eskatu zaien familia guztiak irekita eta laguntzeko gogoz agertu dira. Batzuetan, baina, laguntzeko jarrera ona izan arren, espedienteetan aurkitutakoaz kanpoko informaziorik ez zuten.

Orain aurkeztuko diren emakumeen agerpen ordena jaiotze datan (JD) edo bataio datan (BD) oinarritu da.

María Josefa Perea Kareaga

Zergadunaren izena: *Viuda de Gordoa*

Jaiotze lekua eta data: Basauri (Bizkaia), 1829-02-18^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Teila eta adreilu fabrika. Santxolopetegi auzoan zegoen.

Titulartasun data: 1880-1881⁸³

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Ez dago informaziorik negozioan lan egin zuela ziurtatzen duenik. Hipotesi sendoena negozioan lanik egin ez izana da.

Deskribapena: Ambrosio Gordoa Fernández de Ganboaren emaztea izan zen 1873an alargundu arte. José Ramón Arrazola Urkiagak Oñatiko teileriei buruz idatzitako liburua arabera⁸⁴, 1885ko erregistroetan ez dago jasota María Josefa titular bezala agertzen zen teila fabrika.

María Bautista Laskurain Narbaiza

Zergadunaren izena: *Viuda de Agustín Aseguinolaza*

Jaiotze lekua eta data: Bergara, 1832-09-24^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Errota. Zubillaga auzoan zegoen.

Titulartasun data: 1880-1881⁸³

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Ez da lortu informaziorik errotan lan egin izana adierazten duenik.

Deskribapena: 1880-1881eko industria-matrikulan agertzen da.

⁸³ Oñatiko Udal Artxiboa. Signatura: Z-315.4.

⁸⁴ Arrazola Urquiaga, J.R. (2020). *Las Tejerías en la Villa de Oñati*. L.G.: D 01184-2020.195. or.

Josefa Igartua Letamendi



13. irudia. Josefa Igartua Letamendi.
Marta Zubia Guineari esker eskuratuta.

Zergadunaren izena: *Josefa Igartua*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1839-09-26^{JD}

Lanbidea / Jarduera: 3 ingudeko eskuzko ultze tailerra. Zubibarrin zegoen.

Titulartasun data: 1903-1917^{85, 86, 87, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99}

⁸⁵ AGG-GAO, JDIT2949,20.

⁸⁶ AGG-GAO, JDIT2950,20.

⁸⁷ AGG-GAO, JDIT2951,20.

⁸⁸ AGG-GAO, JDIT2952,20.

⁸⁹ AGG-GAO, JDIT2953,20.

⁹⁰ AGG-GAO, JDIT2954,20.

⁹¹ AGG-GAO, JDIT3329,20.

⁹² AGG-GAO, JDIT2955,20.

⁹³ AGG-GAO, JDIT2956,20.

⁹⁴ AGG-GAO, JDIT2957,20.

⁹⁵ AGG-GAO, JDIT2958,10.

⁹⁶ AGG-GAO, JDIT2962,20.

⁹⁷ AGG-GAO, JDIT2959b,20.

⁹⁸ AGG-GAO, JDIT2960,10.

⁹⁹ AGG-GAO, JDIT2961,20.

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Ez dago informaziorik negozioan lan egin zuela ziurtatzen duenik. Oinordeko batekin hitz egin ondoren, eta familiaren garaiko maila sozioekonomikoa kontuan hartuta, hipotesi sendoena negozioan lanik egin ez izana da.

Deskribapena: Francisco Ugarte Ugarterekin ezkondu-ta egon zen 1898an alargundu zen arte. 1880-1881eko⁸³ eta 1890eko¹⁰⁰ industria-matrikuletan Ugarte y Cía so-zietatea ageri da (ultzeak eskuz egiteko 12 eta 8 tailer, hurrenez hurren).

Josefa eskuzko ultze tailerretan azkenaren titularra izan zen eta datu hau nabarmentzekoa da, jardun honek he-rrian historikoki izan duen garrantziarengatik. 1917an itxi zen Josefa Igartuaren jabegoko eta azken mota ho-netako tailerra.

Juana Josefa Irazabal Zubiagirre

Zergadunaren izena: *Juana Josefa Irazabal*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1841-03-30^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Gaseosa-fabrika. Kalebarrian ze-goien.

Titulartasun data: 1911-1923^{94, 95, 96, 97, 98, 99, 100, 101, 102, 103, 104, 105}

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Ez dago informaziorik ne-goioan lan egin zuela ziurtatzen duenik.

Deskribapena: Francisco Borja Gereta Zubiarekin ez-konduta egon zen 1892an alargundu zen arte. Ez da aurkitu beste gaseosa-fabrikarik 1911 aurretik.

¹⁰⁰ Oñatiko Udal Artxiboa. Signatura: Z-322.1

¹⁰¹ AGG-GAO, JDIT2963,20.

¹⁰² AGG-GAO, JDIT2964,20.

¹⁰³ AGG-GAO, JDIT29465,20.

¹⁰⁴ AGG-GAO, JDIT2966,20.

¹⁰⁵ AGG-GAO, JDIT2967,20.

Teresa Balanzategi Aranburu

Zergadunaren izena: *Teresa Balanzategui*

Jaiotze lekua eta data: Gabiri, 1844-10-15^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Eskuzko ultze tailerra ingude ba-tekin. San Juan kalean zegoen.

Titulartasun data: 1901-1905^{86, 87, 88, 106, 107}

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Ez dago informaziorik ne-goioan lan egin zuela ziurtatzen duenik.

Deskribapena: Francisco Erostege Lardizabalekin ezkon-duta egon zen 1899an alargundu zen arte. 1890eko¹⁰⁰ industria-matrikulan Francisco Erostege sozietatea ageri da, eskuzko bi ultze tailerrekin.

Nicanora Altube Letamendi



14. irudia. Elorza Altube familia: Nicanora erdiko ilaran dago, jesarrita eta beltzez jantzita. Maribel Elorza Jauregialzori esker eskuratua.

Zergadunaren izena: *Viuda de Elorza e Hijos*

Jaiotze lekua eta data: Buenos Aires (Argentina), 1849

¹⁰⁶ AGG-GAO, JDIT3166,20.

¹⁰⁷ AGG-GAO, JDIT2948,20.

Lanbidea / Jarduera: Erremintak ekoizteko bi fabrika: bat Zubillaga auzoan zegoen (Forjas de Zubillaga), eta bestea, Torreazon. Goribar auzoko ur jauzi baten jabetza.

Titulartasun data: 1923-1940^{106, 108, 109, 110, 111, 112, 113, 114, 115, 116, 117}

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra zen, eta negozioen kudeaketan eta zuzendaritzan aritu zen.

Deskribapena: Nicanora Buenos Airesen jaio zen. Aita jatorriz Zubillaga auzoko Zugasti baserrikoa zen, eta Palo Alto ospetsuaren anaia. Aitak Ameriketara emigratu zuen, eta Buenos Airesetik gertu finkatu zen. Nicanora Argentinan bizi izan zen 16 urte bete arte. Adin horrekin, Oñatira etorri eta Jose Antonio Elorza Kortabarriarekin ezkondu zen. Jose Antoniok Gipuzkoako politikan aktiboki parte hartu zuen: Foru Aldundian, eta Donostiako Udalean ere bai, alkateorde. Nicanora baino 17 urte nagusiagoa zen senarra, eta hark uste zuen emazteak formakuntza gehiago behar zuela elorzarren etxea eramateaz arduratzen ziren enplegatuei agindu ahal izateko: langileak, gidariak, sukaldariak, etab. Horregatik, ezkondu ostean, Donostiako mojen komentu batean egon zen urtebetez, behar zuen trebakuntza jaso zezan. Nicanoraren oinordeko batek adierazi duenez, nortasun handiko emakumea zen. Familiaren jabetzako negozioen kudeaketan eta zuzendaritzan parte hartu zuen, bai alargun moduan titular ageri den urteetan, bai eta alargundu aurretik ere.

Petra Arregi Irizar

Zergadunaren izena:

1903: *Viuda de Santiago Arregui*

1904-1905: *Hros. de Santiago Arregui*

1906-1926: *Petra Arregui*

¹⁰⁸ AGG-GAO, JDIT2968,20.

¹⁰⁹ AGG-GAO, CC5.

¹¹⁰ AGG-GAO, CC6.

¹¹¹ AGG-GAO, CC9.

¹¹² AGG-GAO, CC26.

¹¹³ AGG-GAO, CC27.

¹¹⁴ AGG-GAO, CC28.

¹¹⁵ AGG-GAO, CC48.

¹¹⁶ AGG-GAO, CC49.

¹¹⁷ AGG-GAO, CC50.

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1854-10-19^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Errota eta ur jauzia. *Murgiko errota* izenez ezagutzen da.

Titulartasun data: 1903-1926^{86, 87, 88, 89, 90, 91, 92, 93, 94, 95, 96, 97, 98, 99, 101, 102, 103, 104, 105, 106, 109, 110}

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra, kudeatzailea eta langilea.

Deskribapena: Petrak Murgiko errotan lan egin zuen, ehotze prozesuan eta familia-negozioaren kudeaketan. Alargundu ondoren, 1903-05-10ean errota erosi zuen¹¹⁸; inguru hartan norberak propio erositako negozio baten jabe zen emakume bakarrenetakoa bihurtu zen hala. Garai hartako emakumeek zeinen autonomia juridiko eta ekonomiko mugatua zuten kontuan izanda, ekintzailetza gaitasun nabarmena erakutsi zuen.

Justa Galdos Arriaran

Zergadunaren izena:

Errota. 1914-1921: *Justa Galdós*

Ur jauzia. 1915-1921: *Viuda de Ugarte*

Errota eta ur jauzia. 1922-1952: *Justa Galdós*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1856-07-19^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Errota eta ur jauzia. *Olabartako errota* izenez ezagutzen da.

Titulartasun data: 1914-1952^{96, 97, 98, 99, 101, 102, 103, 104, 105, 106, 109, 110, 111, 112, 116, 117, 118, 113, 114, 115, 119, 120, 121, 122, 123, 124, 125, 126, 127, 128, 129}

¹¹⁸ Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoa (AHPG-GPAH).
Signatura: 1/5124,A:599r-602v.

¹¹⁹ AGG-GAO, CC29.

¹²⁰ AGG-GAO, CC51.

¹²¹ AGG-GAO, CC30.

¹²² AGG-GAO, CC31.

¹²³ AGG-GAO, CC52.

¹²⁴ AGG-GAO, CC53.

¹²⁵ AGG-GAO, CC54.

¹²⁶ AGG-GAO, CC55.

¹²⁷ AGG-GAO, CC56.

¹²⁸ AGG-GAO, CC57.

¹²⁹ AGG-GAO, CC58.

Egoera zibila: Alarguna. Ez da jaso informaziorik errontan lan egin izana adierazten duenik.

Parte hartze maila: Titularra.

Deskribapena: Joaquín María Ugarte Agirrerekin ezkondata egon zen 1911n alargundu zen arte. Ondoren agertzen da errotaren titular zergadun bezala.

Micaela Guridi Eguren

Zergadunaren izena: *Viuda de Juan José Arístegui*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1861-09-29^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Okindegia. Eskolatxo okindegia Atzeko Kanean dago gaur egun ere.

Titulartasun data: 1923-24⁸³

Egoera zibila: Alarguna

Parte hartze maila: Titularra. Ez dago informaziorik negozioan lan egin zuela ziurtatzen duenik. Uste da lan egingo zuela, okindegia familia-negozioak izan ohi dira eta.

Deskribapena: Juan José Aristegi Igartuaren alarguna zen. 1917tik aurrerako industria-erroldean Hros. de Juan José Arístegui ageri da zergadun gisa. Vda. de Juan José Arístegui 1923-24ko Industria Ekoizpenaren Estatistikan identifikatu da.

Antonia Aristegi Gabilondo

Zergadunaren izena: *Antonia Arístegui*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1863-11-07^D

Lanbidea / Jarduera: Okindegia. Kalebarrian zegoen.

Titulartasun data: 1910-1912^{93, 94, 95}

Egoera zibila: Alarguna

Parte hartze maila: Titularra. Ez dago informaziorik negozioan administrazio lanak egin zituela ziurtatzen duenik. Familiak garai hartan zuen maila sozioekonomikoa

Deskribapena: Melitón Egaña Etxeberriarekin ezkondata egon zen eta Egaña okindegikoen arbasoa da.

Plácida Mujika Izagirre

Zergadunaren izena: *Plácida Múgica*

Jaiotze lekua eta data: Zerain, 1870-10-06^D

Lanbidea / Jarduera: Ur jauzia. San Juan kalean zegoen, eta Santa Ana komentuko klaratarren jabetzakoa zen.

Titulartasun data: 1911-1924^{94, 95, 96, 97, 98, 99, 101, 102, 103, 104}

Egoera zibila: Ezkongabea

Parte hartze maila: Titularra eta langilea.

Deskribapena: Santa Ana komentuko klaratar moja izan zen. Bizitza erlijiosoan bi fase izan zituen. 1890-01-23an, abitua jantzi eta nobizia egin zen. 1891-02-05ean, berriz, betiko botoak hartu zituen¹³⁰. Komunitatearen barne erregistroetan ageri denez, Plácidaren lanetako bat komunitate barruko okindegiaz arduratzea izan zen. Kontuan izanda okindegiko irina errotakoa zela, hipotesi sendoena da okindegia ardura ez ezik errotaren eta ur jauziaren ordezkartza ere bere gain zeudela.

Nemesia Mendia Lazkano

Zergadunaren izena: *Viuda de Garay e Hijos*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1870-12-19^D

Lanbidea / Jarduera: Aterki egiturak, hodiak eta hodie-tan oinarritutako produktuak ekoiztea. Goribar auzoan dago gaur egun ere.

Titulartasun data: 1939-1946^{115, 120, 121, 122, 123, 124}

Egoera zibila: Alarguna

Parte hartze maila: Titularra. Ez dago informaziorik negozioan administrazio lanak egin zituela ziurtatzen duenik. Familiak garai hartan zuen maila sozioekonomikoa

¹³⁰ Mendizabal Mujika, M. (2002). *Las monjas de Santa Ana de Oñati. Cinco siglos, tres casas, una misión*. Arantzazu Edizio Frantziskotarrak. ISBN: 84-7240-191-X. 300.or.

kontuan hartuta, hipotesi sendoena negozioan lanik egin ez izana da.

Deskribapena: Juan Garay Agirrerekin ezkondu zen 1937an alargundu zen arte¹³¹. 1936ko udan, altxamenduarekin batera, momentuko agintariak enpresa konfiskatu eta militarizatu zuten, altzairuzko xaflak eta hodiak ekoizteko. Juanek 36ko gerran pairatutako kartze-laratzeak eta indarrez inposatutako fabrika-erleboak eragin zuzena izan zuten bere osasunean, eta ezin izan zuen ikusi enpresa familiaren eskutara bueltatzen¹³².

María Rosa Berasategi Erostarbe

Zergadunaren izena: *Viuda de Juan Antonio Galdós*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1873-04-13^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Txokolate fabrika. Zenizero etxean zegoen, Kalebarrian.

Titulartasun data: 1931-1934^{116, 117, 118}

Egoera zibila: Alarguna

Parte hartze maila: Titularra. Ez da lortu informaziorik negozioan lan egin zuela ziurtatzen duenik. «Garaiko txokolategileen lanaldiaren iraupena eta lanaren banaketaz gain, Oñatiko txokolategileen artean lehia handia zegoen»¹³³. Aldagai horiek guztiak kontuan izanda, hipotesi sendoena da familiako kide guztiek egin zutela lan negozioan, María Rosak barne.

Deskribapena: Juan Antonio Galdos Izagaren emaztea izan zen 1925ean alargundu arte.

Martina Murua Larrea

Zergadunaren izena: *Martina Murua Larrea*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1884-11-10^D

Lanbidea / Jarduera: Aroztegia.

¹³¹ Azpiazu Elorza, J.A., eta Creixell Garay, J.L. (2016). *Los Garay. Una saga industrial en Oñati durante 150 años*. 88.or.

¹³² *Ibidem*, 87.or.

¹³³ Azpiazu Lanz, A. (2007). *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin*. 201. or.

Titulartasun data: 1962-1968^{134, 135, 136} (3. tarifyan sailkatuta 1964ra arte).

Egoera zibila: Alarguna

Parte hartze maila: Titularra. Ez zuen aroztegian lanik egin.

Deskribapena: Martinak 16 seme-alaba izan zituen, eta familia osoaren zaintzaz arduratu zen. Emakume nekazina zela adierazi du oinordeko batek.

Carmen Aldazabal Bustindui



15. irudia. Carmen Aldazabal Bustindui. Arantxa Egaña Azurmendiri esker eskuratua.

Zergadunaren izena: *Carmen Aldazabal Bustinduy*

Jaiotze lekua eta data: Soraluze, 1888-05-22^D

Lanbidea / Jarduera: Okindegia. Egaña okindegia Kalebarrian dago.

¹³⁴ AGG-GAO, CC68.

¹³⁵ AGG-GAO, CC69.

¹³⁶ AGG-GAO, CC70.

Titulartasun data: 1948-1964^{126, 127, 128, 129, 130, 135, 136, 137, 138, 139, 140, 141, 142, 143, 144}

Egoera zibila: Alarguna

Parte hartze maila: Titularra, kudeatzailea eta langilea.

Deskribapena: Carmen 13 urterekin neskame etorri zen Oñatira. Norberto Egaña Aristegirekin ezkondu, eta gazte alargundu zen. Egañatarren okindegiaren ardura eraman zuen, lehenik Kontxa Egaña Aristegi koinatarekin eta gero erraiekin batera, urte luzez. Bertan lanean aritu ziren bi emakumek adierazi dutenez, Carmen nekaezina eta oso ugazaba *humana* zen. Okindegian bezero izan zuen emakume batek adierazi duenez, berriz, bezeroaren amak etxean egindako magdalenak laberatzten zizkion tarteren bat zuenean, aurretik hark Extremaduran egin ohi zuen bezala.

Carmenek eta koinata Kontxak 36ko gerraren testuinguruan bizi izandako gertakari bat jaso da. Nazionalak herrian sartu ziren egunean, beldur ziren zaldia eta gurdia konfiskatuko zizkieten (garai hartan beharrezkoak ziren auzoetara ogia banatzeko). Hala, Carmen, Kontxa eta Manolo Etxaniz Ugartek, okindegiko langilea, zaldia eta gurdia hartu eta arrazolatarren *kurteixan* gorde zituzten, eta hirurek arrazolatarrenean pasatu zuten gau hura.



16. irudia. Kontxa Egaña Aristegi. Arantxa Egaña Azurmendiri esker eskuratua.

¹³⁷ AGG-GAO, CC59.

¹³⁸ AGG-GAO, CC60.

¹³⁹ AGG-GAO, CC61.

¹⁴⁰ AGG-GAO, CC62.

¹⁴¹ AGG-GAO, CC63.

¹⁴² AGG-GAO, CC64.

¹⁴³ AGG-GAO, CC66.

¹⁴⁴ AGG-GAO, CC67.

Petronila Martínez de Albeniz Mendibil

Zergadunaren izena: *Petra Martínez Mendivil*

Jaiotze lekua eta data: Arriola (Araba), 1892-05-31^{BD}

Lanbidea / Jarduera: Zotz fabrika. Zubillaga auzoan zegoen.

Titulartasun data: 1962-1968^{135, 136, 137} (3. tarifan sailkatuta 1964ra arte).

Egoera zibila: Alarguna

Parte hartze maila: Titularra. Ez zuen zotz fabrian lanik egin.

Deskribapena: Petra neskame etorri zen Oñatira, eta Garay familiarentzat egin zuen lan. Lino Urzelai Barrutiak Garay fabrikako bulegoan egiten zuen lan, eta horrela ezagutu zuten elkar. Petrarekin ezkondu ondoren sortu zuen Linok zotz fabrika.

Petrak ez zuen zotz fabrian lanik egin, baina gogor jardun zuen fabrika ondoan jabetzan zuten jatetxean. Petra arduratu zen jatetxea kudeatzeaz eta janaria prestatzeaz, 1952an itxi zen arte. Itxi aurreko azken arratsaldean, Petrak Zubillagako emakume guztiak gonbidatu zituen meriendatzera. Garai hartan gizonezkoak joan ohi ziren jatetxe eta tabernetara, ez ordea emakumeak. Petraren keinua gustura hartu zuten emakume auzotarrek, eta asko joan ziren meriendara. Petrari esker ona adierazteko, auzoko emakumeek Jesusen Bihotzaren irudia oparitu zioten 1952ko abenduaren 21ean¹⁴⁵.

Jacinta Letamendi Elorza



17. irudia. Jacinta Letamendi Elorza (aurrealdean). Beatriz Gereka Zelaia esker eskuratua.

¹⁴⁵ Elortza, J., eta Laixan (2011, abendua). Zubillagako emakumiak tabernan. *Kontzejupetik*, 212. 38.or.

Legezko ordezkaria: *Jacinta Letamendi Elorza*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1892-08-16^D

Lanbidea / Jarduera: Pila-fabrika. Kale Zaharrean zegoen.

Ordezkaritza data: 1941¹⁴⁶

Egoera zibila: Ezkondua.

Parte hartze maila: Ordezkaritza, senarra erbesteratuta egondako testuinguruan. Ez zuen pila-fabrika lanik egin.

Deskribapena: Javier Zelaia Enparantzarekin ezkonduta zegoen Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari eskaera egin zionean. Ez zuen fabrika lanik egin. Javier, enpresaburu ez ezik, Oñatiko EAJko alkatea zen gerra hasi zenean, eta Txilen erbesteratu behar izan zuen 1936-1942 bitartean.

Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) pila lehorrak ekoizteko enpresa berri bat sortzeko eskaera iragarri ondoren, Jacintak, Celaya y Emparanzaren ordezkari gisa, eta estatuan lehiakide ziren beste hiru pila-ekoizlerekin batera (bakoitzak bere aldetik, zeinek bere eskaera aurkeztuta), jarduera-baimena ukatzea eskatu zuen Industriako Ordezkaritza Nagusian. Aurretik martxan zeuden enpresen eskaerak onartu egin zituzten, eta pilen ekoizpen jarduera berri horri ekitea ukatu egin zioten.

36ko gerraren garaian eta ondorengo urteetan, familia-negozioetako emakume askok fabrika lan egin behar izan zuten. Arantxa Arrazola Markiegik adierazi duenez, arrazolatarren jabetzako *Kurteixan* bere ama, Karmen Markiegi Olazabal, eta lehengusina Miren Arrazola Lizaur enpresa eramaten aritu ziren, nahiz eta aurrez fabrika sekula ibili gabeak ziren. Arantxaren aita kartzelan eta osaba ihes eginda Frantzia zeuden bitartean izan zen hori.

Dominica Arabaolaza Beitia

Zergadunaren izena: *Dominica Arabaolaza Beitia*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1894-07-06^D

¹⁴⁶ Kultura Ministerioa, AGA (Administrazioaren Artxibo Nagusia), Industriako Zuzendaritza Nagusia, 71/5398 kaxa, 4854 esp., z/g: Solicitud de autorización para instalar una fábrica de pilas secas y estuches metálicos (1941).

Lanbidea / Jarduera: Txokolate fabrika. Olakua auzoan zegoen.

Titulartasun data: 1959-1969^{143, 144, 145, 135, 136, 137} (3. tarify sailkatuta 1964ra arte).

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Ez zuen txokolate fabrika lanik egin.

Deskribapena: Dominikak 9 seme-alaba izan zituen, eta familiaren zaintzaz arduratu zen.

Sebastiana Uriarte Irizar



18. irudia. Sebastiana Uriarte Irizar.
Ricardo Uriarte Alzolari esker eskuratua.

Zergadunaren izena: *Sebastiana Uriarte Irizar*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1900-01-19^D

Lanbidea / Jarduera: Larruzko gaien eta poltsen fabrika. Lezesarri auzoan zegoen.

Titulartasun data: 1956-1968^{141, 142, 143, 144, 145, 135, 136, 137} (3. tarify sailkatuta 1964. urtera arte).

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra, kudeatzailea eta langilea.

Deskribapena: Sebastiana oinarritzko ikasketak bukatu ondoren neskame joan zen Bilbora. 1924an, Lucio Uriarte Zelaiarekin ezkondu, eta larruzko gaiak ekoizte-



19. irudia. Rosario Orbea Otaegi ezkontza-egunean Arantzazun.
1924-10-09¹⁴⁷. Kutxa Fundazioa Fototeka.

ko tailer bat sortu zuten bien artean, Elgoibarren. Zenbait urtean negozioa eramaten aritu ondoren, Elgoibar-ko negozioa saldu eta Oñatira bueltatu ziren, *Poltseixa* sortzera. Lucio 1950ean hil zen, eta Sebastiana 1956tik aurrera ageri da negozioaren titular moduan. Bertan lan egindako emakume batek adierazi duenez, Sebastiana emakume argia eta ekintzailea zen. Alargundu aurretik ere negozioaren kudeaketan eta beste hainbat lanetan aktiboki eta lidergoa eramaten jardun zuen.

Jesusa Uranga Iruretagoiena

Zergadunaren izena: *Viuda de Luis Rodríguez Barea*

Jaiotze lekua eta data: Orio, 1900-12-25¹⁴⁷

Lanbidea / Jarduera: Inprenta. Lope de Agirre kalean zegoen.

Titulartasun data: 1962-1969^{135, 136, 137} (3. tarifyan sailkatuta 1964ra arte).

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra eta langilea.

Deskribapena: Negozioaren titulartasuna alargundu ondoren jaso bazuen ere, familia-negozioa izan zen neurrian Jesusak lan egin izan zuen bertan.

Rosario Orbea Otaegi

Zergadunaren izena: *Rosario Orbea Otaegui*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1903-07-31¹⁴⁷

Lanbidea / Jarduera: Txokolate fabrika. Gaur egungo Txokolateixian eraikinean zegoen.

Titulartasun data: 1955-1969^{140, 141, 142, 143, 144, 145, 135, 136, 137} (3. tarifyan sailkatuta 1964ra arte).

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Fabrikan lan egin zuten bi emakumek adierazi dutenez, ez zuen txokolate fabrikan lanik egin.

Deskribapena: Martín Orbea Irizar zuen aita, eta, hura hildakoan, oinordetzan hartu zuten negozioa ahizpa Micaelak eta biek. José María Otaño Irastorzarekin ezkondu zen 1924an; aurrerago txokolate fabrikako zuzendaria izango zen. 1942an negozioaren izen soziala Hijos de Martín Orbea S.L. izatera pasatu zen. Hainbat urtez gain behera eta zuzendaritza-aldaketetan ibili ondoren, 1954an Otaño hil zen¹⁴⁸. 1955etik aurrera Rosario izan zen enpresaren titularra negozioa itxi arte.

¹⁴⁷ Kutxa Fundazioa Fototeka. Irudia: 20182. Id.: 47020580. <https://kutxateka.eus/index.php/Detail/objects/20182>. Lizentzia: CC BY-NC.

¹⁴⁸ Azpiazu Lanz, A. (2007). *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin*. 252. or.

Concepción Etxeberria Zubia

Zergadunaren izena: *Concepción Echeverría Zubia*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1906-02-13^D

Lanbidea / Jarduera: Txokolate fabrika. Loyola txokolate fabrika Goribar auzoan zegoen.

Titulartasun data: 1948-1957^{126, 127, 128, 129, 130, 138, 139, 140, 141, 142}

Egoera zibila: Ezkongabea.

Parte hartze maila: Titularra. Ez zuen txokolate fabrikari lanik egin.

Deskribapena: Kalebarrian zegoen *Santosenea* teladendaren jabea zen Kontxita, eta lan egin zuen bertan. Emilio Etxeberria Zubiak, Kontxitaren anaiak, Chocولات Loyola sortu zuen, eta zuzendaria izan zen.

Zergadunaren izena: *Rufina Letamendi Vicuña*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1906-05-22^D

Lanbidea / Jarduera: Okindegia. Eskolatxo okindegia Atzeko Kanean dago gaur egun ere.

Titulartasun data: 1962-1969^{135, 136, 137} (3. tarifyan sailkatuta 1964ra arte).

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra, kudeatzailea eta langilea.

Deskribapena: Okindegia familia-negozioa izan den neurrian Rufinak beti egin zuen lan bertan. Okindegiako langile batek adierazi duenez, ez zen ogi lantegian egoten, premiazko zerbait ez bazen, baina negozioaren kudeaketa eramaten zuen, eta «egun osoz dendan egoten zen bezeroak atenditzen».

Rufina Letamendi Bikuña



20. irudia. Rufina Letamendi Bikuña.
Arantxa Ugarte Uribetxeberriari esker eskuratuta.

Maria Jauregialzo Anduaga



21. irudia. Maria Jauregialzo Anduaga.
Maribel Elorza Jauregialzori esker eskuratuta.

Zergadunaren izena: *María Jaureguialzo Anduaga*

Jaiotze lekua eta data: Oñati, 1913-05-27¹⁴⁹

Lanbidea / Jarduera: Instalazio elektrikoak eta gas berogailuak. Kale Zaharrean zegoen.


Titulartasun data: 1956-1966¹⁴⁹

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Titularra. Ez zuen fabrian lanik egin.

Deskribapena: Maria Jaureguialzo Anduagak 1956-1966 bitartean Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari 3 eskaera egin zizkion enpresa baten titular moduan. Familiako batek adierazi duenez, Mariaren senide bat enplegatuta zegoen enpresa horretan. Negozioak jarduten zuen lokala Mariaren izenean egoteak eraman zuen enpresaren titularra izatera.

María Teresa Mendizabal Etxabe



22. irudia. María Teresa Mendizabal Etxabe.
Jon Egaña Mendizabali esker eskuratua.

Bazkidearen izena: *María Teresa Mendizabal*

Jaiotze lekua eta data: Arrasate, 1913-05-27¹⁵⁰

Lanbidea / Jarduera: TALLERES ULMA Sociedad Cooperativa Industrial

Bazkide data: 1961¹⁵⁰

Egoera zibila: Alarguna.

Parte hartze maila: Kooperatibako bazkide sorrerako estatutuetan.

Deskribapena: Mari Tere ez zen ULMAko langile izan. Egañaneko okindegian egin zuen lan urte askoan, eta, ezkondu aurretik, familiak Arrasaten zuen okindegian jardun zuen.

ULMA kooperatibaren sorrerako estatutuak kasualitatez aurkitu dira. Espediente bat kontsultatzea eskatzen denean, bi datu ezagutzen dira: prozedura-eskaera egin duen sozietatearen izena eta eskaera-urtea. Lan Ministeriora egindako eskaera enpresaren izena aldatzeko zen: Ignacio Maiztegitik TALLERES ULMA Sociedad Cooperativa Industrialera aldatzea.


Egia esan, enplegatutako emakume kopuruaren gainera datuak aurkitzea zen asmoa eta espedientearen ez zen halakorik ageri, baina kooperatibaren sorreran emakume bat ikustea ustekabeko aurkikuntza interesgarria izan zen. ULMAko 7. eta 9. bazkideei galdetu zitzaion, bai eta lehen Kontseilu Errektoreko lehendakariari ere, ea ULMA sortutakoan emakumerik hasi zen han lanean, eta denek ezetz esan zuten.

Mari Tere ULMAren sorrera-estatutuetan agertzearen hipotesi sendoena da kooperatiba sortzen ari zen taldeari laguntzeko egin izana. 1942ko Kooperazioari buruzko Legeak ezartzen zuen kooperatibek sorreran bete beharreko ezaugarriak, eta horietako bat da gutxieneko bazkide kopuruak 15 izan behar zuela: «Bazkide kopurua mugagabea izango da beti, baina inoiz ez hamabost baino txikiagoa fundazioaren kasuan, etxebizitza babetuen kooperatibetan izan ezik»¹⁵¹.

¹⁴⁹ Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxi-
bo Nagusia / Archivo General de la Administración Pública de la
Comunidad Autónoma de Euskadi [aurrerantzean EAE-HAAN/
AGAP-CAE], INRIG-00186-003, dokumentua.

¹⁵⁰ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-02388-001, dokumentua eta
irudia.

¹⁵¹ Kooperazioari buruzko Legea, 1942ko urtarrilaren 12koa (1942ko
urtarrilaren 12ko BOE, 12. zk., 219-227. or.), 8.b art.



23. irudia. ULMAren sorrera-estatutuetan bazkideen sinadurak.
ULMAren baimenarekin argitaratua.

23. irudian ikusten denez, 15 sinadura daude eta Mari Tererena beheko lerroan dago. Arrasatearra izanda, ezaguna zuen mugimendu kooperatibista eta harremana zuen José María Arizmendiarieta Madariagarekin. ULMAren sorrerako estatutuetan lehendakari izendatua Ignacio Egaña Aldazabal zen, Mari Tereren koinatua. Uste da 15. sinadura behar izan zutenean harengana jo zutela laguntza eske eta Mari Terek lagundu egin zuela estatutuak sinatuz.

Oñatiko industriarekin lotutako zenbat emakume izen daude erregistro historikoetan?

25 emakume izen propio identifikatu dira 1880-1969 bitartean. Industriarekin lotutako matrikulen eta errolden erregistroetan 1901-1969 bitartean emakume izen propioen presentzia % 1 - % 9,5 artekoa da. Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari egindako eskaerekin lotutako espedienteetan (1941-1964) beste hiru emakume izen propio identifikatu dira. Emakume baten izen propioa 1923-24ko Industria Estatistikan identifikatu da. Ez zegoen zergadun gisa industria-errolan, baina bai ordez-kari gisa Industria Ekoizpenaren Estatistikan.

Aztertutako 1880-1980 bitarteko industria-erregistroei esker, industria-jarduerarekin lotutako emakume izen propioen kopuru txiki bat identifikatu da. Izan propio horien ezaugarriei erreparatuta, garbi dago gehien-gehienak alargunak direla: erregistratutako kasu guztien % 88. Alargunak ez ziren hiru emakumeetatik bat ezkondata zegoen eta gerraosteko testuinguruan egin zuen eskaera bat, enpresaren ordez-kari gisa; beste bat ezkongabea zen, eta hirugarrena, Santa Ana komentu-ko klaratar moja.

Erregistro historikoetan titulartasuna izan duten emakumeen artean, titulartasuna izateaz gain, zenbatek egin dute lan fabriketan?

Azterketa-ariketa honetan beste ondorio interesgarri bat atera ahal izan da. Egiaztatu ahal izan da juridiko-ki senarren ordezkaritzapean egon diren emakume horien % 39k alargundu aurretik ere industriaren eremuko negozioan aktiboki parte hartu zutela. Fabriketan eta industria-sektoreko negozioetan lan egin duten eta erregistro ofizialetan titulartasunik izan ez duten emakumeen ehuneko adierazgarria izan dela ondorioztatu da.

HUTSUNEA I: Emakumeek industriarekin lotutako erregistro ofizialetan izan duten presentzia murrizta.

7. OÑATIKO FABRIKETAN LAN EGINDAKO EMAKUMEAK LIBURUETAN

Atal honetan, herriko ondareari buruzko liburuetan industriako emakume langileen zer azterna dokumental dagoen aztertu da. Herriko fabriketan lan egin duten emakumeak argitalpen hauetan agertu dira: *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin* (2007), *Gerrako garrak Oñatin* (2011), *Los Garay: una saga industrial en Oñati durante 150 años* (2015), *Antxinako Zubillagari begirada bat* (2018), *Enarak* (2019), *Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak* (2021), *Olabartarrak* (2024) eta *Araoztarrak* (2025). Argitalpen datetan ikus daitekeen moduan, XXI. mendean sartu arte itxaron behar izan da Oñatiko industrian enplegatutako emakumeen izenak aurkitzeko liburuetan.


Bilaketaren emaitzak argitalpenen ordena kronologikoari jarraituz azaldu dira. Bestalde, liburuetan espresuki Oñatiko fabriketan lan egin dutela adierazitako emakumeak bakarrik aipatuko dira atal honetan.

7.1. KAKAOAREN ILUNTASUNA ETA TXOKOLATEAREN MAGIA OÑATIN (2007)

Anton Azpiazu Lanzen liburuak kakaoaren eta txokolatearen historiak hitz egiten du, Oñatiko herriarentzat izan duten garrantziaz, bai eta sektore horren garapena posible egin duten protagonistez ere. Txokolategietan emakumeek presentzia zabala izan dutela erakusten du liburuak. Ahanzturatik ateratzen ditu protoindustrian —edo mekanizazioa txertatzen hasi zireneko artisauen garaiko produkzio modu mistoan— txokolatea landu zuten lau emakumeren izen propioak. Emakume horiek txokolategian lan egin zutela ziurtatzen da liburuan.

Gabina Basterrika Ugarte (Oñati, 1824-02-19)^{BD}

Txokolategintzaren tradizioa familiarik zetorkion Gabinari, Antonio Basterrika Urdangarin maisu txokolategilearen alaba zen eta. Antonio Gereka Beldarrain zarautzarrarekin ezkondu zen 1849an, eta Chocolates Guereca negozioa abiatu zuten. Txokolategi horrek aurrez Basterrica Etxea zuen izena, eta, Antoniorekin ezkonduetakoan, haren izena ezarri zioten, 24. irudian ikusten den bezala.



24. irudia. Chocolates Guereca negozioaren dokumentu baten idazpurua¹⁵².

Gabina 31 urte eta zazpi seme-alaba zituela alargundu zen. Gogor lan egin behar izan zuen familia eta negozioa aurrera ateratzeko, eta bere ekarpen azpimarragarriaren erakusgarri da honako testu hau:

«Txokolatearen historiak bazter utzi ditu emakumeak txokolategintzan izandako parte hartzea; Gabinarena salbuespena izan zen, familia-tradizioari jarraitu baitzion. Baina negozioari eutsi ez ezik, txokolategiaren jarduna nabarmen handitu zuen. Gabina emakume ekintzailea zen, negozioetarako gaitasun handikoa. Errotan hasi zen lanean, baina txokolatea egiteko makinaria gehitu zuen, eta txokolatearen kalitatea eraldatzen eta modernizatzen jardun zuen. Lanari ez zion beldurrik; beraz, zaldi bat eta mando batzuekin, Gabina, bakar-bakarrik eta ezaugarri zituen kemen eta adoreaekin, berdin joaten zen Pasaiaiko portura nahiz Bilbokora, kakao, azukre eta garaiko txokolaterik onena egiteko gainerako osagaien bila: Basterricako Guereca txokolateak.»¹⁵³

¹⁵² Azpiazu Lanz, A. (2007). *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin*. 217. or.

¹⁵³ *Ibidem*, 216. or.



25. irudia. Guereca txokolate fabrika 1960ko hamarkadaren lehen erdian. Beatriz Gereka Zelaiari esker eskuratua.

Elena Bikuña Ibarluzea (Errezil, 1862-08-20)^{BD}

Felix Arregi Gallastegirekin ezkondu zen, eta biek batera, Kale Zaharreko 5.eko errotan, txokolatea landu zuten. Bost seme-alabetako batek, José Arregi Bikuñak, urte batzuk geroago familiako txokolategile tradizioari jarraitu zion, eta Onena txokolateekin gozokigintzari iraultza ekarri¹⁵⁴.



26. irudia. Elena Bikuña Ibarluzearen argazkia.
Miren Arregi Amasorraini esker eskuratua.

Vicenta Leturia Basterrika (Oñati, 1844-01-22)^{BD}

Juan Francisco Leturia Goenaga maisu txokolategilearen izeba zen, eta ilobaren laguntzaile bezala lan egin zuen txokolategian¹⁵⁵.

Asun Urzelai Renon (Oñati, 1884-08-14)^{BD}

15 urtera arte ikasten aritu ondoren, Orbea txokolategiaren dendako lehen saltzailea izan zen¹⁵⁶. Asunen biloba batek adierazi duenez, emakume bizia zen eta gatzeleraz ere ondo mintzatzen zen.

7.2. GERRAKO GARRAK OÑATIN (2011)

Gogoratu Guran Taldeak idatzitako liburu horren hasieran gerraurreko testuingurua azaltzen da, eta, bestek beste, Bigarren Errepublikaren garaiko gizarte egoera eta gorabehera soziopolitikoen artean langile sindika-

tuek izandako indarraldia erakusten da. Emakumeak ere baziren bertan. 1934an, Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatuari lotutako Oñatiko Zenbait Ofiziotako Langileen Elkartean (Sociedad Obrera de Oficios Varios) 25 emakume ageri dira Garay enpresariak aurkeztu zuen zerrendan¹⁵⁷.

Maria Agirrezabal Belaustegi
Petra Agirrezabal Belaustegi
Pilar Aranburu
Felipa Arregi
Paskuala Biain
Eulalia Cornejo Ruiz
Maria Egaña Calles
Blanca Egaña Calles
Sabina Elorza Astaburuaga
Maria Etxebeste
Higinia Galdos Berasategi
Asuncion Igartua Lizarazu
Mercedes Intxausti
Julia Iñurritegi
Maria Ituarte Corres
Maritxu Letamendi
Angeles Uribarri
Gloria Oiarzabal Otegi
Rufina Oregi Egaña
Maria Ormazabal Igartua
Maria Quintana
Juanita Txintxurreta
Ebarista Ugarte
Concha Uralde
Maria Urkiri

Aro politiko berri horretan emakumeen presentzia sindikatuetan oso txikia da. 1932-06-30ean UGTk plazaratutako datuen arabera, afiliatutako emakumeak gutxi dira: % 4,3¹⁵⁸. Errepublikara garaian urratsak egin nahi izan ziren langile klasearen eskubide eta baldintzak hobetzeko, baina erresistentzia nabarmena izan zuten eskubide horiek genero berdintasunean aintzat hartzeko. Estatu mailako bi sindikatu misto nagusiez gain, UGT eta Confederación Nacional del Trabajo (CNT), beste bi erakunde ere sortu ziren, afiliazio murriztagokoak eta genero ikuspegia zutenak: Mujeres Libres¹⁵⁹ talde anarkista eta Asociación

¹⁵⁴ *Ibidem*, 217.or.

¹⁵⁵ *Ibidem*, 220. or

¹⁵⁶ *Ibidem*, 250.or.

¹⁵⁷ Gogoratu Guran Taldea (2011). *Gerrako garrak Oñatin*. Intxorta 1937 Kultur Elkartea. 35-36.or.

¹⁵⁸ Merino Hernández, R.M. (2016). *La Segunda República, una coyuntura para las mujeres españolas. Cambios y permanencias en las relaciones de género* [Doktorego tesia, Salamancako Unibertsitatea]. 148. or.

¹⁵⁹ García Galán, I. (2025). *Hilaria. Relatos íntimos para un feminismo revolucionario en el siglo XXI*. Errata Naturae. 95.or.

Sociedad Obrera de Oficios Varios

Adscripta a la U. G. T.

Mayua, 5 - OÑATE - (Guipúzcoa)

20

140

42
49
60
58
4,01 0

Oñate 3 de Noviembre de 1932

Muy señor nuestro: En nuestro poder la sup. fe-
cha 11 def. anterior nos complazemos acusar
recibo de la misma y comunicar lo que sigue
Que no es oíse el recurso presentado por V. U. ante
el Ministro de Trabajo contra las bases referidas
para proceder en el acto a la clasificación de
los obreros afectos a esta sociedad y que trabajan
en su fábrica.

Como quiera que la ordenación de fuerza y
anómala de los obreros afectados por estas bases
a de impedir una inteligencia clara, buena
y rápida entre la clase patronal y la obrera
Nosotros por nuestra cuenta propia hemos pro-
cedido a realizar dicha clasificación como
a reglón seguido se expresa.

Pascual	peón especializado	X	Salaris anterior	X
Gregorio			Ajustador 2º	
J. de unto	ajustador 1º		obrero especializado	
Inocencio	camarero 2º		obrero corriente	X
Antonio	peón especializado		obrero corriente	X
José	peón especializado		Ayudante	X
José	camarero 2º		obrero especializado	X
Juan	obrero especializado			

10

27. irudia. 1932an Oñatiko enpresa bateko enpleguak lan kategorien arabera sailkatzeko UGT-Zenbait Ofiziotako Langileen Elkarteko orria¹⁶⁰.

¹⁶⁰ Kultura Ministerioa, Memoria Historikoen Dokumentu Zentroa. (1931-1934). Recibos, correspondencia y circulares dirigidas a la Sociedad Obrera de Oficios Varios de Oñate (UGT). ES.37274.CDMH/2.1.1/PS-BILBAO,146,2

Angel	[redacted]	obrero especializado	protesta
Maria	[redacted]	con más de 6 meses	obrero corriente *
Sabina	[redacted]	con más de 6 meses	ha salido
Maria	[redacted]	con más de 6 meses	homena
Maria	[redacted]	con más de 6 meses	homena
Julia	[redacted]	con más de 6 meses	X
Mercedes	[redacted]	con más de 6 meses	X
Concepcion	[redacted]	con más de 6 meses	X
Clasificación a juicio del obrero		Clasificación a juicio del patrono	

a 5 Ptas.

Como verán Vds. van dos casillas deberán llenar debidamente Vds la que marca clasificación a juicio del patrono y se sirva devolvérmola con objeto de confrontar unanimidad o discrepancia que pudiera surgir en nuestra apreciación.

En primera instancia procuraremos con Vd. salvar esa discrepancia, más si ello no fuera posible sería cosa de presentar el litigio, a la solución del Jurado competente.

Claro es que esta primera no significa la urgencia de aplicar las bases, si no el deseo de preparar debidamente las clasificaciones antes de ventilarse el asunto Sin más quedamos de Vds. affmo. r. r.

El [redacted]



de Mujeres Antifascistas (AMA)¹⁶¹ izenekoak. Azken hori Alderdi Komunistatik abiatu zen, eta Dolores Ibarruri Gómez izan zuen bultzatzaile nagusia.

UGTk eta CNTk emakume langileei harrera ona egin arren, ez zieten utzi ekimen sindikal osoa hartzen. Emakumezkoen sindikatu gehienek gizonezko buruzagien gidaritzapean jarduten zuten. Gizonei eta emakumeei eragiten zieten lan arloko hitzarmen edo negoziazioak egitean, bi sexuen arteko soldata-desberdintasunak on-tzat ematen zituzten¹⁶².

Lan Zuzenbideko adituen iritziz, 1931ko azaroaren 21eko Lan Kontratuari buruzko Legea¹⁶³ nabarmentzeko moduko lorpen bat izan zen. Lege hori oso aurreratu izan zen garai hartarako, eta lan kontratu indibidualaren nahiz kolektiboaren alderdi esanguratsuenak sistematikoki erregulatzea ekarri zuen lehen aldiz¹⁶⁴. Besteak beste, espresuki industriako emakume enplegatuei zuzenean eragiten zien bi artikulua zituen legeak. Bestalde, 51. artikuluan zioen emakume ezkonduak egindako lanaren ordainsaria jaso behar zuela, baldin eta senarra horren aurka agertzen ez zen, nahiz eta 18 urtetik gorako inork inoren baimenik ez zuen behar lanean hasteko (15.a artikuluan). Eta 90.3 artikuluan, berriz, amatasuna aipatzen zuen kaleratzeko arrazoi ez-legitimo gisa, baina ez zuen nahikoa zehaztasunik ematen, ez baitzuen erditzearen ondorengo atsedena zehazten. Abenduaren 10ean legearen 57. artikulua aldatzeko dekretu bat argitaratu zen orduko estatuko aldizkari ofiziala zen Madrilgo Gazetan¹⁶⁵, eta, haren bidez, emakume langileei ezkondu ondoren enplegatzea galarazten zieten klausulak balio gabe geratu ziren.

Herriko emakume langileek sindikatuaren zer leku izan zuten jakiteko helburuz, Bigarren Errepublikaren garaiko dokumentazioa aztertu nahi izan da, eta, bide horretan, Zenbait Ofiziotako Langileen Elkartearekin lotutako dokumentu esanguratsu bat identifikatu da. 1932koa da dokumentua, eta sindikatuaren eta enpresaren artean enplegatuen lan kategoriak zehazteko

erabili zen (27. irudia). Lehenik eta behin, sindikatuak langileen izenak zerrendatu (ezkerreko zutabean), eta enplegatu bakoitzari bere ustez zer lan kategoria zegokion adierazten zuen alboan. Gero, dokumentu hori enpresari helarazten zion, enpresak adieraz zezan langileei zer lan kategoria zegokien bere ustez, *Sailkapena, patroiaaren arabera* zutabean (eskuakoa). Hemen aurkezten den dokumentuan herriko enpresa bateko 9 gizon eta 6 emakume langileri ezarritako kategoriak ageri dira.

Sindikatuak sei emakume enplegatuen erdiei labezain (*hornera*) kategoria ezarri zien eta gainontzekoei ez zien kategoriarik zehaztu. Gizonei dagokienez, bederatzitik bati ez zion lan kategoriarik esleitu, baina beste zortziak lau kategoriatan sailkatu zituen: doitzaile, tornulari, peoi espezializatu eta langile espezializatu. Enpresak, berriz, gizon batzuei maila baxuagoko beste lan kategoria bat esleitu zien; sailkapenean, langile arrunta zen (*obrero corriente*) maila apaleneko kategoria. Eta emakumeei dagokienez, «a 5 ptas.» kategoria eman zien enpresak langileen sailkapen prozedura betean emakume guztiei, bai *hornera* zirenei, bai sindikatuak lan kategoriarik gabe aurkeztutakoei. Aurreko irudian ikus daitekeen bezala, beraz, agerikoa da emakume enplegatuak ez zituztela lankide gizonekiko berdin tratatzen ez alde bateko ez besteko gizonek.

Errepublika garaian emakumeen eskubideak zabaltzeko hodei artetik agertu ziren eguzki izpi guztiak desagertu egin ziren 1936ko uztailaren 17ko altxamenduekin batera. Momentu hartan 36ko gerra hasi, eta XX. mendeko etapa beldurgarriena bihurtzen da espainiar eta euskal gizartearentzat. Herritarren eta familien arteko zatiketak, indarkeria sistematizatuak eta errepresio politikoak eragindako milaka hildako eta erbesterratuak... gizartea zauri sakonekin geratu zen. Emakumeei ezartzen zizkieten zigorrek, besteak beste, jendaurrean umiliatzea zuten helburu kasu askotan. Erabilitako metodoetako bat ilea larru-arras moztea izan zen, eta Oñatin hori pairatu zuen emakumeetako bat fabrikako langilea zen.

Felisa Mendizabal Aranguena (Oñati, 1912-02-02)^D

«Felisa oso emakume alaia zen. Ilea moztu ziotenean fabrikara lanera joaten jarraitu behar izan zuen. Auzoko Maria Anjeles Madinazkoitiak berehala txano moduko bat moldatu zion buru kaskamotza estaltzeko»¹⁶⁶. Garay fabrikan egin zuen lan Felisak.

¹⁶¹ Ginard Féron, D. (2015). Mujeres, juventud y activismo antifascista en la Europa mediterránea (1933-1945). *Ayer*, 100/2015 (4), 97-121. 110-112. or.

¹⁶² Negrete Peña, R., eta Somolinos Molina, C. (koord.). (2021). *“Las mujeres que cosían y los hombres que fumaban”. Voces de mujeres trabajadoras en la España de los siglos XX y XXI*. Atenea bilduma, genero azterketak. Málagako Unibertsitatea. 52. or.

¹⁶³ Lan Kontratuari buruzko Legea (1931ko azaroaren 21eko Madrilgo Gazeta, 326. zk., 1130-1138. or.).

¹⁶⁴ Escribano Gutiérrez, J. (2019). *La mujer trabajadora en el derecho histórico del trabajo en España*. Comares. 57. or.

¹⁶⁵ 1931ko abenduaren 10eko Madrilgo Gazeta, 344. zk., 1596. or.

¹⁶⁶ Gogoratu Guran Taldea (2011). *Gerrako garrak Oñatin*. Intxorta 1937 Kultur Elkartea. 224. or.

7.3. LOS GARAY. UNA SAGA INDUSTRIAL EN OÑATI DURANTE 150 AÑOS (2015)

José Antonio Azpiazu Elorzak eta José Luis Creixell Garay garaytarren historia eta enpresak 150 urtean izandako bilakaera erakusten dute. Liburu horretan bi emakume langileren izenak agei dira.

Lena

Pospolo fabrikako langile izan zen, eta, fosforoaren toxikotasunaren ondorioz, nekrosia izan zuen, lanean jarraitzea galarazterainokoa¹⁶⁷. Egin da ahalegina Lena identifikatzeko, baina ez da lortu.

Garaytarren pospolo fabrika 1866-1873 bitartean egon zen jardunean lehenbizi eta 1876-1907 bitartean gero, estatuak desjabetu zieten arte¹⁶⁸, 1903an pospoloen ekoizpenaren monopolizazioa ezarri ondoren.

Pospoloen produkzioa jardunean zen urteetan hasi ziren lehen lan araudiak zehazten. Estatuko lan arloko lehen legea, Tailerretako lana eta eskoletako bi sexuetako haur langileen prestakuntza arautzeko lege proiektua, Lehen Errepublikaren garaian eman zen. 1873ko ekainaren 25ean aurkeztu zuen Eduardo Benot Sustapen ministroak, eta *Benot legea* izenez ezagutzen da. Lege horrek industriaren eta meatzaritzaren aplikazio eremuak kontuan hartu zituen, eta hiru gai garrantzitsu erregularizatzea zuen helburu: haur langileen babesa, adin txikikoen hezkuntza, eta langilez eta enpresaburuz osatutako epaimahai mistoen sorrera¹⁶⁹.

XIX. mendearen azken laurdenean industria izugarri hedatu zen, eta besteren konturako lana erregularizatu beharra ikusi zen. Lan munduan emakumeak berariaz babestea aurreikusten duen lehen lan legedia 1900ko martxoaren 13ko legearekin jarri zen martxan. Industriako langile zaurgarrienak ziren emakume eta adingabeen lan baldintzak erregularizatzea zen lege horren helburua¹⁷⁰. Honela zioen 10. artikulua: lanean hasteko, haur, gazte eta emakumeek txertoa jarria izatearen ziurtagiria izan behar zutela eta gaixotasun kutsakorrik ez izatea ziurtatu

behar zutela. Bestalde, 9. artikulua emakumeei bakarrik eragiten zien, eta hauxe ezartzen zuen:

- Erditu ondorengo hiru asteetan ezin bueltatuko dira lanera.
- Erditzea gertu dagoenean eta emakume langileak lana uztea eskatzen duenean, eskatzen duen momentutik eta erditu ondorengo hiru aste pasatu arte, lanpostua gordeko zaio.
- Edoskitzaroko haurren amek egunean ordu bat izango dute bularra emateko eta denbora hori ez zaio lansaritik deskontatuko.

Haurren heriotza-tasa handia eta lan neketsuak egitearen ondoriozko abortuak arintzea zuen helburu legeak¹⁷¹.

Garay fabrika 1921ean bueltatu zen industria-jardunera, aterkien armazoi edo egiturak ekoizten. Enpresa-jardun berri horretan enplegatuta egon zen emakume baten testigantza jasotzen du liburuak.

Justa Etzaniz Kortabarria (Oñati, 1907-11-28)¹⁷²

16 urterekin hasi zen lanean fabrian eta 1972an erretiratu zen. Aterkien sekzioan jardun zuen¹⁷².

7.4. ANTIXINAKO ZUBILLAGARI BEGIRADA BAT (2017)

Zubillagaren historian eta ohituretan oinarritutako liburu horretan, fabrian enplegatutako emakume bati egiten zaio erreferentzia.

Edubigis Altuna Ugarte (Oñati, 1897-10-17)¹⁷³

Altuna Hnos familiako fabrian egin zuen lan¹⁷³. Inausteko guraizeak eta beste hainbat guraize eta erreminta mota ekoizten zituzten fabrika hartan.



28. irudia. Altuna Hnos enpresan ekoiztutako inausteko guraizeak. Argazkia: Nagore Goñi.

¹⁶⁷ Azpiazu Elorza, J.A., eta Creixell Garay, J.L. (2016). *Los Garay. Una saga industrial en Oñati durante 150 años*. 38.or.

¹⁶⁸ Aragón, C., eta Iturrioz, C. (2017). Hijos de Juan de Garay. *Colección de Empresas Familiares Longevas - Segunda Colección*. Antonio Aranzabal Fundazioa, Donostia. 7. or.

¹⁶⁹ Martínez Peñas, L. (2011). Los inicios de la legislación laboral española: la Ley Benot. *Revista Aequitas*, 1, 25-70. 38-39. or.

¹⁷⁰ Emakumeen eta haurren lanari buruzko Legea (Dato legea), 1900eko martxoaren 13koa (1900eko martxoaren 14ko Madrilgo Gazeta, 73. zk., 875-876.or.).

¹⁷¹ Escribano Gutiérrez, J. (2019). *La mujer trabajadora en el derecho histórico del trabajo en España*. Comares. 11. or.

¹⁷² Azpiazu Elorza, J.A., eta Creixell Garay, J.L. (2016). *Los Garay. Una saga industrial en Oñati durante 150 años*. 106.or.

¹⁷³ Villar, A., Igarzabal, E., Ereitten eta Artixa (2017). *Antxinako Zubillagari begirada bat*. 52.or.

7.5. ENARAK (2019)

Oñatira Nafarroako eta Espainiako hainbat herritatik etorri eta bertan sustraiak bota dituzten 14 lagunen bizipenak agertzen ditu Amagoia Gurrutxaga Urangak liburuan. Parte hartzaileetako emakume batzuek fabrikari lan egitea izan zuten Oñatira etortzearen arrazoi nagusia.

Ana Delia Lumbreras Urmeneta (Balterra, Nafarroa, 1953)

15 urterekin Agustín Balzategi aterki fabrikari hasi zen lanean: eskaerak prestatu eta etxean aterkiak josten aritzen ziren emakumeentzako materialarekin pakeak prestatzen zituen. 5 urtez aterki fabrikari lanean aritu ondoren, itxi egin zen. 8 hilabetez jardun zuen Cerrajería Urribarrin, eta, ondoren, Chocolates Loyolan 4 urte egon zen enplegatuta. 24 urterekin ezkondu zen, eta ez zion lan egiteari utzi ezkondu ostean. Garay fabrikako aterkien egituren muntaketan lan egiten jarraitu zuen¹⁷⁴.

Consuelo Peralta Carrasco (Salamanca, 1947)

Zahorren hasi zen lanean 14 urterekin, eta, gero, 18 urtetik 23ra bitartean, ezkondu arte, Fagorren egin zuen lan. Ezkondukoan fabrikako lana utzi zuen¹⁷⁵.

María Teresa Peralta Carrasco (Espino de la Orbada, Salamanca, 1954)

16 urterekin Zahorren hasi zen lanean. 23 urterekin ezkondu zen, eta utzi egin zuen fabrikako lana¹⁷⁶.

Hortensia Alcalá García (Portaje, Cáceres, 1946)

16 urterekin CEGASAn hasi zen lanean, eta 8 urtez jardun zuen han. 1969an ezkondu zen, eta fabrikako lana utzi zuen¹⁷⁷.

Encarna Cuesta Martín (Macotera, Salamanca, 1946)

17 urterekin etorri zen Oñatira Garayn lan egitera, eta 9 urtez jardun zuen han, ezkondu arte. Ondoren, utzi egin

zuen fabrikako lana. 60.000 pezeta ordaindu zizkioten ezkontzeko lana utzi zuenean¹⁷⁸.

Mari Carmen Escarza Garrido (Ezcaray, Errioxa, 1945)

17 urterekin etorri zen Oñatira bizitzera, eta Garayn hasi zen lanean. 9 urtez aritu zen lanean han, ezkondu arte. Bi urtean, aterkien egiturak errematxatzen ez ezik, bulegoak garbitzen jardun zuen. Ezkondukoan *dotea* jaso zuen: 56.000 pezeta.¹⁷⁹

Natividad Fernández Frechilla (Zuares del Páramo, León, 1946)

20 urte egitear zituela etorri zen Oñatira, eta iritsi zenerako lana zuen Zahorren. 2 urte eta erdiz jardun zuen han, eta ezkondukoan utzi egin zuen fabrikako enplegua. Berak enplegua utzi eta gutxira ezkondu ziren emakumeek ezkondu ostean lanean jarraitu ahal izan zuten¹⁸⁰.

7.6. IKUSEZINAK. OÑATIKO EMAKUMEEN LANAK (2021)

Artixa Taldeak argitaratutako argazki bilduma horrek Oñatiko gizartearen garapenean funtsezkoak izan diren jardunen protagonista bihurtu ditu herriko emakumeak. Lan horren helburua kamerak hartutako uneak erregistratzea da, memoria kolektiboaren parte izatera pasatu daitezen. Liburuan erakutsitako ondare immateriala hainbat esparru eta lanbidetan sailkatuta dago, hala nola baserria, etxeko lanak, eskola, joskinak, nekameak, mojak, taberna, merkataria eta lantegiak. Langileei eta lantegiei egindako argazkien artean emakume izen propio batzuk ageri dira.

7.6.1. ZAHOR

Ezkerretik eskumara, hona hemen Zahor txokolate fabrikako langile izandako emakume horiek (29. irudia):

Maixabel Maiztegi Jauregialzo (Oñati, 1931)

Bonboien ataleko ontziratze lerroaren enkargatua zen.

¹⁷⁴ Gurrutxaga Uranga, A. (2019). *Enarak*. Jerardo Elortza bilduma (2). Oñatiko Udala. 54-55. or.

¹⁷⁵ *Ibidem*, 80. or.

¹⁷⁶ *Ibidem*, 81. or.

¹⁷⁷ *Ibidem*, 100-107. or.

¹⁷⁸ *Ibidem*, 115-118. or.

¹⁷⁹ *Ibidem*, 128-130. or.

¹⁸⁰ *Ibidem*, 135-138. or.



29. irudia. Zenbait emakume Zahor txokolate fabrian, 1960 aldera¹⁸¹. Angel Madinabeitia Maiztegi esker eskuratua.

Lucía Roa Ocio (arabarra jaiotzez)

Kremen eta betegarrien lerroaren enkargatua zen errelebo batean.

Rosarito Leibar Urkia (Oñati, 1933)

Kremen eta betegarrien lerroaren enkargatua zen errelebo batean.

Amparo Egaña Zabaleta (Oñati, 1943)

Txokolateen ataleko ontziratze lerroaren enkargatua zen.

Cristina Guridi Iñurrutegi (Oñati, 1931)

Fabrika osoko produkzioko emakume langileen arduraduna zen, eta produkzioko zuzendaria zuen gainetik.

7.6.2. CEGASA



30. irudia. Elvira Arkauz Aiaitui, CEGASA fabrikako analisi kimikoen arduraduna, 1963an¹⁸². Isidro Palacín Buesori esker eskuratua.

Elvira Arkauz Aiaitui (Oñati, 1928)

Oñatiko Beneditarren eskolan oinarritzko hezkuntza amaitu ondoren, Donostiako Santa Teresa ikastetxean egin zituen Batxilergoko ikasketak. Horiek bukatu eta gero, CEGASAn hasi zen lanean laborategi kimikoan, eta han ikasi zuen analisi kimikoak egiten eta lanpostuarekin lotutako bestelako zeregin eta ardurak aurrera eramaten. Analisi kimikoen arduraduna izan zen urte luzez, erretiratu arte. Lankide bik kontatu dutenez, fabrian langileen lehen ordezkari-ta-batzorde askea antolatu behar izan zutenean, ordezkarietako bat bera izatea proposatu zioten Elvirari lankideek. Onartu egin zuen, eta zenbait urte eman zituen langileen ordezkari taldeko zereginetan. Elvirarekin fabrian lan harremanak izan dituzten emakumeak elkarriketatzerakoan, denek errespetu eta estimu handiz hitz egin dute Elviraz.

7.6.3. ULMA

ULMAko urteko asanblada egin ostean 10. urteurrena ospatzeko bazkaltzera *Hospederiara* zihoazen 120 langileren argazkia ageri da Arantzazuko santutegiaren aurrean (31. irudia). 1959an, Ignacio Maiztegui tailerra (gerora ULMA bihurtuko zenaren hazia) Mendiko Kaletik Kurtzekuara eraman zuten, eta 10. urteurrena data horrekiko dela uste da.

¹⁸¹ Artixa Taldea (2021). *Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak*. 117. or.

¹⁸² *Ibidem*, 121. or.



31. irudia. ULMAko bazkideak Arantzazun, 1969an¹⁸⁴.
ULMAri esker eskuratua.

Langileen artean 12 emakume hauek daude, *Kontzejupetik* aldizkarian¹⁸³ adierazitakoaren arabera:

María Dolores Agirre Larrañaga

Administrazio eremuan egin zuen lan.

Rosita Agirre Larrañaga

Administrazio eremuan aritu zen; kutxazaina zen, eta nominak ere prestatzen zituen.

Pilar Aiastui Egaña

Administrazio eremuan egin zuen lan.

Belén Ibarrondo Ugarte

Administrazio eremuan aritu zen; besteak beste, alemanera itzultzeaz arduratzen zen.

Rosa Mari Inda Orella

Administrazio eremuan jardun zuen; zuzendaritzako idazkaria izan zen.

Beatriz Irizar Elortza

Administrazio eremuan egin zuen lan; gerentearen idazkaria izan zen.

Tina Kortabarria Txintxurreta

Administrazio eremuan aritu zen; fitxak eta letrak prestatzen zituen.

Mari Sol Kortabarria Txintxurreta

Administrazio eremuan egin zuen lan; fitxak eta letrak prestatzen zituen.

¹⁸³ Laixan eta Elortza, J. (2011, otsaila). ULMAko langilliak 1969xan Arantzazun. *Kontzejupetik*, 203. 38-39.or.

¹⁸⁴ Artixa Taldea (2021). *Ikusezinak. Oñatiko emakumeen lanak*. 127.or.

Pilar Larrea Narbaiza

Kopiak ateratzen eta kudeatzen jarduten zuen.

Ana Mari Lizarralde Madinabeitia

Fakturazioko administrazio eremuan egin zuen lan.

Pilar Saiz Guix

Administrazio eremuan aritu zen; fitxak eta bestelako dokumentazioa prestatzen jarduten zuen.

Alizia Txintxurreta Arregi

Delegazioetako administrazio eremuan egin zuen lan.

Emakume bat ez beste guztiak ezkongabeak ziren argazkia ateratako momentuan. Pilar Larrea Narbaiza ULMAko bazkide baten alarguna zen. Alargundutakoan, senarraren bazkidetzarekin berak jarraitzeko aukera eman zioten, eta ULMAn lanean jardun zuen familia aurrrera ateratzeko.

7.7. OLABARTARRAK (2024)

Ander Lizarralde Lizarralde liburu horretan Olabarrietan auzoko historia eta ondarea agertzen ditu, auzokideek kontatutako bizipenen eta argazkien bidez. XX. mendean auzoak eta auzokideek bizi izandako eraldaketa erregistratu du, ondorengoek ere haren berri izan ahal izateko. Elkarrizketa bidez jaso ditu lanean parte hartu dutenen testigantzak, eta horietako bi emakumek Oñatiko fabriketan lan egin zuten.

Axun Ugarte Igartua¹⁸⁵

Maiztegui txokolate fabrian aritu zen.

Milagros Zabaleta Urzelai¹⁸⁶

Maiztegui txokolate fabrian egin zuen lan.

7.8. ARAOZTARRAK (I) (2025)

Aurrez Olabarrietan egindako lanaren metodologia berberari jarraitzen dio Ander Lizarralde Lizarralde beste liburu horretan, oraingoan Araoz auzoko historia eta ondarea agertzeko. Bizipenak kontatutako emakume batek gaztetan Garay fabrian egin zuen lan¹⁸⁷.

Nieves Agirre Lizarralde

Garay fabrian jardun zuen, 1954-1958 bitartean.

Oñatiko industrian lan egindako zenbat emakume izen propio ageri dira argitaratutako liburuetan?

- Guztira identifikatutako emakume izen propioak: 61
- Argitalpenen urte tarte: 2007-2025

Dokumentu historikoetan eta liburuetan identifikatutako emakumeek kointziditzen dute?

Dokumentu historikoetan identifikatutako 25 emakume titulartasundunetatik lau ageri dira liburuetan. Nemesia Mendia Lazkano *Los Garay: una saga industrial en Oñati durante 150 años* liburuan ageri da, Garay familiako kide bezala. María Rosa Berasategi Erostarbe eta Rosario Orbea Otaegi *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin* argitalpenean ageri dira, txokolategien familia-jabetzaren testuinguruan. Azkenik, Jesusa Uranga Iruretagoiena *inprentakua* bezala aurkezten da *Gerrako garrak Oñatin* liburuan. Lauretatik María Rosa Berasategi Erostarberen eta Jesusa Uranga Iruretagoienaren kasuetan adierazten da familiako industrian lan egingo zutelako hipotesia. Beste bi kasuetan, argitaratutako lanetan ez da ziurtatzen emakume horiek lan egin dutenik.

HUTSUNEA II: 2007ra arte ez da identifikatu Oñatiko industrian lan egindako emakumerik liburuetan.

¹⁸⁵ Lizarralde Lizarralde, A. (2024). *Olabartarrak*. 58. or.

¹⁸⁶ *Ibidem*, 63. or.

¹⁸⁷ Lizarralde Lizarralde, A. (2025). *Araoztarrak (I)*. 138. or.

8. OÑATIKO FABRIKETAN LAN EGIN DUTEN EMAKUMEEN KOPURUA


Herriko industria-sektorean 1866-2000 bitartean zenbat emakume enplegatu diren jakin nahi da. Fabrika bakoitzean zenbat emakumek lan egin duten kuantifikatzea du azpi-helburu atal honek, eta, zenbaketekin hasiurretik, tokiko testuinguru demografikoan kokatzen da.

Fabriketako emakume enplegatuen kopurua jakiteko, bi estrategia erabili dira. Alde batetik, artxibo historikoetan aurkitutako dokumentazioko informazioa jaso da: 1923-24ko Gipuzkoako Industria Ekoizpenaren Estatistikakoa, eta 1942-1980 bitartean Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari egindako eskaeretakoa. Bestetik, industria-enpresei eta -kooperatibei informazioa eskatu zaie, ea 2000. urtea baino lehen fabrika bakoitzean zenbat emakume eta gizon zituzten enplegatuak, eta zer lan eremutan ziharduten horiek (produkzioa, admi-

nistrazioa, bulego teknikoa, salmentak edo bestelako zerbitzuak).

8.1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA (1900-2001)

Oñatiko biztanleriak izan duen bilakaera ageri da 32. irudiko grafikoan. Bilakaera hori 1900. urtetik 2001era bitartekoa da, eta urte tarte horretan kokatzen dira dokumentu historikoetatik eta enprestatik jasotako datuak. Grafiko hori lagungarritzat jo da identifikatu diren fabriketako enplegatuen kopuruak Oñatiko hamarkadaz hamarkadako biztanleriarekin alderatzeko eta horren pisu espezifikora hurbiltzeko. Aipatu beharrekoa da



32. irudia. Oñatiko demografiaren bilakaera 1900-2001 bitartean. Eustat.

1950-1970 bitartean Oñatiko biztanleriak izandako hazkunde nabarmena, zalantzarik gabe herriko industriak izandako garapenarekin estuki lotua.

SIADECOK Oñatiko Udalarari 1980an egindako azterketan sozioekonomikoaren arabera¹⁸⁸, 1972an 737 emakumezko enplegatu ari ziren Oñatiko industrian, eta 1979an, aldiz, 651. Beherakada horretan eragin zuzena izan zuen peoi, espezialista laguntzaile eta ofizial kategorietako enplegua gutxitu izanak, nahiz eta administrazioen enplegu tasak gora egin zuen. 1990ean, 544 emakumeren jardun profesionala¹⁸⁹ herriko fabrikekin lotuta zegoen.

8.2. DOKUMENTU HISTORIKOETATIK JASOTAKO INFORMAZIOA

Dokumentu historikoen bi iturritatik lortu da informazioa. Alde batetik, 1923-24ko Gipuzkoako Industria Ekoizpenaren Estatistikak tokiko industriaren enplegu egitura ezagutzeko aukera eman du. Bestalde, 1939tik aurrera herriko enpresek, edonolako eraldaketa bat egin, produktu berri bat ekoiztu, makina berri bat erosi, produkzioa lekualdatu edo beste hainbat kontu egin nahi bazuten, Industria Ministerioko *Nueva Industria* zelakoari egin behar zioten eskaera, Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzaren bitartez. Zenbait kasutan, inprimakian adierazi beharra zeukaten une horretan plantilla zenbat pertsonakoa zen, eta ikerlan honetan inprimakia horietatik atera da langileen eta bereziki emakume enplegatuen kopurua jakiteko informazio puntuala.

1923-24ko Gipuzkoako Industria Ekoizpenaren Estatistika⁸³

1921ean, Gipuzkoako Foru Ogasunak bere esku zeuden datuak eguneratzea proposatu zuen, eta emaitza 1923-1924 bitartean egindako Industria Ekoizpenaren Estatistika izan zen. Bertan, hiru mila enpresaren baino gehiagoren datuak daude jasota; garapen ekonomikoaren aldetik oso une garrantzitsua zen¹⁹⁰. Gipuzkoako industriaren ekoizpen prozesuak, energia-kontsumoa, enplegua (emakumeak eta gizonak bereizita), materia-

len erabilera eta ekoiztutako produktuen informazioa jaso zen, enpresa bakoitzak galdetegia beteta. Erroldak interesa sortu zuen, eta, iruzurra saihesteko, mikeletere-tara jo zuten galdetegiak biltzeko: lantegiz lantegi ibili ziren informazioa jasotzen¹⁹¹.

Oñatiko galdetegietan aitortutako sozietateen izenen artean bi emakume alargun gisa ageri dira. *Viuda de Elorza e Hijos* da bata, eta nekazaritzako erremintak ekoizten zituen enpresako nagusia alargundu zenetik Nicanora Altube Letamendik izan zuen titulartasuna. Bestea *Viuda de Arístegui* zen. Haren galdetegian, okindegi baten jardunaren gaineko informazioa aurkeztu zen. Industria-erroldetan, aldiz, *Hros. de Juan José Arístegui* izenpean erregistratuta ageri da. Juan José Aristegi lgartuaren alarguna Micaela Guridi Eguren zen.

33. irudian Oñatiko Juan de Garay enpresak betetako galdetegia ikus daiteke, eta oso datu aberasgarriak ematen ditu, produktuei eta enpleguari buruzko informazioa ez ezik, une hartan energiako eta fabrikaziorako zer teknologia zerabilen ezagutzeko. Atal honen helburua industrian lan egindako emakumeen kopurua eta zer enpresatan eta sektoretan jardun duten aztertzea denez, enpleguari buruzko informazioa soilik aztertuko da. Ikerlan honetarako, industritzat zeukate-nena erabili da; hau da, zerga-ordainketetan 3. tarifi-
saillkatutako jarduerena.

Eskubian 33. irudia. Juan de Garay enpresak Industria Ekoizpenaren Estatistikarako betetako galdetegia⁸³.

3. tarifi saillkatuta zeuden herriko enpresen zerrenda aurkeztzen da 1. taulan. Bertan, galdetegia bete zuten industria-jarduerak ikus daitezke, sektoreka taldekatuta. Negozio bakoitzeko enplegatu kopurua generoaren arabera banatu da, emakumezkoen presentzia aztertzeko.

¹⁸⁸ Oñatiko Udala. (1980). *Revisión del Estudio Socio-Económico de Oñate 1972-1987*. Signatura: B 867.14. 34. or.

¹⁸⁹ Ramírez de Okariz Tellería, I. (1994). *Oñati gure herria*. Oñatiko Udala. 54. or.

¹⁹⁰ Catalán Martínez, E., eta Mugartegui Eguía I. (2018). El censo de producción industrial de Gipuzkoa en 1923-1924. *Revista de Historia Industrial*, 72, Año XXVII. 139. or.

¹⁹¹ Catalán Martínez, E., eta Mugartegui Eguía I. (2017). *Gipuzkoa industrial (1886-1924)*. Historia Contemporánea; 54. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen zerbitzua. 33. or.

AYUNTAMIENTO DE *Onate* DIPUTACION DE GUIPÚZCOA *Goribar* BARRIO O CALLE

ESTADÍSTICA DE LA PRODUCCIÓN INDUSTRIAL DEL AÑO 1923

Realizada por acuerdo de la Comisión provincial de 7 de Agosto de 1924.

CUESTIONARIO

- 1.—Nombre o razón social del establecimiento o empresa *Juan de Garay*
- 2.—Industria a que se dedica (1) *Fabricación de monturas de paraguas y sombrillas y sus accesorios.*
- 3.—Si es empresa individual ¿cuál es su capital? *tres millones quinientas mil pesetas.*
- 4.—Si es empresa social: a) ¿Cuál es la forma de su constitución?
- b) ¿Cuál es su capital desembolsado?
- c) Si tiene obligaciones emitidas ¿a cuánto ascienden? Ptas.
- 5.—¿Qué clase de fuerza utiliza para su fabricación y qué cantidad de cada clase consume en un año expresada en KW hora o en HP hora? *1.100*
Hidráulica propia. Motor Diesel, en junto 150 HP. *1.100*
- 6.—¿Qué superficie ocupan: a) Los edificios de su explotación? m² *8.000* b) Los terrenos que utiliza para la misma? m² *8.000*
- 7.—¿Cuántos obreros trabajan para el establecimiento? Varones *60* Hembras *108* (2)
- 8.—¿Cuál es la cifra total anual de los salarios pagados: a) Por jornales? *182.000 Ptas.* b) Por destajos? *52.000 ptas.*
- 9.—¿Qué clases de primeras materias y combustibles utiliza y qué cantidad aproximada de cada una de ellas consume durante un año?

Designación de las primeras materias y combustibles	PROCEDENTES					
	DE GUIPÚZCOA		DEL RESTO DE ESPAÑA		DEL EXTRANJERO	
	Unidades	Peso	Unidades	Peso	Unidades	Peso
<i>Alambres macizos</i>				<i>150.000 k.</i>		<i>250.000</i>
<i>Alambres sección acanalada</i>						<i>125.000</i>
<i>Barros de latón</i>				<i>20.000 k.</i>		<i>240.000</i>
<i>Piezas en diversas dimensiones</i>						<i>10.000</i>
<i>Barrotes</i>				<i>20.000 K.</i>		
<i>Barros</i>						

10.—¿Qué cantidad aproximada de materias auxiliares consume durante un año? (3)

Designación de las materias auxiliares	PROCEDENTES					
	DE GUIPÚZCOA		DEL RESTO DE ESPAÑA		DEL EXTRANJERO	
	Unidades	Pesetas	Unidades	Pesetas	Unidades	Pesetas
<i>Carburo de Calcio</i>				<i>10.000.</i>		
<i>Higienos</i>				<i>20.000.</i>		
<i>Carbones</i>				<i>25.000.</i>		
<i>Aceites combustibles</i>				<i>10.000.</i>		
<i>de temple, de temple</i>				<i>10.000.</i>		
<i>varios</i>				<i>10.000.</i>		

11.—¿Cuáles son los productos elaborados y qué cantidad aproximada de cada uno de ellos durante un año?

Productos elaborados	DESTINADOS (4)					
	A GUIPÚZCOA		AL RESTO DE ESPAÑA		AL EXTRANJERO	
	Unidades	Peso	Unidades	Peso	Unidades	Peso
<i>Productos de fabricación terminada</i>				<i>Seiscientos diez mil kilos</i>		

Onate a 30 de Agosto de 1924.

(FIRMA) *P. G. G. G.*

(Véanse notas al dorso.)

1. taula. 1923-24: 3. tarifyan sailkatuta zeuden Oñatiko industria-enpresetako emakume eta gizon langileen kopuruak.
Gipuzkoako Ekoizpen Errolda.

ZERGADUNA	INDUSTRIA-JARDUERA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Vda. de Elorza e Hijos	Nekazaritzako erreminten fabrika	0	45
Arrue Hermanos	Erreminta-fabrika	0	25
Onraita, Ramón	Erreminta-fabrika	0	15
Osinaga, Victoriano	Errementaritzza	0	3
Astigarraga, José	Errementaritzza	0	2
Arrieta, Marcelino	Erreminta-fabrika	0	4
Mateo Altuna e hijos	Inausteko guraizeen fabrika	0	7
La Industria Oñatiense	Nekazaritzako erreminten fabrika	0	34
Mugarza, Ugarte y Cía	Makineriaren konponketa eta galdaketa	0	6
		0	141
Celaya, Emparanza y San José	Aterki, itzalkin eta bastoi fabrika	16	3
Garay, Juan	Aterkien eta itzalkinen armazoi fabrika	108	60
		124	63
Galdós, Víctor	Zerrategia	0	5
Arrazola, Angel	Aroztegia eta ebanisteria	0	5
Galdós, Hermenegildo	Eskorga-, kirten- eta tapa-fabrika	0	4
Beitia, Pedro	Aroztegia	0	3
Guridi, Lorenzo	Aroztegia eta ebanisteria	0	5
Madinazcoitia, Domingo	Aroztegia	0	1
Echeverría, Pablo	Aroztegia eta ebanisteria	0	7
Corcóstegui, Vicente	Aroztegia eta ebanisteria	0	9
Altuna, Gregorio	Zerrategia	0	1
Hijos de Madina	Ihizko eta zumezko altzarien fabrika	6	19
		6	59
Lizaur Hermanos y Cía	Pintura-fabrika	0	4
Arrazola, Doroteo y Miguel	Ganadu larruak zurratzeko fabrika	0	8
Gundel, Pedro	Hezurrezko artikuluen fabrika	0	4
		0	16
Maiztegui, Natalio	Txokolate fabrika	1	4
Guereca, Antonio	Txokolate fabrika	1	3
Arrazola, José María	Txokolate fabrika	0	4
Garaycochea, Félix	Txokolate eta konfitura fabrika	0	1
Arrillaga, Vicente	Txokolate fabrika	1	2
Orbea, Martín	Txokolate fabrika	0	3
Galdós, Juan Antonio	Txokolate fabrika	0	1
Madina, Pantaleón	Txokolate fabrika	0	2
Leturia, Juan	Txokolate fabrika	0	1
		3	21
Echeverría, José	Okindegia	0	2
Ysasa, Lamberto	Okindegia	0	1
Viuda de Aristegui, Juan José	Okindegia	1	2
Illarramendi, José	Okindegia	0	2
		1	7
Lizarralde, Paulino	Errota: artoa eta garia ehotzeko	0	1
Murgiondo, José	Errota: artoa eta garia ehotzeko	1	1
Igartua, Esteban	Errota: artoa eta garia ehotzeko	0	2
Larrañaga, Francisco	Errota: artoa eta garia ehotzeko	0	1
Emparanza, Pedro	Errota: artoa eta garia ehotzeko	0	2
Uriarte, Enrique	Errota: artoa eta garia ehotzeko	2	0
Olaran, Carlos	Errota: artoa eta garia ehotzeko	0	1
Arregui, Simón	Errota: artoa eta garia ehotzeko	0	1
Ugarte, José Manuel	Errota: artoa eta garia ehotzeko	0	2
		3	11
GUZTIRA		137	318
EHUNEKOAK		%30	%70

1. taulan ikus daitekenez, industria-langileen % 30 emakumeak ziren, eta nabarmentzekoa da datu hori. Orain dela mende bat, herriko hamar fabrika-langiletik hiru emakumeak ziren. Kontuan izan behar da 1924an Oñatik batez beste 6.400 biztanle zituela, eta 455 ziren industriako langileak, eta horietatik 137 emakumezkoak. Garai horretan oraindik nekazaritzatik ateratzen zuten bizimodua herritar gehienek.

Ikusten da emakume gehien-gehienak, % 90, aterki egituren muntaketan aritzen zirela; 124 emakume guztira. Sei emakume ihizko eta zumezko altzairuen fabrika batean enplegatuta zeuden; hiru emakume, txokolate fabriketan; beste hiru, errotetan, eta emakume bat, okindegian. Industrian enplegatutako emakumeek egiten zituzten lan gehienetan motrizitate xeheko trebetasuna behar da eskuetan.

5.2 atalean aipatu da udal erroldetatik emakumeen lanbideak jasotzeko zailtasuna dagoela, eta, hori ikuste aldera, 1923-24ko Industria Ekoizpenaren Estatistikan 3. tarifako jardueretan dauden emakumezko langileen datuak (ikusi 1. taula) eta 1924ko biztanleen udal erroldakoak¹⁹² alderatu dira. Udal errolda horretan, emakumeen jardun profesional hauek daude erregistratuta: etxeko lanak (*sus labores*), laborari, jostun, erlijioso, maistra, jabe, telefonista, langile (*jornalera, empleada, obrera, operaria*), okin, mekanografo eta aterkigile. Industriarekin lotutakoak hauek izango lirateke: langile (15 emakume), okin (1), mekanografo (2) eta aterkigile (1). Guztira 19 emakume egongo lirateke erroldan, eta 137 estatistikan. Aurreko atalean fabrikako enplegatu gisa agertua, ez dago erroldan enplegatu edo aterkigile jarduera profesionalarekin.

Gizonezkoen kasuan, berriz, industriarekin lotutako lan jarduna duten 320 langile daude erregistratuta biztanleen udal erroldan: langile (164), arotz (51), industrialari (22), errementari (21), doitzaile (18), mekanikari (7), txokolategile (6), makinalari (6), larru zurratzaile (5), tornulari (4), armagin (4), forjari (3), delinearatzaile (3), ingeniari (3), kontulari (1), moldeatzaile (1), sarrailagile (1) eta lantagile (1). Estatistikaren arabera, 318 langile daude 3. tarifako enpresetan.

Argi ikusten da, emakumezkoen kasuan, Industria Ekoizpenaren Estatistikatik ateratako datuak eta udal erroldakoak gurutzatzean, alde handia dagoela. Lehenago ere aipatu da erroldetako datuak erabiltzeko zailtasuna, batez ere emakumeen biztanleria aktiboa aztertu behar denean. Hori ez da Oñatin bakarrik gerta-

tzen. Historialariek ikerketa askotan erakutsi dute joera hori¹⁹³. Zergatik da hain murrizta udal erroldan ager den emakume kopurua, enpresek estatistikan aitortutakoaren aldean? Litekeena da zenbait faktoreren konbinazioak eragina izatea emaitza horretan.

Ez da aurkitu 1924an erroldak osatzeko jarraitu beharreko argibiderik, baina 1877-1887 bitartean ezarritako jarraibidean, nahiz eta aurrez biztanle guztien lanbide indibidualak erregistratu beharra adierazten den, gero esaten da, modu kontraesankorrean, lanbiderik gabekotzat «etxeko buruaren baliabideetatik bizi diren pertsonak (emakumeak, haurrak eta ezinduek)» bakarrik ager daitezkeela¹⁹⁴. Beraz, familiako ogi irabazleari lanbidea esleitzen zaio, eta emakumeari, berriz, etxearekin zerikusia duten lanak: etxeko lanak edo baserriko lanak. Aztertutako erroldan ere 19 emakumeak ezkongabe gisa ageri dira. Uste dena da emakume batek izan zezakeen industria-enplegua, zaintzaz eta familiako bestelako lanez aparteakoa, aldi baterakoa zela bai gizartearen eta bai emakumearen autopertzepzioaren begietara. Emakumeek fabrikako enpleguaz gain zaintzako eta baserriko ardurak ere izaten zituztenez, azken horiek erregistratzen zituzten. Horren ondorioa da udal erroldetatik emakumeen industria-jardunei buruz jasotako informazioaren eta Industria Ekoizpenaren Estatistikatik jasotakoa bat ez etortzea.

1934ko hautesle errolda¹⁹⁵ hautatu da jakiteko ea 1924ko joera bera mantendu zen edo, aitzitik, Bigarren Errepublikan izandako aldaketek erroldan eragina izan zuten. Errolda horretan 23 urtetik gorako emakumeak ageri dira eta aztertu ondoren, emakumezkoen lanbide hauek identifikatu dira: nekazari, laborari, erlijioso, jornalari, neskame, jabe, maistra, jostun, modelogile, telefonista eta enplegatu. Industriarekin lotuta, 5 emakume jornalari (*jornaleras*) identifikatu dira, eta 2 emakume enplegatu (*empleadas*), baina azken horrek ez du askorik esaten, gerta liteke-eta beste sektoreren bateko negozioan izatea enplegatuak. Aurreko atalean identifikatutako emakume bat errolda honetan etxeko lanak lanbidean sailkatzen da. Gizonezkoen industria-lanbideen kasuan, erroldatik ateratako datuak emakumeen justu kontrakoak dira. Hona hemen gizonek adie-

¹⁹² Oñatiko Udal Artxiboa (1924). Biztanleen udal errolda. Signatura: Z-251-3. Erregistro zk.: 2744.

¹⁹³ Pareja Alonso, A., García Abad, R., eta Zarraga Sangroniz, K. (2014). Un análisis comparativo de la estructura profesional de las capitales vascas en los años 30 a través de la metodología HISCO. *Revista de Demografía Histórica*, 32 (1), 145-180. 154. or.

¹⁹⁴ Pérez-Fuentes Hernández, P. (1995). El trabajo de las mujeres en la España de los siglos XIX y XX. Consideraciones metodológicas. *Arenal. Revista de Historia de las Mujeres*, 2 (2), 219-245. 223. or.

¹⁹⁵ Oñatiko hautesle errolda (1934). AHPG-GPAH INE 180/2 26

razitako industria-lanbideak: industrialari, mekanikari, enplegatu, kimikari, errementari, txokolategile, doitzai-le, arotz, moldeatzaile, delineatzaile, ingeniari, leuntzai-le, forjari, meatzari, kontulari, inprimatzaile, armagin, zurratzaile, latoigile, sugin, fresatzaile, txofer eta peritu industrial.

Industria Ekoizpenaren Estatistikarekin alderatu ahal izan direla-eta, aztertutako bi errolda horiek garbi era-kusten dute (gehienbat 1924koak) biztanleri erroldak ez direla nahikoak emakumeen jarduerak eta enpleguak zehatz jasotzeko. Adibide horrek ederki erakusten du zein zaila den emakumeek industrian izandako presen-zia ezagutaraztea.

Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari egindako eskaeretatik jasotako informazioa (1942-1980)

Aztertutako espedienteetatik jasotako informazioa era-biliz, 1942-1980 bitarteko Oñatiko fabriketako langileen argazkia egin nahi izan da. Helburua, emakumeek ar-gazki horretan izan duten presentzia agerian jartzea.

Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari enpresa bakoit-zak egindako eskaeren bidez, langileei buruzko infor-mazioa jaso da espedienteetatik. Informazio hori es-kaera egindako urte bakoitzekoa da. Enpresa eta urte bakoitzarekin lotutako espedienteetatik jaso den infor-mazioan oinarrituta egin dira taulak. Taula bakoitzean, enpresak urte horietan zituen langileak zer lan katego-riatan sailkatuta zeuden agertzen da.

Emakume langileen kopuruak kuantifikatzeko, bi ar-txibotako 124 industria-espediente kontsultatu dira: Espainiako Administrazioaren Artxibo Nagusiko (AGA) 25 espediente, Alcalá de Henaresen, eta Euskal Auto-nomia Erkidegoko Artxibo Nagusiko beste 99, Gastei-zen. Espediente horiek hasiera batean emakume izen propioak azaleratzeko aztertu ziren. Bertan aurkitutako bestelako informazio gehigarri eta ustekabekoa emaku-me langileen kopurua elikatzeke erabili da. Informazio hori enpresa bakoitzak Industria Ministerioari Gipuz-koako Industriako Ordezkaritzaren bidez eskaera egite-rakoan emana da, enpresak berak aitortutako datuez osatuta dago, eta ez da aurkitu horiek kontrastatu ahal izateko beste daturik.

Aztertutako espediente bakoitzak eskaera bat edo gehiago bateratzen zituen. Eskaerak era askotakoak dira, baina enpresa handitzeko baimena eskatzen zen gehienetan. Kasu batzuetan enpresa berri bat sortze-ko baimena lortu nahi zen, eta beste batzuetan, berriz, Oñatin zegoen industria-jarduna lekuz aldatzea. Ikerlan

honetan ez da sakondu eskaeretan eta arrazoietan. Es-pedienteetatik ateratako informazioa fabriketako ema-kume langileen kopuruak jakiteko soilik erabili da.

Industria-enpresek aurkeztutako eskaeraren arabera, informazioa jasotzeko modua eta inprimakia aldatuz joan direnez, atal honetan erakusten diren datuek ere zenbait ereduri jarraitzen diete. Eusko Jaurilaritza sor-tzearekin batera, bertan behera geratu zen enpresek aurkeztu beharreko dokumentuetan langileei buruzko datuak generoaren arabera bereizita eman beharra. Horregatik, ezin da 1970eko hamarkadaren bukaeratik aurrerako emakume langileei buruzko daturik jaso.

Aurkitu diren langile kopuruen datuak kronologikoki emanda daude, eta lehenengo data enpresa bakoitza-ren lehen erregistroko urtea da. Enpresa bati buruz urte bateko baino gehiagoko informazioa lortu denean, datuak ordena kronologikoan izateak enplegu bilakaera ikusteko aukera ematen du.

Espediente guztiek ez dute beti informazio bera ema-ten. Kasu batzuetan, uneko txantiloia-aren datuak bista-ratzen dira. Beste kasu batzuetan, berriz, taula baten bidez zera adierazten da, zer langile mota eta zenbat dituen enpresak *orain* eta zenbat behar beharko dituen Industriako Ordezkaritzari eskatutako aldaketa ezarri *ondoren*. *Orain* ataleko datuak eskaera egin den unean enpresak duen plantilla gisa interpretatu dira. 34. iru-dian ikus daiteke enpresek eskaera egitean bete beha-rreko txantiloien eredu bat.

Aztertutako espedienteetan, gizonetako eta emakumez-ko langileen arteko bereizketa bakarra *obrero* eta *obre-ra* edo produkzio beharginen artekoa da. Sailkapeneko gainontzeko lan kategoria guztiak genero maskulinoan adierazita daude. Beraz, emakumeen kopurua *obreras* atalean soilik kalkulatu ahal izan da.

1942, 1953, 1959 eta 1969. Chocolates Maiztegui¹⁹⁶

Chocolates Maiztegui Kalebarrian hasi zen txokolatea ekoizten, eta gerora Olakuan eraiki zuen bere jardune-rako behar bezainbeste leku zuen fabrika. Argazki ho-netan ikus daiteke (35. irudia) fabrika itxi ondorengo irudia.

¹⁹⁶ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00026-001, dokumentua.

DATOS DE IDENTIFICACION, FINES Y CARACTERISTICAS GENERALES		Documento n.º 1 anexo a la petición de fecha <u>20.12.76</u> sobre <u>modificación</u> de industria		Expte. CNAE	
---	--	---	--	--------------------	--

EMPRESA O TITULAR DE LA INDUSTRIA	IRIZAR VILLAR Y Cia. S. A. (apellidos o razón social)		S. A. (nombre o clase de Sdad.)		DOMICILIO SOCIAL	
	IRIZAR VILLAR Y Cia. S. A. (nombre comercial)		78.11.41 (Teléfono)		OÑATE	
	OÑATE (Población)		Lecesarri 19 (Emplazamiento)		Lecesarri 19 (Teléfono)	

Finalidades de sus actividades industriales	ACTUALMENTE	Fabricación de artículos de ferretería (concretarlas con claridad y si el espacio previsto le fuese insuficiente, utilice hoja en blanco independiente)	
	PREVISTAS	idem. idem. (haga ver aquí las mejoras u objetivos concretos que persigue)	

TERRENOS; PABELLONES; EDIFICACIONES Y OTROS LOCALES UTILIZADOS PARA EL DESARROLLO DE SUS ACTIVIDADES												
m ² de terreno de que se dispone			m ² de superficie edificadas		Detalles del n.º y superficies de los pabellones, locales y demás edificaciones							
PROPIOS	En arriendo		Propios	En arriendo	De 1 planta		De 2 plantas		De 3 plantas		De más de 3 plantas	
	N.º	M ²			N.º	M ²	N.º	M ²	N.º	M ²		
2.680	-	-	1.880	-	1	1500	1	380				

POTENCIAS GLOBALES				En las instalaciones existentes	Para las nuevas	TOTALES
De los motores eléctricos de accionamiento (KW)				233,25	23, -	256,25
De los hornos, soldaduras, resistencias y otros receptores eléctricos que no sean motores (KW)				128,20		128,20
De los transformadores de recepción de energía (KVA)				175,20		175,20
De grupos generadores de energía eléctrica (KW)						

GENERADORES DE VAPOR										Compresores de aire	
N.º	Superficie de calefacción de cada uno en m ²		Presiones de timbre							Número	

PERSONAL NECESARIO DE ACUERDO CON LAS POSIBILIDADES DE TRABAJO												
	Directivos	Ingenieros	Licenciados	Técnico de grado medio	Maestros Industriales	Jefes Tasa	Administrativos	Obreros	Obreras	Aprendices	Guardas y porteros	Extranjeros
AHORA	1			2			1	23	13			
DESPUES	1			2			1	23	13			

ORGANIZACION COMERCIAL DE QUE DISPONE Y POSIBILIDADES DE EXPORTACION CIFRANDOLAS	Con representantes en todas las regiones de España. Durante el año 1.976 la cifra global de ventas será alrededor de los 30.000.000,- pts. y de éstas, 4.000.000,00 de exportación (si lo precisa utilice hoja aparte en blanco)	
OTRAS MANIFESTACIONES	(si poseen otros talleres o locales con distinto emplazamiento indicarlo aquí)	
PLAZO DE PUESTA EN MARCHA PREVISTO	Se halla en marcha	



35. irudia. Maiztegui txokolate lantegia. Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa¹⁹⁷. Oñatiko Udal Artxiboa.

1942tik 1969ra bitarteko erregistroak bildu dira. Denborak aurrera egin ahala, Ministerioari gero eta informazio zehatzagoa aurkeztu behar zitzaion. Azken urtean bete beharreko galdetegiaren formatura moldatu dira aurreko urteetako datuak.

2. taula. Maiztegui txokolate fabrikako langileen sailkapena, 1942-1969 bitartean.

	1942	1953	1959	1969
Zuzendariak				1
Arduradun orokorra				1
Sekzio arduradunak				3
Tailer zuzendariak			1	
Administrariak			2	4
Gizonezko langileak	4	4	5	4
Emakumezko langileak	9	7	9	9
Gidariak				2

Taulatik egin den irakurketatik aterako ondorioetako bat da hasiera batean emakumezkoak zirela langilee-

tan gehiengoa. Negozioa handitu ahala, eta administraziozko eta antolakuntzako langileen kopurua handitzen joan zen heinean, emakumezkoen presentzia kopuru osoarekiko murriztu egin dela adierazten du.

1943, 1967 eta 1972. Lino Urcelay Barrutia¹⁹⁸ eta ondoren Vda. de Lino Urcelay¹⁹⁹



36. irudia. Vda. de Lino Urcelay fabrian ekoiztutako El avión markako zotzak. Argazkia: Nagore Goñi.

¹⁹⁷ Oñatiko Udal Artxiboa. Jesus Mari Arzuaga funtsa. Karpetak 4. Negatiboak: 2829tik 3877ra bitartekoak. Gure Gipuzkoa: <https://www.guregipuzkoa.eus/photo/?pid=77784>. Lizentzia: CC BY SA.

¹⁹⁸ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00106-019, dokumentua.

¹⁹⁹ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00106-013, dokumentua.

3. taula. Lino Urcelay zotz fabrikako langileen sailkapena, 1943-1972 bitartean.

	1943	1967	1972
Tailer zuzendariak		1	1
Administrariak	1	2	2
Gizonezko langileak	6	9	9
Emakumezko langileak	5	20	19

Fabrika horretan lan egindako gehienak emakumeak izan dira. Produkzioan lan egindako gizonezkoek zura pres-tatzen eta makinak prest jarri eta konpontzen jarduten zuten gehienetan. Emakumezkoen lana, aldiz, eskuzko lanean oinarrituta zegoen: zur tirak prentsari sartu eta moz-tutakoak ateratzea, eta, ondoren, zotzak kaxetan sartzea.

1943-1974. Arrue Hermanos S.A.²⁰⁰

Arantzazuko Ama kalean zegoen fabrika, eta aizkorak eta altzairuzko bestelako erreminta batzuk fabrikatzen zituzten.



37. irudia. Arantzazuko Ama kalean, Arrue Hermanos erreminta-fabrika eta Iturritxo iturria. Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa²⁰¹. Oñatiko Udal Artxiboa.

²⁰⁰ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00759-006, dokumentua.

²⁰¹ Oñatiko Udal Artxiboa. Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa. Kar-peta 7. Negatiboak: 6129tik 7147ra bitartekoak. <https://www.guregipuzkoa.eus/?s=arrue+o%C3%B1ati&lang=eu#gallery/17c6c62db65dfaa26eda1cfb88c49cc/80673/comments>. Lizentzia: CC BY-SA.

Kontsultatutako espedienteetan ez da emakumezko lan-gilerik ageri. 1974an eskaera egin ondoren bi emaku-mezko langile kontratatzea aurreikusten da. Ikerlana-ren atal honetan analisirako irizpide nagusia eskaera egitean erregistratutako plantillan oinarritzea izan de-nez, bi emakume horiek ez dira kontuan hartu.

1943-1980. Altuna Hermanos S.A.²⁰²

1924ean sortu zen guraizeak eta erremintak ekoizleko enpresa hori, Zubillagan, eta 1942an merkaturatu zuen hurrengo hamarkadetan oso ezaguna izan den Auste Estana marka.



38. irudia. Altuna Hermanos fabrikak ekoiztutako Auste Estana markako guraizeak, hegaztiak zatikatzekoa. Argazkia: Nagore Goñi.

4. taulan ageri den langile kopuruaren hazkundearen eraginez, enpresak espediente berean adierazten du 1969an «langileentzako 36 etxebizitza eraiki dir[el]a hi-labeteko 75 pezetako alokairu prezio sinbolikoarekin».



39. irudia. Altuna Hermanos enpresaren eraikina, 1960ko hamarkadan. Argazkia: Plazaola.

²⁰² EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-02423-001, dokumentua.

4. taula. Altuna Hermanos guraize eta erreminta-fabrikako langileen sailkapena, 1943-1980 bitartean.

	1943	1951	1955	1959	1963	1967	1972	1974	1977	1980
Zuzendariak					2	2	2	2	2	2
Ingeniariak										1
Lizentziatuak										1
Teknikariak	1						3	1	1	1
Maisu industrialak			2	2			1	2	2	2
Tailer zuzendariak					1	1	1	1	1	1
Administrariak	2		4	4	4	5	3	5	5	5
Gizonezko langileak	38	49	48	50	66	71	86	95	101	88
Emakumezko langileak	4	3	4	4	3	11	9	9	10	10
Ikastunak		1			1	4	5	12	12	2
Atzerritarrak										1

Negozio horretan argi ikusten da emakumeek guztiz bigarren mailako presentzia izan dutela. Elkarriketatutako emakume batek adierazi duenez, produkzioan lan egindako emakume gehienak erremintak paketatzen eta biltegiko bestelako lanak egiten aritzen ziren. Gaur egun ere hasierako leku berean jarraitzen du enpresak, erremintak diseinatu, ekoiztu eta komertzializatzen.

1947-1953. Arrazola y Ezpeleta²⁰³

Patrua kalean zegoen aterkiak ekoizteko fabrika hori. Hemen ikus daiteke 1947an, 1952an eta 1953an enpresak zituen langileen sailkapena.


5. taula. Arrazola y Ezpeleta aterki tailerreko langileen sailkapena, 1947-1953 bitartean.

	1947	1952	1953
Administrariak		1	1
Gizonezko langileak	3	1	1
Emakumezko langileak	8	2	3

Taulak erakusten duena da produkzio mailan emakumezkoak zirela gehiengoa. Emakume askoren jarduna aterkien telak jostea izan da.

1947 eta 1969. Mugarza, Ugarte y Cía S.A.²⁰⁴

Metalmekanikaren sektoreko enpresa horrek hiru negozio biltzen zituen: sarde eta eskuareen fabrikazioa, galdaketa eta zeramikaren industriarako makineria. Otadui Zuhaiztian zegoen fabrika.

40. irudia. Mugarza, Ugarte y Cía S.A. enpresaren produktuen katalogotako bat²⁰⁴.

²⁰³ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00073-005, dokumentua.

²⁰⁴ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-02424-001, dokumentua eta irudiak.

6. taula. Mugarza, Ugarte y Cía S.A. enpresako langileen sailkapena, 1947-1969 bitartean.

	1947	1969
Zuzendariak		1
Teknikariak	1	1
Maisu industrialak		1
Tailer zuzendariak		3
Administrariak	4	9
Gizonezko langileak	50	120
Emakumezko langileak	5	3
Ikastunak		2
Zaindari eta atezainak		2

Emakumezko enplegatuen presentzia oso apala zela erakusten du 6. taulak.

1947-1977. Cerrajería Uribarri S.L. (CEUR)²⁰⁵

Lezesarri auzoan zegoen, eta sarriak ekoizten zituen.



41. irudia. Cerrajería Uribarri enpresaren katalogo komertzial baten azalaren irudia.

7. taulan ikus daitekeen bezala, 1967tik aurrera produktzioko langile gehienak emakumezkoak ziren. Elkarriketatuko emakumeek adierazi dutenez, nagusiki produktuen muntaketan jarduten zuten, bai eta produktuak paketatzen eta biltegiko lanetan ere.

1949²⁰⁶, 1953 eta 1964²⁰⁷. Chocolates Martin Orbea

Kalebarrian zegoen txokolate fabrika, gaur egun Txokolateixia dagoen leku berean.



42. irudia. Martin Orbea txokolate fabrikaren irudia. Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa²⁰⁸. Oñatiko Udal Artxiboa.

²⁰⁶ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00110-020, dokumentua.

²⁰⁷ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00865-011, dokumentua.

²⁰⁸ Oñatiko Udal Artxiboa. Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa. NEG 12837.

7. taula. Cerrajería Uribarri S.L. enpresako langileen sailkapena, 1947-1977 bitartean.

	1947	1956	1958	1961	1964	1967	1969	1970	1972	1974	1976	1977
Zuzendaria k								1	1	2	2	2
Lizentziatuak										1		
Maisu industrialak										1	3	3
Tailer zuzendariak							1	1	1			
Administrariak				1	1	1	1	1	1	1	2	2
Gizonezko langileak	6	6	5	3	5	10	6	8	10	9	7	10
Emakumezko langileak	1	2	5	5	5	15	18	22	23	31	19	22
Ikastunak					1		2					

²⁰⁵ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-01188-001, dokumentua.

8. taula. Orbea txokolateen enpresako langileen sailkapena, 1949, 1953 eta 1964. urteetan.

	1953	1964
Zuzendariak		1
Tailer zuzendariak		1
Teknikariak	3	
Administrariak	2	
Gizonezko langileak	6	3
Emakumezko langileak	10	6

Produkzioko langileen gehiengoa emakumezkoa izan zen, eta gehienek txokolatea paketatzen jarduten zuten.

1949²⁰⁹, 1955²¹⁰ eta 1966²¹¹. Hijos de Juan de Garay S.A.

43. irudia. Juan de Garay enpresako langileak, 1956an. Mari Karmen Arriaran Etxeberririari esker eskuratua.

9. taula. Hijos de Juan de Garay S.A. enpresako langileen sailkapena, 1949-1966 bitartean.

	1949	1955	1966
Zuzendariak			2
Ingeniariak			2
Ingeniari teknikoak			6
Kimikariak			1
Bestelako titulazioak			1
Tailer zuzendariak			2
Sekzio arduradunak		12	
Teknikariak		9	
Delineatzaileak		7	
Administrariak		18	20
Gizonezko langileak	141	234	390
Emakumezko langileak	76	93	102
Ikastunak		1	15
Laguntzaileak		3	

Hijos de Juan de Garay enpresan, emakume enplegatuen pisu espezifiko murriztuz joan da urteek aurrera egin ahala langileria osoarekiko. Oro har, baliteke hori negozioak izan duen bilakaera estrategikoaren ondorio izatea. Aterkien egiturak fabrikatetik hodiak ekoiztera eta hodietan oinarritutako bestelako produktuak fabrikatzera jauzi egiteaz batera, emakumeak lan indarraren gehiengo izatea galdu egin zen.

Industria-ondarearen ikuspuntutik, esan daiteke Garay fabrikak industria modernoan lan egiteko modua *inokulatu* zuela herrian. Enpresa horren eragina hainbat enpresa eta sektoreen garapen industrialean nabari da. Aterki fabrikak hasteko arrazoia Garayren armazoiei telak jostea izan zen. ULMaren sorrera, berriz, Garayko greba eta kaleratze batzuen ondorio izan zen. Industria-ekosistema baten hazia landatzeaz gain, luzaroan beste sistema txiki eta independente batzuk ere sortzeko abiapuntua izan da.

1950-1952. Rómulo Azcue Garmendia²¹²

Kale Zaharrean zegoen, eta, moldaketa-teknologia bidez, bakelitzako piezak ekoizten zituen, era askotakoak: heldulekuak, plakak, borna-estalkiak, entxufeen oinarriak, etab.

209 EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-01703-001, dokumentua.

210 EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-01704-001, dokumentua.

211 EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-01705-001, dokumentua.

212 EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00048-003, dokumentua.



44. irudia. Garay enpresak izandako hazkundera. Ezkerrean, Goribar baserria. Eskuman, Garayren fabrika, ezkerreko argazkia egin zenetik eraikinak bi handitze fase izan ondoren. Argazkiak: Plazaola.

10. taula. Rómulo Azcue Garmendia enpresako langileen sailkapena, 1950-1952 bitartean.

	1950	1952
Teknikariak	1	
Gizonezko langileak	4	4
Emakumezko langileak	3	4

Tailer horretako produkzioko langileak generoaren ikuspegitik berdinduta zeudela ikusi daiteke 10. taulan.

1952 eta 1970. Echave Zabaleta Nicolás (EANI)²¹³

EANI izeneko marka komertzialarekin etxetresna elektriko txikiak merkaturatzen zituen: berogailu elektrikoak, plantxak, kafe makinak, etab. Tailerra Kalebarrian zegoen.



45. irudia. EANI markako kafe makina. Argazkia: Nagore Goñi.

11. taula. Echave Zabaleta Nicolás enpresako langileen sailkapena, 1952an eta 1970ean.

	1952	1970
Gizonezko langileak	5	3
Emakumezko langileak	2	

Produkzioko langileen gehiengoa gizonezkoak zirela ikus daiteke 11. taulan.

²¹³ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00076-008, dokumentua.

1952-1963. Celaya, Emparanza y Galdos S.A. (CEGASA)

Pila lehor elektrikoak ekoizten zituen, eta industria handitzeko hainbat eskaera aurkeztu zituen Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzan. 1954ko²¹⁴ eta 1956ko²¹⁵ datuak AGA artxiboan aurkitu dira, eta gainontzeko urteetakoak, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren Artxibo Nagusiko beste espediente batean²¹⁶.



46. irudia. Tximist markako pilak. Argazkia: Nagore Goñi.

12. taula. CEGASA enpresako langileen sailkapena, 1952-1963 bitartean.

	1952	1953	1954	1956	1960	1963
Zuzendariak						1
Ingeniariak						1
Ingeniari teknikoak						3
Bestelako titulazioak						2
Tailer zuzendariak						7
Teknikariak	2	2	3	4	4	
Administrariak	5	5	7	9	12	15
Gizonezko langileak	12	12	28	42	67	155
Emakumezko langileak	63	63	53	66	66	197
Ikastunak						4
Langile adingabeak (ikastunak barne)			6		3	
Teknikari atzerritarrak	1	1	1	1	1	1

²¹⁴ Kultura Ministerioa, AGA, Industria eta Merkataritza, Industriako Zuzendaritza Nagusia, 71/6275 kaxa, 42694 esp., z/g: Solicitud de autorización para la ampliación de industria de pilas secas eléctricas (1954).

²¹⁵ Kultura Ministerioa, AGA, Industria eta Merkataritza, Industriako Zuzendaritza Nagusia, 71/6417 kaxa, 49080 esp., z/g: Solicitud de autorización para la ampliación de industria de pilas secas eléctricas (1956).

²¹⁶ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-02389-001, dokumentua.

Ikus daitekeenez, produkzioan emakumezkoak gehien-goia izan ziren, 1960an izan ezik. Produkzioan lan egin-dako emakumeek elkarriketetan adierazi dutenez, emakumezko enkargaturen bat alde batera utzita, gainerakoak, asko, produktuen muntaketan aritzen ziren; eta gizonezkoek materiala prestatzen eta makinak prest jarri eta konpontzen jarduten zuten, enkargatu eta kontrolatzaile lanak egiteaz gain.

1952-1978. Perosterena e Irizar S.R.C.²¹⁷

Enpresa horren produkzio aldaketa dago jasota espedientearen. 1952an, tailerraren jarduna torlojugintzara eta pilen osagarrien fabrikaziora bideratuta zegoen. 1962tik aurrera, berriz, aterkien eta itzalkinen ekoizpena zuen negozio nagusi, torloju txikien ekoizpenarekin batera. Aztertutako espedienteak kontuan izanda, lehen urtean Kale Zaharraren bukaeran zegoen, eta azken urteetan Kanpantxon.

13. taula. Perosterena e Irizar S.R.C. enpresako langileen sailkapena, 1952-1978 bitartean.

	1952	1962	1974	1978
Tailer zuzendariak			1	
Teknikariak				1
Administrariak		1	1	1
Gizonezko langileak	9	8	4	4
Emakumezko langileak	3	4	4	5
Ikastunak			1	

13. taularen arabera, produkzio eremuan gizonezkoak izan dira gehiengo, 1962. urtera arte.

1953-1976. Irizar, Villar y Cía S.A.²¹⁸



47. irudia. Irizar, Villar y Cía sarrailagintza-enpresaren oinarritzko informazioa²¹⁹.

²¹⁷ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00850-010, dokumentua.

²¹⁸ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-01032-005, dokumentua.

²¹⁹ Gipuzkoa Kultura [https://commons.wikimedia.org/wiki/File:IRIZAR_VILLAR_Y_COMPA%C3%91%C3%8DA_\(7879543286\).jpg](https://commons.wikimedia.org/wiki/File:IRIZAR_VILLAR_Y_COMPA%C3%91%C3%8DA_(7879543286).jpg). Lizentzia: CC BY-2.0,

Sarrailagintzarako bandak eta kisketak ekoizten zituen, bai eta burdindegirako produktuak ere. Lezesarri auzoan zegoen fabrika.

14. taula. Irizar, Villar y Cía S.A. enpresako langileen sailkapena, 1953-1976 bitartean.

	1953	1974	1976
Zuzendariak		1	1
Tailer zuzendariak			
Teknikariak (erdi maila)		2	2
Administrariak	1	1	1
Gizonezko langileak	16	24	23
Emakumezko langileak	9	13	13

Emakumezkoen presentzia gutxiengoa izan dela erakusten du 14. taulak.

1954. I.E.G. S.A. (Ignacio Emparanza Gaztañaga)

Etxean erabiltzeko objektu esmaltatuak ekoizten zituen fabrika horrek: lapikoak eta zartaginak, besteak beste. Esmalteztatze sekzioa Gasteizera aldatzeko eskaeraren espedientean²²⁰ Oñatiko langileen berri ematen da:

- Enplegatuak: 1
- Gizonezko langileak: 13
- Emakumezko langileak: 9

Oñatin sortutako enpresa hori Gasteizko Esmaltaciones San Ignacio S.A. enpresaren hazia izan zen gero. Enpresa horretako langileen sailkapenean emakumezkoen presentzia apalagoa da.

1954-1974. Chocolates Loyola S.A.²²¹

Otadui Zuhaiztian zegoen, eta, txokolateez gain, bonboiak ere ekoizten zituzten fabrika horretan.

15. taula. Chocolates Loyola S.A. enpresako langileen sailkapena, 1954-1970 bitartean.

	1954	1956	1961	1963	1964	1967	1970
Zuzendariak				3	2	2	2
Ingeniariak							1
Bestelako tituludunak					2		1
Maisu industrialak							2
Tailer zuzendariak				1	1		14
Teknikariak		1	1			3	
Administrariak	3	7	10	9	15	15	32
Gizonezko langileak	14	15	32	37	47	60	46
Emakumezko langileak	16	16	55	44	53	53	25
Ikastunak				6	5		11
Zaindari eta atezainak						2	4
Atzerritarrak							1

1964ra arte, emakumezkoak ageri dira produkzio lanean gehiengo; data horretatik aurrera, berriz, gizonezkoak. Elkarriketatutako emakumeek adierazi dutenez, produkzioan emakumezkoek gehienbat produktuak ontziratzen, paketatzen eta dekoratzen (adibidez, bonboiak) egiten zuten lan. Administrazioan lan egindako emakume batek adierazitakoaren arabera, bulegoan gehienak emakumeak ziren.

1954, 1970 eta 1974. Chocolates Hueso S.A. (Zahor)²²²

Hiru urteetako datuak espediente bakarretik jaso dira. Gaur egun NATRA dagoen leku berean zegoen fabrika.

²²⁰ Kultura Ministerioa, AGA, Industria eta Merkataritza, Industriako Zuzendaritza Nagusia, 71/6279 kaxa, 42804 esp., z/g: Solicitud de autorización para trasladar su industria de fabricación de artículos de uso doméstico esmaltados, de Oñate (Guipúzcoa) a Vitoria (1954).

²²¹ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00575-001, dokumentua.

²²² [EAE-HAAN/AGAP-CAE], INRIG-02580-001, dokumentua.



48. irudia. Agintarien bisita Chocolates Zahor fabrikako produkzio eremura 1967-10-19.²²³ Foto Marín Funtsa.

16. taula. Chocolates Hueso S.A. enpresako langileen sailkapena, 1954-1974 bitartean.

	1954	1970	1974
Zuzendariak		2	2
Lizentziatuak		1	
Tailer zuzendariak		2	13
Teknikariak (erdi maila)			2
Administrariak	1	35	41
Gizonezko langileak	5	30	47
Emakumezko langileak	12	95	74
Ikastunak		10	44
Zaindari eta atezainak		4	4

16. taulan, produkzioko langile gehienak emakumeak zirela ikusten da. Enpresa horretan, besteetan ez bezala, taulan erregistratutako urteetan hainbat emakumezko jardun zuten produkzio lerroetan enkargatu edo arduradun lanetan. Nahiz eta analisi hau produkzioko langileetara mugatu den eremu horretako datuak soilik lortu ahal izan direlako generoaren arabera bereizita, administrazioan ere emakumeak gehiengo zirela adierazi dute elkarriketatutako emakumeek. Horixe erakusten du 49. irudiak.

²²³ Kutxa Fundazioa Fototeka (1967). Argazkia: Paco Marín. Erref.: 22801395. Irudia: 325735. <https://kutxateka.eus/index.php/Detail/objects/325735/s/48>. Lizentzia: CC BY-NC 4.0



49. irudia. Agintarien bisita Chocolates Zahor fabrikara, 1967-10-19an. Administrazio eremuko langileak²²⁴. Foto Marín Funtsa.

²²⁴ Kutxa Fundazioa Fototeka (1967). Argazkia: Foto Marin. Erref.: 77571830. Irudia: 325715. <https://kutxateka.eus/index.php/Detail/objects/325715/s/36>. Lizentzia: CC BY-NC 4.0



51. irudia. ULMAk hasieran ekoizten zituen produktuen katalogo batzuk²²⁷. ULMAri esker argitaratua.

1957-1977. Jose María Ezpeleta Balzategui (Ezpeleta)²²⁵



50. irudia. Ezpeleta aterki fabrikaren hasierako kokapena. Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa. Oñatiko Udal Artxiboa²²⁶.

Ezpeleta aterki fabrikako langileen banaketa jaso den garaian, Patruue kalean zegoen.

17. taula. Ezpeleta aterki fabrikako langileen sailkapena, 1957-1977 bitartean.

	1957	1964	1969	1977
Tailer zuzendariak		1		
Administrariak				1
Gizonezko langileak	1	2	2	2
Emakumezko langileak	3	10	13	14
Ikastunak		3		1

17. taulan ikusi daitekeenez, produkzio eremuko langile gehien-gehienak emakumeak izan ziren, eta jardun nagusia telak moztea, jostea eta aterkia osatzen duten elementuak muntatzea izan zuten.

1963-1973. Talleres ULMA S.C.I.¹⁵¹

Eraikuntzarako metalezko elementuak eta ontziratze eta enbalatzeko makineria ekoizten zituen kooperatibak, eta Otadui Zuhaiztian zegoen. Gaur egun ere bertan jarraitzen du negozioaren parte batek.

225 EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-01377-014., dokumentua.

226 Oñatiko Udal Artxiboa. Jesus Mari Arzuaga funtsa. ONA 004263.

227 ULMA (2024). Ondarea 1961-1971. 18. or. https://www.ulma.com/extranet/1961_1971/1961_1971.html



52. irudia. ULMAko administrazio eremuko langileak, 1970 aldera.
Tina Kortabarria Txintxurreta, Jesusa Egaña Egaña, Ana Mari Lizarralde Madinabeitia eta Pili Saiz Guix ageri dira, besteak beste.
ULMAri esker argitaratua.

18. taula. Talleres ULMA S.C.I. kooperatibako langileen sailkapena, 1963-1973 bitartean.

	1963	1964	1966	1967	1969	1973
Zuzendariak					2	4
Ingeniari teknikoak		2	3	3		
Teknikariak (tituludunak)	2					
Teknikariak (erdi maila)					1	5
Maisu industrialak					2	25
Tailer zuzendaria		2	2	2	1	6
Administrariak	2	2	2	3	5	20
Gizonezko langileak	44	38	66	79	179	197
Emakumezko langileak					7	
Ikastunak		14	14	14	1	2
Zaindari eta atezainak						2

1969an izan ezik, emakume langilerik ez da ageri produkzio eremuan. Elkarriketatutako emakumeek adierazi dutenez, erregistroak jasotako garaian ULMAn zebiltzan emakume gehienek administrazio lanetan jardun zuten, eta gutxienek garbiketa-lanetan.

1970. Solaun y Rubio S.A.²²⁸

Eibarren eta Oñatin zituen fabrikak, eta etxetresna elektrikoak ekoizten zituen: kafe makinak, plantxak, bero-gailuak, etab. Gipuzkoako Industriako Ordezkaritzari negozioa handitzeko eskaera egin zion garaian, Ibarren zegoen fabrika.



53. irudia. Solaun y Rubiok ekoiztutako bidaia-plantxa bat.
Argazkia: Nagore Goñi.

19. taula. Solaun y Rubio S.A. enpresako langileen sailkapena, 1970ean.

	1970
Zuzendariak	1
Lizentziatuak	1
Tailer zuzendaria	1
Administrariak	3
Gizonezko langileak	22
Emakumezko langileak	23
Ikastunak	2

19. taulan ikus daiteke produkzio eremuan emakumezkoen eta gizonezkoen kopuruak berdinduta zeudela. Elkarriketatutako emakume batek adierazi duenez, emakumeek nagusiki egiten zituzten lanak etxetresna elektrikoak muntatzea eta produktuak ontziratzea eta paketatzea ziren. Gizonezkoek, aldiz, piezen akabera lana egiten omen zuten, ondoren emakumeek muntatu zituzten.

²²⁸ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-00063-005, dokumentua.



54. irudia. Fagor Industrialek hasieran ekoiztutako tresna industrial elektrikoak hornitutako sukaldeak²²⁹. Onnera Group-i esker argitaratua.

1974. Fagor Industrial Koop. E.²³⁰

Kooperatiba horrek tresna industrial elektrikoak ekoizten zituen: sukaldeak, ontzi garbigailuak, labeak, etab. Gaur egun ere industria-jardun berean jarraitzen du Santxolopetegi auzoan.

Aztertutako espedienteak 1974-02-01 datakoa da industria jardun berri bat martxan jartzea eskatzen zen bertan. Dokumentuan fabrikazioko lehen garbitegi-serieak 1974ko azaroan abiatzea aurreikusten zen. Ondoren langileen sailkapena aurkeztzen da, non gizonezko langileak 55 dira eta emakumezkoak bakarrik ageri da. Kooperatibak Arrasateko ULGOR S.C.I.n du jatorria eta ez da argi geratzen jasotako informazioa ULGOR edo Fagor Industrialena den, aurreko urtean ULGORrek langileen sailkapenari lotutako datu berdinak aurkeztu zituen eta 1973. urteko beste eskaera batetan.

Elkarrizketatutako emakume bat 1990eko hamarkadan hasi zen produkzioan lanean, eta adierazi du bera hasi

zenerako jada bazebiltzala emakumeak produkzio eremuan lanean.

Erregistratu da fabriketako emakume enplegatuen kopurua dokumentu historikoetan?

Industriako emakume enplegatuek presentzia zabala izan dute aztertutako enpresen espedienteetan, eta horretan badu zerikusirik sektoreak berak eta egindako lan jardunak. Txokolate, pila, aterki, zotz, etxetresna elektriko eta sarrailagintzako fabriketan presentzia zabala izan dute eta gehiago izan dira emakume langileak. Erremintak eta makinak ekoizten zituzten metal-mekanikaren sektoreko negozio gehienetan, aldiz, oso leku txikia izan dute.

Jaso ahal izan den irudia lausoa suertatu da, horixe da egia. Alde batetik, urteetan zehar jarraipenik ez izateak informazioaren trazabilitatea mugatzen du. Bestalde, generoaren arabera bereizitako lan kategoria bakarrik produkzio eremuko langileena izan da, eta, beraz, gizon langileen datuak eta emakume langileenak baizik ezin alderatu daitezke.

²²⁹ Onnera Group. <https://www.fagorcommercial.com/en/about-us>

²³⁰ EAE-HAAN/AGAP-CAE, INRIG-02228-001, dokumentua.

Lehenago esan bezala, langileen sailkapenean agertzen den genero banaketa bakarra *obrero* eta *obrero* kategorien artekoa da. Beraz, erregistroen irakurketatik ondorio hau atera ahalko litzateke: emakumezkoek *produktzio* langile eremuan soilik izan zuten tokia. Langileei buruzko datuak jasotzeko taulak ez zetozen gizarteko eta ekonomiako errealitatearekin bat. Ikerlan honi dagokionez, ez da jaso testigantza eta datu objektiborik Oñatiko fabriketan 1956 baino lehen emakumeak administrazioko lanpostuetan aritu zirela ziurtatzen duenik. 1956tik aurrera, aldiz, bai, jardun dute emakumeek administrazio lanetan. *Administrari* kategorian kontabilizatuak izan dira, genero banaketa kontuan izan gabe. Adibide bezala, Talleres ULMA S.C.I. kooperatibaren kasua aurkezten da. 1969ra arte, ez da emakume langilerik ageri eskaera-orrietako tauletan. 1961-1967 bitartean, baina, Jesusa Egaña Egaña administrari lanetan aritu zen, eta kooperatibako 12. bazkidea zen²³¹. *Begira* aldizkariako artikuluan esaten denez, emakume gehiago ere aritu ziren han lanean 1960ko hamarkadan. Adibidez, 1964an Pili Saiz Guix bazkide egin zuten, eta 55. irudian ikus daiteke hark egindako ekarpen titulua.



55. irudia. 1964ko ULMA kooperatibako ekarpen titulua den dokumentua. Pili Saiz Guixi esker eskuratua.

Beste datu gehigarri eta adierazgarri bat 1969an ULMAko lankideek Arantzazun ateratako talde argazkiak erakusten duena da: 12 emakume bazkide zeuden han.

Azkenik, datu bilketa honetatik ateratako ondorioetako bat da artxiboetan jasota dagoen baino emakume gehiago aritu zirela herriko fabriketan. Informazio erreala bat jasotzeko helburuz, industria-enpresei eskatu zaizkie langileei buruzko datuak.

8.3 ENPRESEI ESKATUTAKO INFORMAZIOA

Oñatin 2000. urtean aktibo zeuden enpresei eta kooperatibei sortu zirenetik 2000ra arte zituzten langileen datuak eskatu zaizkie. Informazio hori eskatzearen asmoa espediente historikoetako datuak atera ondoren lortu den irudi desenfokatua osatu nahiak ekarri zuen. Alde batetik, enpresek emandako informazioa dokumentu historikoak kontsultatu ondoren lortutakoa baino fidagarriagoa izatea espero zen. Bestalde, informazio horrek XX. mendeko azken bi hamarkadetakoa industria-enpleguaren banaketa erakutsiko luke, dokumentazio historikoaren bidez lortutako datuak 1980ra artekoak dira eta.

Herriko industrian lan egin duten emakumei eta gizonen buruzko generoaren arabera datu bereziak aztertzea funtsezkoa den ustearekin abiatu zen atal hau. Bereizketa horri esker, emakumeen eta gizonen presentziaren zenbaterainokoa jakiteaz gain, lan ereduak, lan hierarkiak eta lan munduaren izaera ere identifikatu daitezke. Ezinbesteko tresna analitikoak dela iritzita, eta helburu horrekin, urteroko langile kopurua generoaren arabera banatuta eta horiek zer eremutan lan egin zuten eskatu zaie enpresei.

Datu eskaerari emandako erantzuna oso eskasa izan da. Enpresa gehienek, aurrez telefonoz kontaktatu ondoren mezu elektronikoa pertsona egokiari helarazteko, ez diote bidalitako mezuari erantzun. Zortzi enpresa harremanetan jarri dira posta elektronikoz edo telefonoz, eskatutako informazioa eman ezina azaltzeko. Administrazio dokumentuak 2000 ezker digitalizatu zituzten, eta eskatutako datuak ez dituzte eskura.

Horrenbestez, jasotako bost enpresen datuak aurkeztuko dira. Dokumentuan ikusiko den bezala, batzuek bazituzten eskatutako datuen erregistroak, eta beste batzuek, berriz, oroitze ariketa bat egin behar izan dute. Asko-asko eskertu da bost enpresa eta kooperatiba horiek egindako ahalegina eta erakutsitako gardentasuna.

LANA Koop. E. (Leintz Aramaioko Nekazarien Alkartea)

1961ean hasi zuen industria-jarduna Oñatin, eta zurezko xafren eta taulen fabrikazioa izan da kooperatibaren jardun nagusia. Gaur egun ere, sorreran bezala, Santxolopetegi auzoan jarraitzen du fabrikak. Kooperatiba sortu zenetik 2000ra arte bertan lanean aritu diren bazkideen zerrenda anonimizatua eman dute, alta- eta baja-datak eta gizona edo emakumezkoa den adierazita. Gizonen kasuan ez bezala, emakumeen kasuan haien lan eremua identifikatu da.

²³¹ ULMA (2020). ULMAko emakumeak 60ko hamarkadan. *Begira*, 48. 20-21. or. <https://begira.ulma.com/eu/hemeroteka/apirila-2020/embed/apirila-2020>



56. irudia. Goribar auzoa erditik zeharkatzen duen errepidearen ezker aldean dago hor Cartonajes Arregi S.A., gaur egun bezala.
Argazkia: Plazaola.

1973-1999 bitartean, kooperatibako emakume bazkideen partaidetza % 7-14 artekoa izan da; batez beste, % 10. Bestalde, 1974-1999 bitartean, 4 emakumek produkzioan egin zuten lan. 1973-1997 tartean, emakume bakarrak jardun zuen administrazio-lanetan, eta 1998. eta 1999. urteetan, berriz, bi emakumek. Adierazgarria da 1973tik aurrera bazkide egindako emakume guztiek 2000. urtera arte jarraitu zutela LANAn. Jasotako informazioa anonimizatua egonda, ezin izan da jakin emakume horiek ezkonduak ziren edo ez; baina, edonola ere, gauza ziurra da aztertutako denbora-tarte guztian lanpostu egonkorak izan zirela.

ULMA Servicios de Manutención Koop. E (ULMA Lifting Solutions)

Kooperatiba 1984an abiatu zen. OINAKAR Fundazioak Loyola txokolate fabrikaren instalazioak erosi eta Mitsubishiarekin akordioa sinatu zuen, haren orga jasotzaileak merkaturatzeko. 1987an, OINAKAR Oñalan taldearen parte izatera pasatu zen (aurrerago ULMA izango dena). Kooperatiba 2010ean bi negoziotan banatu zen: ULMA Servicios de Manutención eta ULMA Manutención.

Jasotako informazioa 1985-1999 bitartekoa da, eta soilik ULMA Servicios de Manutención-eko langileei buruzkoa. Datuak generoaren arabera banatuta eman dituzte, eta hiru lan eremu nagusitan sailkatuta: administrazioa, salmentak eta produkzioa. Emakumeak 1986tik aritu dira kooperatiba horretan lanean. 1990etik aurrera, emakume enplegatuen presentzia % 20 ingurukoa da, eta guztiak administrazio eremuan. Aztertutako urte gehienetan, administrazio lanetan, gizonen kopurua halako bi edo hiru izan da emakumeena.

Cartonajes Arregi S.A.

Goribar auzoan dagoen enpresa horretan uhin kartoia fabrikatzen dute, eta uhin kartoiarekin, berriz, kartoizko kaxak. Industria-erroldean 1959an ageri da *Kartoizko manufakturak* moduan tipifikatuta lehen aldiz.

2000. urtearen aurreko datu digitalizaturik ez dute, eta langile batek oroitze ariketa eginda eman ditu 1996-2000 bitarteko datuak: emakumezko enplegatuak langile guztien % 15 inguru ziren, eta administrazio eremuan zebiltzan denak. 1996 aurretik produkzioan ere aritu ziren lanean emakumezkoak.

Galvanoplastia Arguitu S.L.

1960ko hamarkadaren erdian ekin zion bideari, eta Zubillagan dago enpresa, aurrez *Fanderia* kokatuta egon zen gunean. Metalen tratamendura eta piezei estaldura aplikatzera bideratua du jarduera. Sorreratik 2000ra arte, 12-15 langile izan ditu, batez beste. 1998ra arte langile guztiak gizonezkoak ziren, eta produkzio eremuan aritzen ziren, bi izan ezik. Bi horiek antolakuntza- eta administrari-lanak egiten zituzten.

1998-2000 bitartean, emakume bat aritu zen lanean Arguitun. Enpresan lan egin duen emakume bakarra da, eta bere jardun nagusiak produkzioaren antolakuntza eta kalitatearen kontrola izan dira.

ULMA Polímero Koop. E. (ULMA Architectural Solutions)

ULMA Construcción-en hormigoi polimeroa ekoizteko aukera aztertu ondoren, 1990ean negozio berri bat sortu zuten material berritzaile horrekin eraikuntzarako elementuak fabrikatzeko: drainatzekoak eta aurrefabrikatuak. Negozioa abiatu berritan ULMAren sorrerako eraikinean egon ziren, 2001ean Zubillagako eraikina izan zuten arte.

1994-2000 bitartean, 3 emakume aritu ziren lanean han: 1994tik aurrera, pertsonal saileko arduraduna; 1996an hasita, administrari bat, eta jardun teknikoan aritu zen beste emakume bat (horren hasiera-data ez da jaso). Kooperatiba horretan sartu ziren hiru emakumeetik bik garai hartarako oso arlo desberdin eta aurreratuetan egin zuten lan. Hainbat arrazoi daude 1994ra arte enplegu banaketaren aldetik izandako dinamika aldatzeko. Alde batetik, kooperatiba berria da, eta ez dauka aurreko hamarkadetan nagusi izandako hierarkia-inertziarik. Bestalde, nabarmendu behar da garatu beharreko produktua material berritzaile batez fabrikatuta zegoela, eta teknologia aurreratuetan nahiz ezagutza teknikoetan trebatutako langileak behar zituela kooperatibak, produktua eta prozesaketa diseinatzeko.

Zenbat emakumek egin dute lan Oñatiko fabriketan?

Galdera planteatzean, jakina zen ezin izango zela erantzun neurgarririk eman. Zertarako, hortaz? Lehenik eta behin, herriko emakume enplegatuek izan duten tokiaz hausnartzera bultzatzeko galdera erretoriko gisa planteatu da. Bigarrenik, informazio historiko eta gaurko-

tuagoa bilatzea bultzatu nahi du, emakumeen lan indarraren irudia osatzeko, nahiz eta lortutakoa zehatza ez izan. Azkenik, fabrikako zein arlotan lan egiten zuten identifikatu nahi izan da.

Gutxienak ziren kasu batzuk izan ezik, XX. mendeko azken hamarkadara arte, identifikatutako emakume gehienek ekoizpen eta administrazio eremuan jardun dute. Produkzio eremuko lana garaytarren pospolo fabrika hasi zenetik egin dute, eta orokorrean normaltasunez ikusi da ezkondu aurretik emakumeek produkzioan lan egitea, bonboiak eta zotzak kaxetan sartzen, aterkien egiturak muntatzen eta gero josten, pilak eta plantxak muntatzen, etab.

Txokolate fabriketako langilerian (Maiztegi eta Zahorren kasua), aterkiak produktu bezala merkaturatzen dituzten enpresetan (Arrazola y Ezpeleta, eta Ezpeleta), zotz fabrian (Lino Urcelay), pilen ekoizpenean azken urtean izan ezik (CEGASA), bai eta sarrailagintzan ere (Cerrajería Uribarri), emakumeen kontzentrazioa askoz handiagoa izan da. Aipatutako sektore eta enpresa gehienetan, emakume kopurua bikoitza izan da erregistratutako urte gehienetan. Gizonezkoak gehiengo nagusia izan eta emakumeek guztiz bigarren mailako presentzia izan duten kasuak metalmekanikaren sektorean jazo direla erakutsi dute bildutako datuek. Erreminta-ekoizleen kasuan (Altuna, eta Mugarza, Ugarte y Cía) emakume langileen ehunekoa ez da 10era heltzen urte gehienetan. Arrueren kasuan ez dago produkzio-ko emakume langilerik. Makinaria-ekoizleen kasuan ere antzeko joera ikusi da: ULMA ez da identifikatu emakumerik produkzioan lanean.

Enpresetatik jasotako informazioak ere bat egiten du erregistroekin. Produkzio eremuko emakumezko langileen presentzia minimoa izan da bost enpresatik lautuan, eta kasu batean, hutsa.

Enpresek helarazi duten informazioak, alabaina, administrazio eremuko lan banaketaz informazio oso baliagarria eman du. Erregistroetan administrari kategoria genero maskulinoan ageri zenez, ezin izan da bertan erregistratutako genero banaketa aztertu. Zahorrenko administrazio eremuko langileen argazkia ikusita (49. irudia), susma daiteke eremu horretan gehiengo emakumeak zirela, baina ondorioak ateratzea ezinezkoa da, zehaztazun faltarengatik. Enpresen datuek erakutsi dute administrazio eremuan izan dutela emakumeek presentzia handiena. Gizonezkoek ere izan dute hor presentzia, baina gutxiengoa izatera pasatu dira denborak aurrera egin ahala. LANA eta ULMA Servicios de Manutención enpresen kasuan, administrazio eremuan emakumeak bazirela nabari da, baina ez da jaso

informaziorik gizonezkoak ere bazirela adierazten duenik, eta, beraz, ezinezkoa da genero alderaketa egitea.

Administrazio eremua emakumeen lan egiteko espazio normalizatutzat hartu da hamarkada luzez. Ikerlan honetan jasotako testigantzetako bat 1950eko hamarkadaren erdi aldean fabrika bateko bulegoan aritutako emakume batena da. Garai hartan ohikoa zen 15-16 urtera arte ikasketak egin edo Batxilergoa ikasi ahal zuten neskek (gutxiengo batek) industriako bulegoetara bideratzea esperientzia profesionala. Administrazio eremuko lanpostuez hitz egiten denean, ez gara arduradunez edo zuzendarietz ari, mekanografoez, idazkarietz, fakturak egiteaz eta hierarkia-mailan oinarritutakoak diren bestelako administrazio lanez baizik.

HUTSUNEA III: genero banaketa horizontala.

HUTSUNEA IV: erregistroetako datu eskaeren lan sailkapenetan produkzioko langileetara mugatuta.

HUTSUNEA V: emakumezkoen lanbideen izendapen mugatua.

9. HERRIKO FABRIKETAN LAN EGIN DUTEN EMAKUMEEN TESTIGANTZAK

Oñatiko fabriketan lan egin duten emakumeen ahotsak entzuteko asmoz, galdetegi bati erantzuteko eskatu zaie, hobeto ezagutzeko nor diren, nola bizi ziren eta fabrian zer eta nolako lanak egiten zituzten. Erantzun duten galdetegia zazpi galdera-bloke hauetan banatuta dago: *Jatorria*, *Enplegua fabrian*, *Fabrikaz kanpoko ardurak*, *Fabrikako lan ikusezinak*, *Fabrikako lana*, *Harremanak* eta *Eremu sentzoriala*. Lehenbizi, *Jatorria* atalean, emakume bakoitzak fabrian lanean hasi aurrerik bizi izandako testuingurua ezagutu nahi da; *Enplegua fabrian* izenekoan, datu objektiboz neurtu nahi da enpleguaren hasiera, iraupena eta ezkontzeko enplegua utzi ote zen; *Fabrikaz kanpoko ardurak* atalean, emakumeak egunerokotasunean enpleguaz gain hartzen zituen ardurak aztertzen dira; *Fabrikako lan ikusezinak* izenekoan, produktibotzat hartzen ez diren lanak identifikatuko dira; *Fabrikako lana* atalean, nola egiten zuen lan aztertuko da; *Harremanak* izenekoak, emakumeak fabrikako inguruarekin zer modutan erlazionatzen zen izango du aztergai, eta azkenik, *Eremu sentzoriala* atalean, lanean zegoela bizi izandako pertzepzioak eta emozioak aztertuko dira.

50 emakume elkarrizketatu dira. Herriko emakumeen industria lan indarrarekiko proportzionala den testigantza banaketa jasotzeko asmoz, fabriken tamainaren eta bertan enplegatutako emakumeen bolumenaren arabera emakume kopurua elkarrizketatzeko saiakera egin da. Bederatzi emakumek bi fabrikatan egin dute lan.

Fabrian lan egindako emakumeen lan eremu nagusiak sailkatzerakoan, denbora gehien aritu diren eremua hartu da kontuan. Batzuk eremu berean ari dira beti, eta beste batzuk, aldiz, batean baino gehiagotan. Lan eremu nagusien sailkapena honako hau da: 35 emakume produkzioan aritu dira; 11, administrazioan; bi, garbiketa-lanetan; bat, produktuen garapenean, eta beste bat, bulego teknikoan. 50 elkarrizketatutik hiru emakume zuzendaritza lanpostuetan aritu dira eta beste hiru ere eremu edo sail bateko arduradun mailan jardun dute. Gainerako emakume elkarrizketatuek ez dute langile-taldearen ardurarik izan beren lan-ibilbidean.

Parte hartu duten lau emakumek lanerako ezintasuna izan dute lan ibilbideko uneren batean.

Parte hartzaile horiek, guztira, 25 fabrikatan egin dute lan. Hauek dira: Arguitu, Behar Zana, Betik, CEGASA, Cerrajería Uribarri, Chocolates Loyola, Chocolates Maiztegui, Chocolates Orbea, Ezpeleta, Fagor Industrial, Fagor Mueble, Hijos de Juan de Garay, Lino Urcelay, Nemesio Zubia, NIK, Nueva Paragüería Oñati, Ogizun, Onraitia, Solaun y Rubio, Staedler, ULMA Construcción, ULMA Forja, ULMA Packaging, ULMA Servicios de Mantenimiento eta Zahor.

Elkarrizketatutako emakumeen anonimotasuna bermatzeko, haien ekarpenak zenbakiz izendatuko dira.

9.1 JATORRIA

Jaso diren erantzunetan, alde batetik, jatorriari buruzko informazio objektiboa eta alderdi subjektiboa aztertuko dira; beste alde batetik, egindako ikasketak, eta, azkenik, zeharkako bestelako alderdi batzuk.

Oñatiko fabriketan emakumeen presentzia mende bat baino gehiagokoa da, eta horren isla da parte hartu duten emakumeen jaiotze urteen tartea: 1930ekoa da zaharrena, eta 1971koa gazteena. Galdetegiari erantzun dioten 50 emakumeetatik 36 Oñatin jaiotak dira. Inguruko herrietan jaiotak direnetik lau dira. Beste probintziaren batekoak direnetatik bat Nafarroan jaiotak dira; bost, Cáceresen; bi, Ávilan; bat, Bartzelonan, eta beste bat, A Coruña. Lanean hasi zirenean jatorriko bizilekua Oñati ez zutenen kasuan, bailarako batek izan ezik, beste guztiek Oñati beren bizileku bihurtu zuten.

24 emakumek gazteleraz erantzun diote galdetegiari. Horietatik 11 euskal hiztunak dira. Bi arrazoiengatik erantzun dute gazteleraz. Alde batetik, elkarrizketa batzuk taldean egin direlako eta, euskaraz partaide guztiek ez zekitelako eta, gazteleraz egitea erabaki zelako. Bestetik, emakume batzuk seguruago sentitzen direlako gazteleraz irakurtzen, nahiz eta eguneroko hizkuntza euskara duten.

Testuinguru sozioekonomikora hurbiltzeko, parte hartzaileen familien bizimodua aztertu da. Elkarrizketatu guztietatik 44ren gurasoak bizi izan dira Oñatin, eta

horien lanak ezagutu nahi izan dira. Herrian jaioak diren emakumeetatik 21 kalean jaio ziren, eta 15, baserrian. Baserrian jaio eta bizi izan diren familia horietatik 7k baserriko lanetatik atera dute bizimodua, eta beste 29 familiak, berriz, aitaren industriako lanetik eta amak baserriko lanekin ez ezik garbitzaile lanetan, josten eta apopiloak hartuta irabazitakotik. Ezkondu ondoren, bi elkarriketaturen amak enplegatuta egon ziren; elkarriketatuko baten amak denda bat ireki zuen, eta zortzi ama etxeoandre ziren. Bi aita eraikuntzako gremioetan egiten zuten lan; beste bi *karreteroak* ziren, eta idiekin pinuak eta bestelakoak garraiatzen aritzen ziren; beste bi aita banketxeko langileak ziren; bat errepide lanetatik bizi zen; beste bat sakristaua zen, eta beste bat, bulegoko langilea.

Mugikortasun esperientziak 16 emakumek izan dituzte. Oñatitik kanpo jaio eta Oñatin bizi izan direnak 13 dira, eta herrian jaiotako 3 emakume bizi izan dira Oñatitik kanpo, denboraldi batez. Bizilekuz aldatzeko modu eta arrazoi askotarikoak azaldu dituzte: batzuk gurasoekin umetan etorri ziren Oñatira; beste batzuk gaztetan lanera etorri, eta gero gurasoek ere Oñatin bizitzen bukatu zuten, etab. Hala gertatu zitzaion elkarriketatu bati. Aurrez Oñatira bizitzera etorritako izeba-osaba batzuk bisitan joan zitzaizkien udako oporretan, eta berak ez zuenez nekazaritzan lan egin nahi, Oñatira etorri zen izeba-osabekin. Hurrengo urtean, oporretan jaioterrira joan zenean:

«Decidieron venirse todos a Oñati; porque en un año trabajando en la fábrica gané más que toda mi familia de la labranza. Tuvimos unas vecinas muy buenas y cuando llegamos, nos ayudaron muchísimo». (Parte hartzailea 5)

Oñatin demografiak industriaren ondorioz izandako gorakadari buruz, azaldu dute hori 1960ko hamarkadan gertatu zela gehienbat. 1950eko hamarkadan lan egindakoek adierazi dutenez, beraiek aritutako fabriketan emakume langile guztiak oñatiarrak ziren. Parte hartzaileei galdetu zaie ea bazegoen desberdintasunik lanpostu eta lanetan langilearen jatorriaren arabera. 50 emakumeek ezetz erantzun dute aho batez.

Ikasketak

Emakume gehienek oinarritzko mailako ikasketak dituzte. Bi emakumek zortzi urterekin utzi zituzten ikasketak: batek, aitaren lanaren mugikortasunarengatik, eta udan klase partikularretara bidaltzen zuten galdutakoa erreuperatzera; besteak, berriz, laborantzan lan egin behar zuelako. 26 emakumek oinarritzko ikasketak

egin zituzten 14-16 urtera arte. Bi emakumek oinarritzko ikasketak egin, eta kontabilitateko eta idazkaritzako ikastaroak hasi zituzten, baina ez zituzten bukatu. Zazpi emakumek Batxilergoa hasi zuten, eta horietatik hiruk bukatu zuten. Zortzi emakumek Lanbide Heziketa egin zuten: zazpik, administrazio arlokoa, eta batek, Delineazioa. Lau emakumek unibertsitate mailako ikasketak hasi eta bukatu zituzten: bi Goi Mailako Ingeniariak dira; bat, Merkataritza Arloko Irakasle diplomaduna, eta beste bat, Kimikan diplomaduna. Beste emakume batek goi mailako ikasketak hasi zituen, baina utzi egin zituen lanean hasteko. 13 emakumek jaso dute industriako lanera bideratutako prestakuntza espezializatua.

Alderdi subjektiboa aztertzean, hezkuntza-esperientziaren pertzepzioa negatiboa izan da orokorrean. Pertzepzio positiboa dutenen gutxienei galdetu zaienean zer irakasgai zuten gustuko, 15 elkarriketatuk hauek aipatu dituzte: Matematika, Marrazketa, Fisika, Ingelesa, Mekanografia, Estatistika eta Geografia, besteak beste.

Azaldu diren hezkuntza-zailtasunak arrazoi ekonomikoekin lotuta zeuden. Oinarritzko ikasketak egiten ari zirenean landa-eremuan bizi ziren elkarriketatuek azaldu dutenez, ikasketei baino askoz lehentasun handiagoa ematen zitzaion baserriko lanei, eta, beraz, baserriko lanak zituztenean ikasle batzuk ez ziren eskolara joaten. Elkarriketatutako batek, ordea, ez zuen ia inoiz eskolan huts egiten, nahiz eta baserriko lanak egin behar izan.

Bestalde, gehienek adierazi dute faktore ekonomikoarekin lotutako beste oztopo edo zailtasun bat: lanean hasi beharra eta familiarekiko konpromisoa. Kasu gehienetan, ikasketak eten egiten ziren etxera soldata eramateko beharra zegoelako. Nahiz eta emakume gehienek ikasketak pena handirik gabe utzi izan lanean hasteko, baziren bestelakoak ere, ikasle onak zirenak eta irakasleek ikastera animatzen zituztenak, baina ezin zutenak:

«En el colegio, una monja le dijo a mi madre que era buena estudiante y los dos últimos años (primero y segundo de bachiller) estudié con los libros facilitados por una monja, porque mi madre con varios hijos menores y la paga de viudedad, no podía asumir mis estudios». (Parte hartzailea 4).

Beste emakume batek adierazi du anai-arreba asko zi-rela eta etxean ez zegoela dirurik kanpora ikastera joateko. Inguruan espezializazioko hezkuntza-aukera bakarrak Oñatiko ETEO, eta Arrasateko eta Oñatiko Eskola Profesionala ziren, eta berak ETEOn ikasi zuen. 1963ko azaroaren hasieran Administrazio ikasketak hasi ziren

bertain²³². Arrasaten 1958-59 ikasturtean abiatu zen Delineazio Industrialeko ikasle emakumezkoen lehen promozioa, eta 1968/69 ikasturtean matrikulatu ziren Ingeniaritza Tekniko Elektronikoko lehenengo bi ikasle emakumezkoak (85 matrikulatutik).

Kasu bakar batean adierazi da alabaren ikasketei ez eta semearenei lehentasuna ematea eta horretarako baliabideak jartzea.

«Nire anaiak Medikuntza egin bihar zebeñ bai ala bai, eta familiako erabakia izan zan nik erdipurdiko zerbait egin bihar nebela, ze ezin genuen biok goi mailako ikasketak egin. Nik Magisteritza ikasi nahi nuen, Donostiara joan behar nintzen eta ez zegoen dirurik». (Parte hartzailea 7)

Elkarriketatu horren kasuan, genero desberdinkeria transmititzeko espazioa izan zen familia, eta semeentzat eta alabentzat ikasketa eta bizitzatik espero izateko aukera desberdinak proiektatu zituen²³³.

9.2 ENPLEGUA FABRIKAN

Atal honen barruan enpleguari buruzko informazioa aztertzen da. Lanean zenbat urterekin hasi ziren, fabrika lan egitearen arrazoiak, nola joaten ziren lanera eta ez-konduetako emakumeei lana uztearen gainean galdetu zaie.

Enpleguaren hasiera

Industrian lanean hasi zireneko adin tartea 14-46 urte da, baina gehienak oso gazte hasi ziren: elkarriketatuen % 40, 14 eta 15 urterekin, ikasketak bukatzearekin batera. Arrazoi ekonomikoek eta familiako gorabeherak bultzatu zituzten emakumeak hain gazte fabriketan lanean hastera. Kasu askotan, lan hori familiako behar ekonomikoak asetzeko zen, eta ez emakumeek autonomia irabazteko, fabrikako enpleguari heldu zioten momentuan behintzat. Familia ugari alabak dira elkarriketatutako gehienak, eta denek ez zituzten behar berberak. Kasu batean zer jan izateko eta amari etxea erosteko egin zuten lan anai-arrebek, baserrian erreteroa zire-

nez amak etxe propioa izan zezan, alargundu egin zen eta.

Bi nagusienek 43 eta 46 urte zituzten elkarriketarekin lotutako lanean hasi zirenean, eta garbiketa-lanetan aritu direnak dira. Bien arrazoietakoa bat erretirorako kointatzea zen. Lanean bizitzako laugarren hamarkadan hasitako emakumeei buruz hauxe adierazi zuen oso gazte hasitako elkarriketatutako batek: bere ustez, industriarako oso lan indar baliotsua dagoela 40-45 urteko emakumeetan, eta ez direla kontuan hartzen; pertsona heldu eta konpromiso maila handikoak direla gehienak, eta 20-25 urtean errendimendu altua eman dezaketela.

Ezkondutako ondoren industrian lanean hasi zen emakume batek bere soldata senarraren osagarritzat jotzen du, seme-alaben ikasketak ordaintzeko:

«Pentsatu geben ondo etorriko zala diru pixkat irabaztia umien estudixuentzako». (Parte hartzailea 18)

Hasiera batean, industrian lanean hasi ziren emakume guztiak ez dira oso kontziente izan norberaren autonomia ekonomikoaz. 15 emakume soldata familian entregatzen zuten, eta, gero, beren gastuetarako behar zutena familiak ematen zien. Ezkontzeko ordua hurbildu ahala, emakume batzuk hasi ziren hausnartzen zer nolako autonomia ekonomikoa eman ahalko liekeen fabrikako lanak ezkontu ostean.

1950 eta 60ko hamarkadetan eta 70ekoaren hasieran, industrian lan eskaintza zabala eta langile beharra zegoen. 1954an, Garay enpresa langile premian zegoen, eta enpresako ordezkari bat Araotzeko Mantxuena tabernan batzartu zen auzotarrekin, lan eskaintza azaldu eta fabrikako enpleguan interesa zutenekin hitz egiteko. Hiru emakume eta 20 gizon batu ziren bertan, interesa zutela-eta. Elkarriketatutako baten anaia zen haietako bat; anaiarekin batera bera ere lanera joateko esan zioten, eta horrela hasi zen Garayn lanean. 1963an, berriz, enpresa hura bera urrunago joan zen, eta, emakumezko langileak behar zituelako mezua Macoteran (Salamanka) zabaltu ondoren, 16 edo 17 emakume etorri ziren Oñatira lanera²³⁴. Testuinguru hari buruz, elkarriketatutako emakume guztiek zera azpimarratu dute, industrian lanean hasi ziren garaian denentzat zegoela lana, eta asko gainera. Fabrikako lanetik kanpo, aukera bakarrak neskame joatea edo baserrian lan egitea ziren, eta industriako lana erakargarriagoa zen: lan baldintzak hobeak ziren (soldata eta ordutegia, nahiz eta garai hartan larunbatetan ere lan egiten zen), eta adin

²³² Azpiazu Elorza, J.A. (2010). Historiatik etorkizunera begira. Mondragon Unibertsitatea. 43.or.

²³³ Marco Gracia, F.J., eta Beltrán Tapia, F.J. (2021). Son Preference, Gender Discrimination, and Missing Girls in Rural Spain, 1750-1950. *Population and Development Review*, 47 (3), 665-689. 671.or.

²³⁴ Gurrutxaga Uranga, A. (2019). Enarak. Jerardo Elortza bilduma. Oñatiko Udala. 113.or.



57. irudia. Kontxi Fernández Rodríguez LENNIZ Kop. E. (Fagor Mueble) sukaldeko altzairuen fabrikari lanean.
Argazkia: Gari Garaialde. ARGIA Fototeka²³⁵.

beretsuko jende askorekin harremana izateko espazio sozial ere bazen, bai lagunak egiteko eta bai sareak sortzeko. Askok adierazi dute gazte zirenean afariak antolatu, inguruko herri eta auzoetako erromerietarako geratu, eta bestelako hainbat plan egiten zituztela fabrikako lagunaren artean. Horren erakusgarri da, adibidez, elkarriketatutako lau emakume fabrikari ezagutu zutela gerora senar edo bikotekide izango zutena.

Oso elkarriketatu gutxi ibili ziren aukeratzen lanean non hasi. Gehienei familiako norbaitek edo ezagunen batek komentatu zieten lanerako pertsonak behar zituztela fabrika jakin batean, eta, bertara inguratuta, hurrengo egunean edo astebeteren barruan lanean hasi ziren. Behar edo interes zehatz batek bultzatuta non lan egin aukeratu zuten 16 emakume dira horretan azpimarratzekoak. Horietako zazpi familiako bazkide zuten enpresetan hasi ziren lanean. Hiru emakume lanean zebiltzan enpresa utzi zuten, kooperatiban lan egitea onuragarriagoa iruditzen zitzaielako. Ikasketa maila

altuena duten emakumeek proiektu profesionalarengatik aukeratu zuten beraien bizitza profesionala markatu duen fabrika. Bi emakume oinez ibiltzeko mugikortasun arazoak dituzte, baina esku arinak, eta esku trebeak behar dituzten lantegietan enplegatu ziren. Emakume bat lansari handiena ordaintzen zuen enpresan enplegatu zen, familiak diru premia zeukala-eta. Azkenik, Oñatiko fabrika batean lan egiten hasitako emakume baten kasua, ama izandakoan Arrasatetik Oñatiko fabrika batera lanera gerturatu zen:

«Arrasaten neuen lanian eta Oñatira etorri nitzan umia euki ondoren, semian eskolatik gertuau egon eta bertoko jaiegunekin kointziditzeko». (Parte hartzailea 12)

Emakumeen fabrikari lanean hainbat faktore sozial eta kulturelek izan dute eragina XX. mendean zehar. Gizon edo emakume izateak eragin nabarmena du lan esperientzian, eta genero estereotipoak direla-eta²³⁶. Horren adibide argi bat da elkarriketatutako emakume bati

²³⁵ ARGIA Fototeka. https://fototeka.argia.eus/media/argiafototeka/images/7/1/4/3532_ca_object_representations_media_71494_original.jpg. Lizentzia: CC BY-NC-ND

²³⁶ Teronpi, J., & Konwar, J. (2025). Investigating workplace stigma and its consequences for women's careers. *International Journal of Economic Perspectives*, 19(S1), 82–96. 83.or.

izeba batek esandakoa, jakin zuenean fabrikan haste-
koa zela lanean:

«—Baina, zuk fabrikara fan bihar dozu lanera? Hemen
lehenguak be ezta fan!

—Ba ni banoia! —esan notzan, eta fabrikan hasi nitzan
lanian. Orduan pilo bat emakume hasi ginan palillutan,
txokolateixatan....». (Parte hartzailea 1)

Parte hartzaileak azaldutakoaren ildo beretik, Zubillaga-
ko neska gazte bati aitak ez zion utzi Altunanean lanean
hasten, «lan hori ez zela neskontzako esanez»¹⁷⁴.

Fabrikara joan-etorriak

Behin fabrikan lanean hasi ondoren, eta elkarrizketa-
tuen egunerokotasuna ezagutu nahian, galdetu zaie
ea lanera oinez joaten ziren edo, aitzitik, garraiobide-
ren bat erabili ohi zuten. 22 emakume oinez joan ohi
ziren fabrikara. Horietatik lauk jatorriko baserri auzotik
kalera jaitsi behar izan zuten lanera joan ahal izateko,
laneko ordutegiarekin bat zetorren garraio modurik ez
zutelako. Zortzi emakumek gutxienez bi modutan egin
izan dituzte fabrikarako joan-etorriak: oinez eta bizikle-
taz, bizikletaz eta motorrez, eta bizikletaz eta autoz. 10
dira lanera autoz joan izan direnak eta auto propioa du-
tenak.

Gidabaimenei dagokienez, 2000. urtearen aurretik ge-
nero arrakala nabarmena ageri da estatu mailako zir-
kulazio baimen berrien jaulkipen kuotan. 1962an, Es-
painiako estatuan emanda zeuden zirkulazio baimen
guztien % 6,1 ziren emakumezkoek ateratakoak²³⁷.
1970eko hamarkadaren erdira arte emakumeek, gida-
baimena edo pasaporte ateratzeko, Zerbitzu Sozialen
Txartela behar zuten. Txartel hori lortzeko, orduko sis-
tema soziopolitikoaren gaineko galdera batzuei erant-
zunez azterketa moduko bat gaingitu behar zuten,
elkarrizketatuek adierazi duten bezala. Hurrengo bete-
beharra *canastilla* bat aurkeztea zen; elkarrizketatuen
kasuan, Bergaran edo Donostian. Haur jaioberrientza-
ko arropa-eta ziren *canastilla*: jertsea, manta, txapela,
faldoia... Horiek guztiek emakume bakoitzak eskuz egi-
nak izan behar zuten, ustez, baina elkarrizketatu ba-
tzuek adierazi dutenez, beraiek aurkeztutakoak plazan
edo Kirrinenean erosi zituzten. Urteek aurrera egin aha-
la, emakumeen zirkulazio baimenen kuotak gorakada

nabarmena izan zuen: 1990. urtean gidari berrien B-1
baimenen % 50 izatera heltzeraino²³⁸.

Lantegiek antolatutako garraio kolektiboa sei emaku-
mek erabili izan dute: lauk autobusa, batek tailerreko
furgoneta, eta beste batek, 1954-58 bitartean, kamioi
egokitua Araotz-Garay ibilbidea egiteko.

«Kamioi handi bat jarri eben Garaynera fateko. Oso ka-
bina handixa zakan. 5 emakume eta txoferra faten gi-
nan kabinan eta atzeko kajan, bankua jarritta, 20-25 gi-
zon. Araotzetik Garayra 20-25 minutu egiten genittuan,
baina Arantzazun arei edo pinuen kamionekin atzera-
penak ematen zian, eta edurra eta izotzarekin bardin.
07:30 urteten geben Araotzetik 08:00etan sartzeko». (Parte hartzailea 3)

Elkarrizketatutako emakume bakarrak erabili izan ohi
du garraio publikoa etxetik lanerako joan-etorriak egi-
teko. Trenez joaten zen Zubillagara:

«Trenak 5-10 minutu egiten zuen. Egurrezko asientoak
zittuan gu jesartzen ginanak. Asteroko billetea erosten
geben eta pikak pikatzen zigun bertan. Merkea zan tre-
na, ez jakon asko igartzen soldatatik kenduta». (Parte
hartzailea 15)



58. irudia. Trenbidea Madalena auzoa zeharkatzen.
Argazkia: Plazaola.

²³⁷ Trafiko Buruzagitza Nagusia (JCT) (1962). Anuario 1962. Herri-
zaintza Ministerioa. 137. or.

²³⁸ Trafiko Zuzendaritza Nagusia (DGT) (1990). Boletín informati-
vo. Anuario estadístico general de la Dirección General de Tráfi-
co 1990. Barne Ministerioa. 191. or.

Ezkundu ostean enplegua uztea

Fabrikako enpleguan eragina zuten faktore sozial eta kulturekin bukatzeko, aipatzekoa da 1970eko hamarkadaren erdira arte zabaldutako genero arauak emakumeen lana aldi baterako kontutzat hartzen zuela. Urte luzez, emakumeek ezkontutakoan arretoa osoa etxean jartzea eta lanpostuetatik aldentzea izan zen joera: emakume ezkontuen enplegua debekatzeko senarraren diru sarrerara jakin batetik gora. 1961eko uztailaren 22ko Legeak²³⁹ ezkontu ondoren lanean jarraitzea baimendu zuen, beste neurri batzuen artean. Legea ezarri ondoren, hamarkada bat pasatu behar izan zen aurreko urteetako joera aldatzeko.

«En la familia se daba por hecho por la costumbre. Por una parte me dio pena porque sabía que no iba a ganar el sueldo». (Parte hartzailea 5)

Ezkundu ostean lana utzi zuten emakume elkarrizketatuak 1930etik 1950era bitartean jaiotako dira, eta normaltzat zeukaten joera hori. Emakume batek adierazitakoak garbi erakusten du sistemak emakumea etxean egotera bideratzen zuela eta, kasu batzuetan, gizona ere zalantza egitera bultzatzen zuela emaztea ez bazen etxean geratzen zaintza lanez soilik arduratzen:

«Nire ahizpa nagusixak ezkontu ostian fabrikako lana utzi eben eta gero umezain hasi zan, eta koinatuari esaten etzen: Ze, ez dok irabazten diru nahikua ala, andria umezain ibiltzeko?» (Parte hartzailea 8)

Ezkundu ostean lana utzi zuten 11 parte hartzailek, eta horietatik lauk jaso zuten dotea. Batek adierazi du 17.500 pezetako dotea jaso zuela 1963an. Horien ondoren jaiotako beste elkarrizketatu batzuek komentatu dute oso gazte sartu zirela lan mundura eta hasiera batean ezkontza urrun ikusten zutela. Denbora aurrera joan ahala, lan arloko emakumeen eskubideak zabalitzen ari zirela konturatu ziren. Emakumeetako batek esker onez hitz egin du lankideez:

«Fui de las primeras que después de casarme me quedé trabajando. Tuve la suerte de que en la fábrica había un grupo de mujeres más avanzado de lo común en cuanto a ideología política, derechos, etc. y aprendí de ellas». (Parte hartzailea 16)

1970eko hamarkadaren erdialdean ezkontutako emakume kooperatibista batek lanean zergatik jarraitu ahal izan zuen azaldu zuen:

«Aurretik lanian zebiltzan emakumeek utzi egin bihar izaten eben lana, baina Junta General baten ondoren erabaki zan emakumeek ezkontu ostian be lanian jarraitu ahal zebela, eta ni horren ondoren ezkontu nintzanez, jarraitu egin ahal ixan nauen lanian». (Parte hartzailea 1)

ULMAN lan egin duen elkarrizketatu batek adierazi duenez, 1974an jarraitu ahal izan zuen lanean lehen emakume ezkontuak. Urte batzuk zebiltzan eskubide hori lortu nahian; Fagor Mueblen ere onartu zuten, eta, gero, ULMAn. Ezkontu ondoren lanean jarraitzeko eskubidea normaltasunez aplikatu zen 1980ko hamarkadan eta hurrengoetan.

«Ni sartu nintzan garaixan, normalian urteten eben dotiakin. Jente askok urten eben dotia hartuta, baina ni ezkontu nintzanerako normalizatuta euen ezkontu ostian lanian jarraitteia». (Parte hartzailea 2)

Elkarrizketatutako emakume batek uriartetarren *Pol-tseixan* egin zuen lan 1955tik aurrera, eta 7 enplegatutik 3 emakume ezkontuak omen ziren han. Bi kontu deigarri daude hor. Lehena, garai hartan ezohikoa zela emakume ezkontuek fabrikari lanean jarraitzea. Bigarrena, emakume batek kudeatzen zuela negozioa. Izan ere, *Pol-tseixa* Sebastiana Uriarte Irizarrek eramaten zuen, eta badirudi nagusia emakumea izateak ere baduela zerikusia.

Azkenik, fabrikari enplegatuta egon diren denboran enpresek Gizarte Segurantzaren zenbat kotizatu dieten galdetu zaie elkarrizketatuei. 50 emakumetik 46ri lanean emandako denbora guztia kotizatu diete. Produktzio eremuan lan egindako bi emakumeren kasuan, bati lehen hilabetea ez zioten kotizatu, eta besteari, lehen hiru hilabeteak. Beste bi emakumeren kasuan, ikasi eta lan egiten zuten aldi berean. Batek goizez ikasi eta arratsaldean lan egiten zuen bulegoan, eta ikasketak bukatu eta lan kontratu mugagabea egin arte ez zioten kotizatu: bi urte egon zen kotizatu gabe. Beste emakumea hiru urtez aritu zen fabrika bateko administrazioan lanean. Lan ardurak eta orduak normal betetzen zituen, lankideek bezala, baina enpresak ez zizkion hiru urte horiek kotizatu.

²³⁹ Valiente Fernández, C. (1998). La liberalización del régimen franquista: la Ley de 22 de julio de 1961 sobre los derechos políticos, profesionales y de trabajo de la mujer. *Historia Social*, 31 (1998), 45-65. 48.or.



59. irudia. 1961ean uriaztararren Poltseixan ekoiztutako poltsa batzuk. Argazkiak: Plazaola.

9.3 FABRIKAZ KANPOKO LAN ETA ARDURAK

Emakumeen lanaren analisia fabrika- eta industria-produkzioa mugatuta ez litzateke errealitatearen irudi osoa lortuko. Emakume enplegatuen esperientzia bere osotasunean ulertzeko, ezinbestekoa da fabrikatik kanpo, etxean, familian eta komunitatean ere bete dituzten lanei eta ardurei erreparatzea. Erantzukizun horiek emakumeen bizitzaren zati garrantzitsua dira, eta eragin handia dute beren ibilbide profesional eta pertsonalean. Egoera horren aurrean teoria feministak *lanaldi hirukoitza* kontzeptua sortu zuen. Eguneroko bizitzarekin lotuta dago kontzeptua, eta egunerokotasunean gurutzatzen diren hiru dimentsioren artikulazioan oinarritzen da: etxeko lana, lan ordaindua eta parte hartze soziopolitikoa²⁴⁰. Fabrikaz kanpoko lanak eta ardurak aztertzeak begirada industria-ekoizpenetik altxatu eta eguneroko bizitzaren konplexutasunean kokatzera eramaten du. Horretarako, lan produktibo, lan erreproduktibo eta gainontzeko arduren analisi bat aurkeztuko da. Fabriketako lanaldi motak eta soldatapeko enpleguari gehitutako lanak eta erantzukizunak aztertuko dira.

Lanaldi motei dagokienez, elkarriketatutako 50 emakumetik 31k lanaldi zatituan egin dute lan industrian; 14 emakumek, berriz, beti erreleboan; bik, enpresaren eta lanpostuaren arabera, lanaldi zatituan eta erreleboan, txandakako ordutegitan; emakume batek, sei edo zazpi orduko lanaldiarekin; batek, bost orduko lanaldiarekin, eta, azkenik, batek, lanaldi erdiko kontratuarekin. Elkarriketatutako emakume gehienek etxean egin dituzte otorduak, eta bik bakarrik egin dituzte otordu guztiak fabrikako jantokian.

Jaso diren testigantzak oso denbora-tarte zabalekoak dira, 1950eko hamarkadaren erdialdetik 2000. urtera artekoak, eta denbora horretan guztian elkarriketatuek zenbait fase izan dituzte bizitzan. Hori dela-eta, egokitzen jo da bizipenak bi etapatan bereiztea, inflexio puntutzat familiako etxetik emantzipatzeko momentua hartuta. Kasu askotan, ezkontzarekin eta amatasunarekin bat dator inflexio puntua. Ezkondu aurretik fabriketan lan egin zuten 47 parte hartzaileetatik 32k etxeko lanetan laguntzen zuten. Hiruk, familiarekin lotutako lanez gain, aparteko lan karga zuten apopilotza zela-eta: janaria prestatzea eta arropak garbitzea nagusiki. Garai batean ez zegoen garbigailurik, ezta ur berorik ere, eta, arropa garbitzeko, gaur egun baino askoz ere denbora gehiago behar zen. Adibide gisa, hona hemen arropetako orbanak kentzeko erabiltzen zuten teknika:

«Mantxak kentzeko, bedarretan izara edo prenda zabal-zabal ipini. Sutako hautsa mantxian parian ipintzen da; ura bota; euzkittan euki; eta mantxia kentzen eben. Gero aklarau eitten zan». (Parte hartzailea 3)

Bi parte hartzailek etxeko lanak familiako iloba eta lehengusu txikien zaintzarekin txandakatzen zituzten. Aterki fabrika lan egiten zuen emakume batek amari etxean josteko eramaten zizkion telak eta, arratsaldeetan, amari laguntzen zion josten.

Elkarriketatutako bi emakume, fabrikako lana bukatu ondoren larunbat eguerdian, Arantzazura igotzen ziren jatetxe batean zerbitzatzera. Igande goizetan ere gosariak zerbitzatzera igotzen ziren autobusez. Zazpi emakume aritu izan dira baserriko lanetan fabrikako lanaldiaren ostean. Urteko sasoi jakin batzuetan denbora asko eman behar izaten zuten lan horietan, parte hartzaileetako batek adierazi duen bezala:

²⁴⁰ Sagastizabal, M. (2020). Hiruki gatazkatsua. Etxeko eta zaintza lanak, enplegua eta parte hartze soziopolitikoa. Lisiye Bilduma (8). Susa. 13. or.

«Udabarrixan eta udan, 05:00-07:30 lana baserrixan (belarretan edo ortuan) eta gero 08:00-12:00 eta 14:00-18:00 fabrikari. Ilunkaran be lana itten geben baserrixan». (Parte hartzailea 10)

Beste batek, berriz, lanera joan aurretik laguntzen zuen:

«Kafia preparau, errekatik ura atara geo aittak ortua regaitteko eta lanera. 08:00tako fitxauta eoten nitzan». (Parte hartzailea 47)

Emakume batek, lanorduen ondoren, galtzerdiak konpontzen zituen:

«Galtzan puntuak (kristalezko galtzerdien "karrerak") arreglaitten neben lanetik urtendakuan». (Parte hartzailea 42)

Beste bost elkarrizketatuk mugimendu kultural eta soziopolitikoetan aktiboki parte hartu izan dute. Esparru horren barruan aipatu dituzten lanak dira, besteak beste, bileretan parte hartzea, kartelak jartzea, manifestazioak antolatu eta manifestazioetara joatea, Gau Eskolako irakaskuntza (AEK aurrekoa) eta Oñatz taldearen sorrera.

Amatasuna

2000. urtearen aurretik fabrikari lan egiten jarraitu eta amatasuna bizi izan duten emakumeak 29 dira. Maila pertsonalean, historikoki, emakumeek hartu du beren gain zainketekin lotutako zama, horrek lan produktiboaren eta erreproduktiboaren artean sortzen duen tentsio izugarri eta guzti. Amatasuna bizi izan duten emakume elkarrizketatu gehienak bat etorri dira honelakoetan: «Ama izan ondoren, zaintza fabrikako lanarekin moldatu behar», «korrika alde batetik bestera» eta «batzutan tente bazkaltzen neben». Moldatze hori aurrera eramateko, emakumeek beren egunerokoa berrantolatzen zuten. Ama izan aurretik egiten zituzten baserriko lanak, adibidez, alde batera utzi zituzten guztiek. Fabrikako lanorduez aparteko denbora osoa etxeko lanek eta zaintzak hartuko dute aurrerantzean.

Amatasuna eta fabrikako lana uztartu dituzten emakume gehienek adierazi dute etxeko zaintzaren ardura-dun nagusiak (eta kasu askotan bakarrak) amak zirela. Aipatu dute 1997-98 ikasturtera arte herrian ez zegoela haurtzaindegirik, eta horrek zaildu egiten zuela ardura produktiboen eta erreproduktiboen artean oreka topatzea. Lantegiko lana eta zaintza uztartu ahal izateko, zenbait estrategia erabili zituztela ere adierazi dute. 15 emakume norbait kontratatu behar izan zuten be-

raiek fabrikari zeuden bitartean umeak zaindu zitzen, lanean jarraitu ahal izateko. Lau emakume bi bikotekideen ordutegiak bateragarri egiten saiatzen ziren, aitona-amonei laguntza sarritan eskatu beharrik ez izateko; aitona-amonengana laguntza eske une zehatzetan bakarrik joaten ahalegintzen ziren. Hiru emakume amarenetik gertu bizi ziren, eta beste bat amarekin bizi zen eta zaintzaren zati handi bat haren gain utzi zuen. Hiru emakume auzokide eta familiakoen laguntzarekin egin zuten aurrera. Hiru errelebotan lan egin zuen emakume batek hiru larunbatetik bitan egin behar zuen lan, lanaldiaren arabera, eta, bazekienez lankide batek nahiago zuela lan egin eta diru gehiago irabazi, hari eskaintzen zion txanda hura, enpresako arduradunen baimena jaso ondoren; lan karga arintzeko beste estrategia bat zen hori. Azkenik, 43 eta 46 urterekin fabrikari garbitzaile hasi ziren emakumeek ez zuten umeen zaintzarako laguntzarik behar izan, seme-alabak hazita zituzten eta.

Amatasuna bizi izan zuten emakume gehienak amona dira elkarrizketa egindakoan. Gogoan dute alabak eta semeak hazi zituzten garaia: neke handikoa eta norberarentzako astirik gabekoa. Umeak eta familia aurrera ateratzeak pertsonalki asko bete ditu eta lasaitasuna nabari zaie horretaz hitz egitean.

Gaur egun ohikoak diren kontziliazio neurriak garai batean ez ziren eskubide. Bi elkarrizketatuk honela adierazi dute:

«Lankide batek jefiai komentautzan umia zainketako jornada erdira lan egitea gustauko xakola, eta jefiak esan zotzan: horretarako hor dakozu Auzolagun». (Parte hartzailea 33)

«Nire lankide batek umia euki ebenian eszedentzia eskatu eben eta gerentia esan zotzan ondo pentsaitteko, ea bueltan zer topauko eben. Eta berak esan zotzan: nik on biharra dakot eta gero, gerokuak! Eta bertan jubilau zan. Nik uste dot geuk ere ez geneukala barneratuta gure eskubidia zala». (Parte hartzailea 43)

Beste kasu batean kontrakoa gertatu zela adierazi dute. Emakume batek bigarren umea izandakoan eszedentzia hartu zuen (edo eszedentzia zela uste zuen berak). Bueltatu zenean, ez zioten aurrez zeukan lanpostua gorde. Beste lanpostu batean lan egiteko aukera eman zioten, eta utzi egin zuen fabrika.

Parte hartu duten ama gehienek ez dute agertu penarik fabrikari ardurak ez hartzeagatik edo ardurak hartuz aurrera ez egiteagatik. Lansaria irabazi beharra zeukatelako omen zeuden lanpostu horietan, eta ez dute

agertu anbizio profesionalik. Gutxiengo batek, sei emakumek, aurrera egin dute lan ibilbidean. Emakume horiei gustatu egiten zitzairen beren lana, eta pertsonalki asko bete dituzte lanarekin lotutako erronkek eta aukekek. Denbora asko eskaini diete lanari, eta pertsona bezala ere laneko ardura horien eraginez beste garapen bat izan dutela adierazi dute. Emakume horietako bati bidaiatzea egokitzen zitzaion sarritan. Etxean bazeukan zaintzarako sarea, bazekien umeak ondo zeudela bera kanpoan zen bitartean, baina maiz entzun behar izaten zituen inguruko komentarioak (gehienetan emakumeak): «Ze bizimodue, ezta? Ze gaizki, ez?». Adierazi du horrelakoek ez zutela ezertan laguntzen, eta gehitu du gai horren inguruan lanketa pixka bat egin dela, baina oraindik gehiago landu beharko litzatekeela.

9.4 FABRIKAKO LAN IKUSEZINAK

Lan ikusezinak bi eremutan jazo ohi dira: laneko harreman formaletan eta informaletan. Ekonomia formalak lege eta administrazio kontrolak betetzen dituen jardunak bateratzen ditu, eta, atal honetan, fabrika barruko lanak bakarrik hartuko dira kontuan. Aztertuko diren lanak produkzio sistema baten prozesu osagarritzat jotzen dira, ez dutelako ekoizpen zuzena garatzen eta oso lan *feminizatuak* izan ohi dira. Kasu gehienetan emakumeen gaitasun *naturalizat* jotzen direnekin lotuta daude: elikadura jantokian, garbiketa, osasuna etab. Fabrika barruko lanak lehenengo azpikontratatzeko diren zerbitzuak izan ohi dira, eta gehienetan lan baldintza ezegonkorrenak izaten dituzte, soldata-mailarengatik eta kontratu partzialengatik.

Galdetegian jantokien gaineko bi galdera zeuden: ea bazeukaten jantokirik fabrian eta ea nork egiten zuen lan bertan. Parte hartzaileak lan egin duten 25 fabrikatik hirutan zegoen jantokia. Janaria prestatzen eta zerbitzatzen lan egiten zuten langile guztiak emakumeak ziren.

Garbiketaren kasuan bi eremu desberdindu beharra azpimarratu dute elkarrizketatuek. Alde batetik, produkzio lan eremua, eta, bestetik, espazio partekatua: komunak, pasilloak, bulegoak, bilera-gelak, aldagelak, etab. Produkzio lan eremuei dagokienez, emakumeek fabrikazio, muntaketa eta paketatze lanak egin dituzten fabriketan, bai emakumeek, bai lankide gizonezkoek, lan erreleboa edo lanaldia amaitu ondoren, lan eremua txukundu eta garbitzeko ardura izan dute. Esan dutenez, industria-sektorean astelehenetik larunbatera lan egiten zen garaian larunbateko lanaldiaren amaieran tailerra sakonago garbitzen zen. 1960ko ha-

markadan lan egindako elkarrizketatuetako batek honela adierazi du:

«Makinak garbittu trapuekin, orixua bota tornilluei. Lurra eskoba eta gero, ura eta eskoba zabalakin pasau. Bakoitzak bere lan zonia, eta beste batzuk bazeuzen bukatu gabe, harei lagundu. Gizonek guk pilatutako zikinak kanpora ataraten eben». (Parte hartzailea 20)

Gerora, sakoneko garbiketa egitea azpikontratatzeko hasi ziren enpresetan, eta tailerra gizonezkoek garbitzen zuten. Laborategian eta bulegoetan lan egin duten langileek ez dituzte inoiz espazio horiek garbitu. Zeregin hori garbiketa-lanetan aritzen diren emakumeek azpikontratatu zaie. Denboran aurrera egin ahala, guztiek azpikontratatu dituzte produkzio eremutik kanpoko garbiketa-zerbitzuak, eta beti-beti emakumeek egin dituzte lan horiek.

Etxera lanik eramaten zuten galdetutakoan, bik baietz adierazi dute, lana aurreratzeko eraman izan zutela etxera. Administrazio eremuan lan egindako beste bost emakumek ere gauza bera esan dute, noiz edo noiz eraman izan dituztela kontabilitateko koaderno eta *pijama paperdun* zerrendak etxean *punteaitteko*. Bi emakumek 2000. urtea baino lehen apenas eramaten zuten lanik etxera, baina bai buruan laneko gaiak. Eta baten ustean:

«Lana (etxera) oso momentu puntualetan, baina buruan bai eramaten nituen gauzak. Askotan, ideiarik onenak lanetik kanpo bururatzen dira». (Parte hartzailea 38)

9.5 FABRIKAKO LANA

Parte hartzaileek fabriketan egindako lanari buruz emandako erantzunak aztertuko dira atal honetan; besteak beste, nolakoa zen lan eremura sartzea, egindako jarduerak, lan eremu propioa, eta prestakuntzarako eta lanpostu mailaz igotzeko aukerak.

Fabrikara sartzea

Industrializazioak sirena-hotsa hartu zuen, fabrika-denboren kontrola markatzeko. Fabrikara sartzea nolakoa zen jakiteko, sirena-hotsaz galdetu zaie elkarrizketetan. Parte hartzaileek 25 fabrikatan egin dute lan, eta 13 fabrikak erabiltzen zuten sirena lanaldiari hasiera eta bukaera emateko. Urteak aurrera joan diren heinean, eta lanaldi malguak lekua hartzen joan, errelebotan lan egin ez den lantokietan sirenak gutxitzen joan dira. Bestalde, sarrera-irteeretan fitxatu egin da fabri-



6o. irudia. Betik zotz fabrian emakumeak lanean, 1973 inguruan. Argazkia: Plazaola. Betiki esker argitaratua.

ken % 90ean. Araotzetik Garayra enpresak jarritako kamioian etortzen ziren langileak kamioia heltzen zen orduan sartzen ziren, eta Zubillagara trenean joaten zen emakumea ere bai.

Administrazio lanak edo bulegoan lan egin duten emakumeek, bik izan ezik, ez zuten enpresak emandako laneko arroparik erabiltzen lanorduetan. 1950eko hamarkadan txokolategi bateko administrazioan lan egin-dako emakume batek honela adierazi du:

«Emakumiak batakin. Artxibuan aldaketan ginan. Gizonak ofizinan kaleko». (Parte hartzailea 45)



61. irudia. Beatriz Irizar Elortza ULMAko bulegoan lanean, 1970 inguruan. ULMAri esker argitaratua.

Arlo teknikoan lan egin duten emakumeek, nahiz eta bulegoan laneko arroparik ez erabili, tailerrera joan behar zutenean segurtasuneko botak eta bestelako lanabes batzuk erabili behar zituzten. Produkzioan, enpresak jarritako laneko arropa erabili dute, eta emakumeentzako aldagelak zituzten fabrika guztietan, batetan izan ezik, komunean aldatzen ziren. Laneko arroparen inguruan, hasiera batean denak hasi ziren bata erabiltzen, kasu gutxi batzuetan nork berea etxetik eramanda. Kasu horietan, enpresak denbora gutxira eman zien berria. Metalaren sektorean eta produkzio arloan lan egin duten emakume gehienak bata erabiltzetik prakak eta txaketa edo kamiseta erabiltzera pasatu ziren gerora, eta segurtasuneko zapatak ere bai. Txokolate fabrika baten kasuan, hauxe esan du langile batek laneko arropa eta osagarriak direla-eta:

«Bai, batia eta kofia almidonauta. Eta geuk garbitzen ge-ben etxian». (Parte hartzailea 11)

Fabrikako jarduerak

Parte hartzaile gehienak, 32, produkzio plantan aritu dira, eta herriko industriaren sektore gehienetan egin dute ekarpena. Eredu honetako ekoizpen-jardueraren hiru fase bereizi dira (fabrikazioa, muntaketa eta pake-tatzea), bakoitzean aurrera eramandako lanak aurkez-teko. Elkarriketatutako emakumeak zotzak ekoizte-ko prentsan egurrezko tirak sartzen, txantilo batekin larrua moztzen, aterkientzako oihala moztu eta josten, eta, altzairuzko hodie puntzonatzeko eragiketak egiten eta moztzen jardun dute. Produktu ugariaren muntake-tan parte hartu dute: pilak, aterkien egiturak, aterkien osagaiak, plantxak, bandak eta sarrailagintzako beste azpimultzo batzuk, etxetresna elektriko industrialak eta arroparentzako pintzak. Emakumeak arduratu dira he-rrian fabrikatutako produktuen kaxaratze eta paketa-tzeaz neurri handi batean, hala nola zotzak, txokolateak eta bonboiak, erramintak, plantxak, aterkiak, pilak...

«Fabriketatik emoten zozkuen lanak: bisagrak, palilluak, zerradurak, buzoitako bonbilotxuak, eta telebisiñuen plakan montajia etxen neben.» (Parte hartzailea 14)

12 elkarriketatu administrazio eremuan aritu dira eta adierazi dituzten ohiko atazak ondorengoak dira: aurre-kontuak, fakturak, nominak, fitxak, gutunak eta beste dokumentuak sortu (hasieran eskuz edo idatz-makinaz eta ondoren ordenagailuz); harreran lan egiten zuen emakumeak telefono deiak kudeatu (hasieran sarrera eta irteera dei denak bideratuz) eta aurrerago harre-rara zuzendutakoak bakarrik, bulegoetatik zuzenean kanporanzko deiak egin ahal bait zituzten eta. Hasieran telex edo postaz bidaltzen zizkieten bezero, hornitzaile eta besteri dokumentuak, faxak telexa ordezkatu zuen, eta azken hamarkadan, e-mailez. Fabrikaren funtziona-menduan sortzen ziren datu denak erregistratzen zituz-ten: bezeroak, hornitzaileak, langileak... Kontabilitateko lanak ere egin dituzte, hala nola fakturazio eta ordain-ketak kontrolatu, nominak ordaindu, zerga ordainke-tentzako dokumentazioa prestatu... Ordenagailuen erabilpena zabaldu aurretik, eskuz *punteatzen* zituzten *pijama* deituriko orriak zituzten kontabilitaterako koa-dernoetan.

Lan esperientzian zehar produkzioko lana eta biltegikoa (biltegiko materialaren: sarrerak eta irteerak eta estoka kontrolatzea izanik lan nagusia) uztartu dute 3 emaku-mek.

Lantegi bateko emakume administrari batek bere lanki-de kutxazainari laguntzen zion soldatak ordaindu behar zirenean:

«Los sueldos no se pasaban por el banco como ahora, entonces se pagaban cada 15 días y se hacía en sobres con dinero en metálico. Le ayudaba a la cajera cuando había que pagar los jornales. Cada empleado tenía que fichar al entrar y salir. Cogíamos las fichas de todos. Las horas extras se pagaban aparte. Se contabilizaba cuánto le correspondía a cada uno y salía una cantidad total. Después teníamos que desglosar esa cantidad en los billetes y monedas para que cada sobre llevara el dinero exacto. Billetes y monedas de 1000, 500, 200, 100, 50. Teníamos que ir al banco con la cantidad exacta de billetes y monedas. Íbamos al banco con el talón y nos daban la cantidad total desglosada. Después, íbamos metiendo en cada sobre lo que le correspondía a cada persona. Si faltaba o sobraba algo, había que empezar a revisar todos los sobres, porque era señal de que habíamos hecho algo mal». (Parte hartzailea 39)

Sektore ezberdinetako hiru enpresetako zuzendari elkarrizketatu dira. Hirurek aurrera eramaten zituzten lan nagusiak bakoitzaren negozio edo sailari lotutako gestio plana definitzea, proiektu ezberdinen koordinazio eta exekuzioaren kontrola; eta, ziurtatzea ezarritako helburuak betetzen zirela: epe, kostu eta kalitate aldetik.

Parte hartzaile bi fabrika ezberdinetako garbiketaz arduratzen ziren. Produkzio eremua ez dute garbitu izan eta garbiketa eremua bulegoak, harrera, bilera gela, komunak, laborategiak... Arratsaldeko lan txandan jarduten zuten eta bi kasuetan ordutegi murrituarekin.

Produktuen garapenean lan egindako emakumeak: produktu berrien diseinua eta frogapena aurrera eramate; ekoizpena egokitu eta ondoren hura kontrolatzea izan dira bere ardura nagusiak, parte hartzen duen taldeko lankideekin batera. Bulego teknikoan eta Kalitatea eremuan lan egin duen emakumeak, hasiera batean delineaio lanetan aritu zen eta ondoren kalitate eremuan kalitate arauak eskatzen zituzten prozedurak enpresan ezartzea izan zuen ardura nagusia.


Teknologiaren eragina lan moduetan

Administrazio eremuan lan egin zuen emakume bat harrerako telefonista zen eta administrazioko lanak ere egiten zituen, telefonoak uzten zionean. Garai bateko telefonoguneko deiak kudeatzea nabarmen konplexuagoa zen gaur egun baino:

«Era un trabajo muy duro, pero me gustaba mucho. Tenía la centralita e internamente me pedían llamadas y otros llamaban desde fuera a la vez. Tenía unas luce-

citaz para saber si estaban hablando o habían colgado. Viví bien los últimos años, cuando avanzó la tecnología (y cada persona podía llamar de forma autónoma). Cuando no tenía llamadas escribía letras, cartas, etc.». (Parte hartzailea 17)

Administrazio eremuan lan egin duten beste hainbat emakume ere bizi izan zituzten teknologiaren aurre-erapausoak. Gehienak telex²⁴¹ komunikazio sistema ezarria zegoela hasi ziren lanean, 1970eko hamarkadaren erditik aurrera. 1980ko hamarkadan faxak telexa ordezkatu zuen, eta 1990eko hamarkadan, berriz, faxa ordenagailuak, Internetek eta e-mailak.



62. irudia. Emakume bat 1990eko hamarkadan bulegoan lanean. Jesus Mari Arzuaga argazki funtsa. Oñatiko Udal Artxiboa²⁴².

Aldaketa horiek eragin nabarmena izan zuten lan egiteko moduan, eta bost emakume bat datoz beste batek adierazitako honekin:

«Faxe izan zan increíble, eta gero Word eta Excel etorri zian. Pilo bat kurtsillo ein gittuan garai hartan. Lenengan explikaitten hasi zianian zer zan Internet ez geben

²⁴¹ Telexa mundu mailako idatzizko komunikaziorako sistema bat izan zen, linea telegrafiko edo telefonikoen bidez konektatutako makinaren artean testu mezu inprimatuak denbora errealean bidaltzeko aukera ematen zuena.

²⁴² Oñatiko Udal Artxiboa. Jesus Mari Arzuaga funtsa. ONA 006913.

ezebe ulertu..., eta laister batera e-mailak bialtzen geuzen». (Parte hartzailea 33)

Bulego teknikoan lan egiten zuen beste emakumearengan ere eragina izan zuen teknologiaren aurrerapenak:

«Orduan 22 delineante geunden maila desberdinetakoak. Gero Autocad etorri zen eta gutxinaka 22tik 4-5era bajatu zan, eta beste danok beste lanpostu batzutura moldatu bihar izan ginan». (Parte hartzailea 7)

Aurrerapen teknologikoen lan egiteko moduetan eta industriako baliabideak banatzeko dinamiketan zer-nolako eragina izan duten erakusten dute horiek. Aterkiak egiteko enpresa batean ibilitako emakume batek esandakoa ere bat dator horrekin:

«Ni sartu nintzanian, eskuz josten zan dana eta emakume asko geuzen. Makinak ekarri ebeinian, azkarrau egitten zan lana eta lanian geuzen jende kopurua jeitsi zan». (Parte hartzailea 13)

Tailerrean robotizazioko eta automatizazioko lehen pausoak ematen hasi zirenean, iraultzatxoa izan zen, eta tailerreko langile batzuek honela ikusten zuten:

«Sorginkerixia da hoi! Zela hasiko da ba begirik gabe soldaitten!» (Parte hartzailea 37)

Parte hartzaileei galdetu zaienean ea barne edo kanpo formakuntzetan parte hartzeko aukerarik izan duten, 16 emakumek baiezkua erantzun dute. Enpresetan ingeleseko ikastaroak eskaintzen ziren, euskaraz idazten ikasteko ikastarora joateko aukera izan zuten batzuek, beste batek elektronikako ikastarora joatekoa, beste bik denetarikoa ikastaroak egiteko aukera zuten, eta kasu batean enpresak, ikastaroez gain, Lanbide Heziketako formakuntza jasotzeko laguntza eskaintzen zien. Aurrez azaldu dugunarekin bat, teknologia aurreratu ahala, langileek horietako iristeko ikastaroak egin beharra izan zuten: ofimatika, diseinua, gestio sistemak, etab. Emakume batek haxe adierazi du:

«Tuvimos que formarnos para aprender a utilizar el ordenador. No teníamos ni idea de lo que era. El primer ordenador nos parecía de la NASA... Tuvimos que formarnos y aprender a la fuerza». (Parte hartzailea 25)

Lanak eragindako presioa

Lanean presiorik jasan duten galdetu zaienean, emakume elkarrizketatuek oso pertzepzio desberdinak agertu dituzte, zein enpresatan ibili diren arabera. 50 ema-

kumeetatik zortzik kontrolatzaile bat zuten lan egiten zuten eremuan. Langile bakoitzak aurrez ezarritako lan erritmoa mantentzen zuela ziurtatzea zen haren egitekoa, eta kontrolatzailearen presentzia hutsak zaintzapean uzten zuen mugimendu bakoitza. Kontrolatzailea izan duten parte hartzaile guztiak bat datoz honetan: gizona izaten zela beti, nahiz eta ikasketa maila apala izan. Kontrolatzailearen figurak Kudeaketa Zientifikoan oinarritutako teoriari jarraitzen zion (taylorismo ere baderitzo), eta helburua zen lana ahalik eta zeregin errepikakor txikienetan zatitzea, *denbora optimoa* kontrolatzeko²⁴³. Lantegi horietan sari edo pizgarri bidezko ordainsari aldakorreko metodoa aplikatzen zen, eta langileei ekoiztutako pieza kopuruaren arabera ordainketa gehigarria ematen zitzaion.

«Erlojupekoa ta presio handiko lana. Produkzio helburu bat izaten geben eta hortik pasaitten baginan, prima bat ordaintzen eben, baina hurrengo egunian pieza kopuru hori zan oinarrixa». (Parte hartzailea 8)

Parte hartzaile horrek esandakoarekin bat datoz produkzioa antolatzeke eredu horretan lan egindako emakume gehienak, eta bostek adierazi dute gizonei ez zietela horrenbesteko presioa egiten. Lan egiteko modu horren beste ezaugarrietako bat langileen arteko konparaketak egitea izan ohi da. Denboraren aldetik mugatutako produkzio helburuek lanpostuak estandarizatzea zekarten eta, ondorioz, langileak konparatzea elkarren artean. Lau emakumek adierazi dute kontrolatzaileak eta beren lerroko arduradunak hainbat aldiz konparatu izan dituztela beste langile batzuekin. Eta beste emakume batek, berriz, berak erraztasuna zuela egiten zituen muntaketa-lanetarako, eta, ordainketa-sistema horri esker, ongi irabazten zuela.

Horretaz gain, bi emakumek esan dute beraiek lan egindako fabrian kontrolatzaileak espazio osoan zuela bosterea:

«Kontrolista erdixan euen kabina baten dana kontrolaitten. Komunetako lababuek kristalera bat zekaten eta kanpotik ikusten zan norbait bertan bazeuen». (Parte hartzailea 9)

Kontrolatzaileek gabe lan egindako 12 parte hartzailek adierazi dute, bestalde, ez zutela jasaten kontrolatzailearen presioa, eta beraiei makinak edo muntaia katearen abiadurak markatzen zela erritmoa. Txoko-

²⁴³ Uddin, N., eta Hossain, F. (2015). Evolution of modern management through Taylorism: An adjustment of scientific management comprising behavioral science. *Procedia Computer Science*, 62, 578-584. 579.or.

late fabriketan lan egindako emakumeek makinaren erritmoa jarraitu behar zuten, segundorik galdu gabe, txokolateak eta bonboiak ontziratu edo paketatzeko. Metalezko hodietan oinarritutako ekoizpenean 1980ko eta 1990eko hamarkadetan lan egin zuten 2 emakumek ere adierazi dute makinak markatzen zietela erritmoa, eta, makina ondo bazebilen, ez zela egoten arazorik produkzio helburuetara heltzeko. Makinak matxuraren bat jasaten zuen kasuan, erregistratu egiten zuten, hori adieraziz. Harreran lan egindako emakumeari, berriz, lan erritmoa eta presioa barne mailan egin behar zituen deiek eta kanpotik jaso eta banatu behar zituenek markatzen zizkieten. Produkzioan lan egindako gainontzeko emakumeek adierazi dute gelditu gabe lan egiten zutela, baina presioa ez zela handia. Ardura postuetan egon diren emakumeak sekulako presiopean bizi zirela azaldu dute, gestio plana eta proiektuetarako ezarritako plangintzak betetzeko. Administrazioan lan egindako emakumeek ere presioz bizi izaten zituzten hilabete itxiera, urte itxiera, Gestio Plana eta beste data mugarri batzuk.

Ordutegiak eta lan karga

Fabrikan zituzten lan ordutegiak ezagutze aldera egindako galderei dagokioenez, produkzioan lan egindako emakume gehienek esan dute sartzeko eta irteteko ordutegiak betetzen zituztela. Gainkargako une jakinetan, aparteko orduak egiten eta kobratzen zituzten. Hiru emakumek adierazi dute nahi zutenean aparteko orduak egiteko aukera izaten zutela, eta beste bik, derrihortuta zeudela aparteko orduak egitera. Produkzioan lan egindako emakume batek honela adierazi du:

«Se supone que era un sistema de trabajo por primas, pero en resumen trabajábamos a destajo, debido a que una vez superábamos la base del trabajo, la cantidad de piezas que excedíamos de la producción-base, estaban tipificadas para cobrar cierta prima». (Parte hartzailea 46)

Administrazioan lan egindako emakume gehienek ere ordutegiak betetzen zituzten, eta ohi baino lan karga handiagoa zegoenean bakarrik egiten zuten lan ordu gehiago. Eredu horretan ez ziren kobratzen aparteko orduak, jai hartzen ziren, ahal zenean. Enpresetan ardurako postuak izan dituzten emakumeek bazekiten zein zen sartzeko ordua, baina irteteko ez; ordu asko egiten zuten lan. Familia-negozioetan lan egindako emakumei gauza bera gertatzen zitzaien; horien lanaldiak ere luzeagoak izaten ziren, eta asteburu batzuetan lan egin ohi zuten, asteko lana prestatzen, etab.

Produkzioan lan karga areagotzea eskaera berrien ondorio izaten zen batzuetan; beste zenbaitetan, ordea, urtero errepikatzen ziren halakoak, enpresaren eta sektorearen arabera. Txokolate ekoizpeneko enpresetan, adibidez, jaunartzeetan eta Gabonetan lan gehiago izaten zuten. Sarrailagintzako tailer batean, berriz, uztalean lan karga areagotzen zuten, abuztuko eskaerarako stocka izateko. Gutxi gorabehera 1990eko hamarkadara arte, aparteko orduekin, lan txandak gehituta eta langile finko berriak kontratatuz erantzuten zitzaion produkzioa handitu behar horri. Azken hamarkadan, berriz, fabriketan langileak aldi baterako kontratatzen hasi ziren.

Kalitatea

Fabrikatutako piezen kalitatea kontrolatzeari dagokionez, zotzen ekoizpenean lan egin duten bi emakumeak izan ezik, gainontzekoek berretsi dute produktuaren kalitatea eta paketatzea kontrolatzen zirela. Piezaren trazabilitatea, egin zuen pertsonarekiko, piezak gordetzen ziren kaxak edo saskiak markatuz egiten zen. Kalitate kontrola kasu gehienetan fabrika barruan egiten zen, baina ez beti:

«Bai, tailerrian bertan kontrolaitzen zittuen lan batzuk, beste batzuk ez. Guk egindako muntaien kajak markaitzen ziren eta txarren bat aurkitzen bazen, bueltan etortzen zen». (Parte hartzailea 14)

Hasiera batean kalitate kontrola ekoizpenean soilik aplikatu bazen ere, gerora kontrol integralagoa bihurtu zen, eta enpresako arlo eta prozesu guztietan ezarri zen, parte hartzaile batek adierazi duen bezala:

«AENOR ezarri zenean, kontrol sistema enpresa guztian zegoen, ez bakarrik produkzioan». (Parte hartzailea 7)

Segurtasuna

Gaur egun, ukaezina da lantokiko segurtasuna; hala ere, duela hamarkada gutxi arte ez da horrela izan. Aurretik lan istripuei eta lan gaixotasunei buruzko bi lege argitaratu baziren ere, 1971. urtera arte, Laneko Higie-ne eta Segurtasun Plan Nazionala²⁴⁴ onartu zen arte, ez zen hasi begirada langileen osasunean jartzen eta hura hobetzeko neurriak ezartzen. Plan horren ondo-

²⁴⁴ Laneko Segurtasun eta Higienaren Institutu Nazionala (INSHT) (1971). Laneko Higie-ne eta Segurtasunerako plan Nazionala. Madril: Espainiako Lan Ministerioa (1971ko martxoaren 11ko BOE, 6o. zk., 4017. or.).

ren, 1995ean Laneko Arriskuen Prebentziorako Legea ezarri zen, politika harmonizatua egin beharra zegoelako. Arlo horretan sortzen ari zen Europar Batasuneko politikarekin, gero eta kezka handiagoa zegoen gai horretan prebentzioaren azterketarekin eta tratamendua-rekin²⁴⁵.

Parte hartzaileei galdetu zaienean laneko segurtasun baldintzei, gorputz jarrerei eta osasunarekiko arriskuei buruz, denek esan dute 1980ko eta 1990eko hamarkadetan aurrerapauso handiak eman zirela gai horren inguruan.

Laneko gorputz jarrera gogorrenak aterkien ekoizpenean lan egin duten lau emakumek eta hodiak zulatzen eta paketatzen jardundako batek adierazi dituzte. Jarra neketsuei gehitu behar zaie, gainera, parte hartzaileetatik bederatzik bizkarralderik gabeko zurezko aulki gogorretan jesarrita egiten zutela lan. Esan dute ipurdiko mina lanean hasi eta hilabete batzuetan joaten zela, baina gerrikoa ezetz, gerriko minak luzaroago irauten zuela. Produkzio lanetan egin beharreko indarraz galdetutakoan, emakume askok azpimarratu dute indar handieneko lanak gizonezkoek egiten zituztela, baina lau emakumek adierazi dute pisu handia mugitzen zutela ekoizpenean (txokolate kaxak eta metalezko piezen banastak), bai eta tamaina handiko pilen fabrikazioan ere. Beste emakume batek, berriz, piezen muntaketan indar handia egin behar izaten zuela adierazi du.

«Garai hartan segurtasuna ez zen kontuan hartzen. Hasieran, pelotarixak erabiltzen dabenek espadatrapuak? Ba hola geukan esku danetarako inddak. Lanian hasterako horrek jarrita, etxian prestatzen geben. Gerora ez, guantiakin». (Parte hartzailea 2)

1970eko hamarkadaren aurretik piezak muntatzen eta errematxatzen jardun zutenek, eskuekin metala ukitu beharra izaten bazuten ere, ez zeukaten eskularrurik, eta esparatrapua jartzen zuten eskuetan babesteko. Zotzak paketatzen lan egindako emakume batek eta pilen ekoizpenean aritutako beste batek adierazi dute eskularruak ematen zizkietela, baina ezin zutela lana ondo egin haiek jantzita. Lehenaren kasuan, zotzak kateatuta geratzen ziren eskularruan, eta bigarrenaren kasuan, ezinezkoa zen eskularruekin tamaina txikiko elementuak egoki manipulatzeko. Eskuak urratutakoan, orduan esparatrapua jartzen zuten. Zotz paketatzaileei sarritan gertatzen zitzairen zotz printzak eskuetan sartu eta zauriak infektatzeko. Adierazi da eskuek asko sufritzen zutela lan honetan. Pilekin lan egindakoek manganosoaren

toxikotasuna dela-eta kezka agertu dute, eta adierazi dute urteen joanean segurtasun neurriak direla-eta hobetzen joan direla babesak, aireztatze sistemak, etab.

Laneko lesio eta istripuen harira, parte hartzaileetako batek azaldu du berak erabiltzen zuen makinak pedal bidezko balazta bat zeukala eta, hamarkada batez baino gehiagoan egunero hainbat aldiz balaztatze mugimendu errepikakor hori egitearen ondorioz, lesio larria izan zuela hankan; fabrika berean lan egiten jarraitu zuen, baina lanpostuz aldatu zuten. Beste emakume batek laneko istripu larria izan zuen 1960ko hamarkadan, %30eko ezgaitasuna eman zioten eta, osatu ostean, lanean jarraitu zuen bertan. Beste emakume batek hatz zati bat galdu zuen lan istripu batean eta hark ere, osatu ondoren, lanean jarraitu zuen erretiratu arte:

«Un fallo de la máquina me llevó la punta de un dedo. Se rompió un muelle de la máquina y me entró una arandela en el dedo. Me tuvieron que cortar la punta del dedo». (Parte hartzailea 50)

Lanpostuarekiko pertzepzioa eta mailaz igotzeko aukera

Parte hartzaile bakoitzak bere lanpostuari buruz zuen pertzepzioa ezagutu nahi izan da. 33 emakumek adierazi dute lan errepikakor eta errutinazkoak zituztela. Bost emakumek esan dute egiten zituzten lanak errutinazkoak izanagatik ere gustukoak zituztela. Errutinazko lanak ez zituzten emakumeek gusturago egiten zuten lan, arrazoi desberdinengatik: erronka berriei erantzun beharra zegoelako, interesgarria iruditzen zitzaielako, egoera desberdinetara moldatu beharra zutelako, disziplina anitzeko talde batean lan egiten zuelako, eta, baten esanetan, aurretik errutinazko lan batean ibilia zela-eta alderatzea bazuenez, lan aldakorragoa interesgarriago egiten zitzaielako. Errutina gabeko eta interes handiagoko lanak zituzten emakumeen kasuen barruan daude ikasketa maila altuena dutenak; horrek estuki lotzen formakuntza maila eta lanpostuekiko asebetetze maila.

Enpresa barruan lanpostu mailaz igotzeko aukera izatea unean uneko garaiarekin modu banaezinean lotuta dago. 1980ko hamarkada baino lehen lan egin duten emakume guztiek, batek izan ezik, ezezkia erantzun dute. Hurrengo urteetan, bost emakumek izan zuten horretarako aukera, eta mailaz igo ziren. Bost horietatik lau kooperatibistak ziren. Lanpostu kategoriaz igo ziren emakumeetako bik adierazi dute mailaz igotzea urte luzez beren gain eremu/lan desberdinetako hainbat erantzukizun hartu izanaren ondorio izan zela, eta

²⁴⁵ 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa.

lan eremuan emakumeek beren gain hartzen dituzten zereginen kopuruari buruzko hausnarketa egin zuten. Biak bat etorri ziren uste honetan: alde batetik, jasotako heziketa dela medio, emakumeei gehiago kostatzen zaiela arduradunari ezetz esatea. Argudio hau jarraituta, adierazi da, gizonezko lan taldeko arduradunek, lanpostu maila berdineko lankide gizon eta emakumeen artean, ezohiko eta baliorik ematen ez zaien lanak, ari nago eskatzen omen dizkiete emakumeei egitea gizonetzko baina. Bestetik, emakumeek orokorrean, mailaz igotzea lehentasuntzat izaten ez dutenez, ez direla eremu batean indartsu bihurtzen saiatzen.

Eremu kolektiboa eta gatazka soziopolitikoak

Eremu kolektiboa aztertzean, lan eskubideen inguruan kolektiboki bizi izandako ekintza nagusiak ezagutu nahi izan dira. Galdetu zaienean ea beren fabrikan bazegoen emakumerik ordezkari sindikal edo kontseilu sozial bateko kide gisa aktiboki parte hartzen zuenik, 1970eko hamarkadaren bigarren erditik aurrera lan egindakoen erantzuna baiezkoa izan da. Elkarriketatutako emakumeek lan egindako 25 fabriketatik 14tan zeuden, eta elkarriketatutako 18 emakume langileen ordezkari izan dira.

Kooperatibako organo sozialetan egondako bi emakume (kooperatiba desberdinetakoak eta elkarriketa desberdinetan) negarraldi ederrak bota izan zituztela adierazi dute. Baten kasuan, egoera ekonomiko kritiko baten aurrean berregituratzeko erabakia hartzea; oso gogorra izan omen zen.

Lan gatazken inguruan galdetutakoan, haxe adierazi du emakume batek:

«Bai, baina nik bi gatazka klase diferentziauko neke. Lan gatazka askorik ez dugu izan, konbeniokoak eta mas generales bai, baina enpresan kontra ez dugu izan. Baina politikoak asko, garai baten, asko-asko». (Parte hartzailea 6)

Lanarekin lotutako greba eta mobilizazioen inguruan, 1950 hamarkadan txokolate fabrika batean lan egindako emakumeak ezetz erantzun du, eta kooperatibetan lan egin duten emakumeek ere ezetz adierazi dute. Beste emakumeek, berriz, haxe azaldu dute: fabrika batean egun batzuk egin zituzten greba, soldata eta ordutegiak hobetzeko; eta beste fabriken kasuan lan hitzarmena hobetzeko negoziatioetan zebiltzanean egin zituzten lan geldialdiak, baina motzak izan ziren. Emakumeek lan egindako hiru enpresa itxi egin ziren, eta batean nahiko borrokatu ziren horren aurka; beste ba-

tean, ordea, langileek kooperatiba bat sortu zuten. Elkarriketatuek lan egindako enpresa batean bi lehergailu jarri ziren 1970eko hamarkadan. Lehenengoa 1972-08-16an, fabrikako hozkailu batean²⁴⁶. Bigarrena, 1979-02-25ean, fabrikako furgoneta batean²⁴⁷. Adierazi dutenez, ez batean ez bestean inor ez zen larri zauritu ez hil; kalte materialak eragin zituzten.

Gatazka politikoak eragindako grebak eta fabrika kanpoko elkarretaratzeak asko izan zirela adierazi dute, eta gehienek parte hartu zuten haietan. Emakume baten kasuan, berak lan egiten zuen enpresan ez zuten ekintza politikoetarako deialdiekin bat egiten. Halakoetan, grebarako deialdiekin bat egiten ez zuten arratsaldeetan, pezetak botatzen zizkieten lana bukatu eta etxeratzekoan. Greba-deialdia zegoen egun batean, lehergailu abisua jaso zuten, eta egun horretan bai, atera egin ziren. 1980 inguruan izan zen.

Greba, lan geldialdi eta bestelako ekintzetan parte hartzeatik zigorrik edo kaleratzerik bizi izan zuten galdetutakoan, emakume batek esan du kaleratzeak baietz, halakoak izan zirela fabrika batean eta gainera ez zirela ez sindikalistak ezta fabrika barruan greba bultzatzen zebiltzanak ere. Beste emakumeek esan dute ez zutela kaleratzerik bizi izan, eta horietako bik adierazi dute arduradunek begi txarrez ikusten zituztela greba egitea-gatik. Batek adierazi du greba eginez gero ez zegoela mailaz igotzeko aukerarik.

Trantsizio demokratikoa egitean fabrikan aldaketarik nabaritu zuten galdetutakoan, ezetz erantzun dute gehienek. Baiezkoa erantzun dutenek adierazi dute gizartean lege eta arau progresista asko abiatu zirela eta horiek fabrikan ere eragina izan zutela (sindikatuak, etab.). Emakume batek 1975ean bulego batean administrari lanetan bizi izandako anekdota bat kontatu du. Bat-batean, bulegoko lankide batek mahai azpiko kaxoitik xanpain botila eta bi kopa atera, kortxoak kendu, eta ea nork nahi zuen galdetu zien ingurukoei. Azaroaren 20a zen.

9.6 FABRIKAKO HARREMANAK

Fabrikan sortutako lan harremanek emakume bakoitza inguruarekin nola erlazionatzen den adierazten digute: hierarkikoki, bai eta horizontalki ere bere berdinkideekin. Galdetu zaie ea lan egin zuen eremuan emakumez-

²⁴⁶ Diario Vasco (1972-08-17). 8. or.

²⁴⁷ Egin (1979-02-27). 5. or.



63. irudia. Elena Bengoa Unzurrunzaga GAITUn, 1967 inguruan. Argazkia: Plazaola. ULMA Forged Solutionsi esker argitaratua.

koak ziren gehiengo edo gizonekin nahasian egin zuten lan. 50 parte hartzaileetatik 40k lan egindako eremuan emakumezkoak gehiengo ziren: txokolate fabriketan, aterki fabriketan, sarrailagintzakoetan eta pilen katean. Administrazio lanetan ere gehienbat emakumezkoek jardun dute. Aterkien egitura ekoizten lan egin zuen emakume batek honela adierazi du:

«Bai, gehiengoa emakumeak ginan. Bost gizakume eta 40 bat emakume ginan gure sekziñuan. Gizon bat euen expresamente barillak eta bihar geben piezak ekarten eta egindakuan eramaten. Beste mutil batek apuntau eitxen eben pisua. Beste batek montadoriai zenbat egiten eben kontua eramaten; beste bat guardasolak muntatutakuan enpaketadoriai eramaten; eta beste batek, enpaketatakuak kanpora eramaten». (Parte hartzailea 3)

Metalmekanikaren sektorean administrazio eremutik kanpo lan egin duten bost emakumeek, sarrailagintzako langileak kenduta, gizonezko gehiengoa izan dute lan inguruan.

Lau emakume adierazi dute beren lan inguruan gizonen kopurua eta emakumeena antzekoak zirela, eta beste batek adierazi du bulego teknikoan lan egin duenean, gizonezkoak izan direla gehiengoa, nahiz eta urteak aurrera joan diren neurrian emakume kopurua handitzen joan den.

Aipatu beharreko beste datu bat, lan eremuko genero banaketan eragina duena, enpresaren bizitza-luzera da. Emakumeen gehiengorik gabeko lan talde edo lan leerroetan gizonezkoen lanpostu berberetan aritu direla adierazi duten 11 emakumeetatik gehienek, batek izan ezik, 1960ko hamarkadaren ondoren sortutako enpresetan lan egin dute. Industria-antolakuntzak gero eta ekoizpen sistema automatizatuagorantz jo du, eta, horren ondorioz, gero eta enpresa gehiagotan aritzen dira emakumeak, gizonekin batera, muntaketa- eta fabrikazio leerroetan. Lan espezializatu horietan jarduteko, formakuntza teknikoa funtsezkoa da.

Emakundek 1993an argitaratutako hezkuntzaren inguruko txostenean aditzera ematen da industriara bi-

deratutako ikasketak nagusiki gizonezkoek egiten dituztela, administrazioarekin eta enpresagintzarekin lotutakoak izan ezik. Lanbide Heziketa II-ko ikasleen % 39 ziren emakumeak²⁴⁸. Industriari lotutako espezializazio adarrei erreparaturaz gero²⁴⁹, hona hemen emakumezko ikasleen ehunekoak: Administrazioa (% 73,8), Kimika (% 28,7), Delineazioa (% 20,4), Elektrizitatea (% 2), Metala (% 1,8) eta Zura (% 1,4). Unibertsitate mailako ikasleen % 49,7 dira emakumeak²⁵⁰. Jakintza-arloari dagokionez²⁵¹, berriz, emakumezko ikasleen ehunekoak hauek dira: Enpresagintza (% 50,2), Ekonomia (% 45,7), Informatika (% 43,3), Goi Mailako Ingeniaritza (% 14) eta Ingeniaritza Tekniko Industrialak (% 10,1).

Ikerlan hau mugatzen duten denbora-tarte eta espazioa kontuan izanda, ezin izan da hezkuntzaren aldagaia sakon aztertu. Ikusi da parte hartzaileen hezkuntza-mailak eragin zuzena izan duela emakume horiek beren lan ibilbidean mailaz igotzeko izan dituzten aukeretan. Unibertsitate mailako ikasketak dituzten lau emakumeetatik hiru igo dira mailaz. Lanbide Heziketako ikasketak egindakoak izan dira ardura mailaz igotako beste hiru emakumeak.

Lanaren banaketari dagokionez, enplegatuen gehien-goia emakumezkoa zen fabriketan emakumeek gizonen bestelako lanak egiten zituztela adierazi dute kasu gehienetan. Emakume batek honela deskribatu du bere enpresako produkzio eremuko langileen banaketa:

«22-24 emakume eta sei gizon. Emakumiak produkzioan eta gizonak enkargau, mekanikua, masa preparamu, etab. Lanpostu ezberdinak eukien». (Parte hartzailea 11)

Emakumezkoak gutxiengo ziren enpresa batean lan egindako elkarriketatutako batek haxe adierazi du lan banaketaren gainean:

«Se diferenciaba el trabajo de los hombres y las mujeres. Es una empresa en la que había trabajos duros que no eran para cualquiera. Lo mismo en la forja o en el temple, se requería mucha fuerza. Era duro hasta para los hombres. Creo que había trabajos que algunas mujeres podrían hacerlos, pero la mayoría no». (Parte hartzailea 19)

Lau enpresatan izan ezik, beste guztietan enkargatu gizonezkoa izan dutela adierazi dute elkarriketatutak, eta kontrolatzailea gizonezkoa zen beti. 1960ko hamarkadan lan egindako eta gazteleraz hitz egiten duen emakume baten hitzei erreparaturaz, garbi ikusten da produkzio langileen eta enkargatu edo kontrolatzaileen arteko hierarkia oso markatua zegoela. Komunikatzeko erabilitako hizkera da horren adierazle bat:

«Teníamos que hablarles (al encargado y al controlador) de usted todos, hombres y mujeres, a no ser que tuviéramos mucha confianza». (Parte hartzailea 5)

Emakumezko enkargatu edo produktu lerroko arduradun gehien izan dituen enpresa Zahor dela adierazi dute.

Parte hartzaileak enplegatuta egon diren 25 enpresetatik bitan ez beste guztietan, zuzendaritza-taldea nagusiki edo osoki gizonez osatuta zegoen. Adierazle horrek genero segregazio horizontala ez ezik bertikala ere egon dela erakusten du, eta ardurako lanpostuen gehiengo zabal bat gizonezkoen erabakitzeko eremua izan dela.

Lansaria

Emakumeek eta gizonek lanpostu berberak zituzten kasuetan, ea lansari berdina zuten galdetu zaie elkarriketatutak. 19 emakume horietatik 12k produkzioan jardun dute; bostek, administrazioan, eta bik, bulego teknikoan eta produktuen garapenean. Produkzioan lan egindako zazpi emakumek lansari berdina zutela adierazi dute; batek, 1982tik aurrera berdindu zituztela, baina hori baino lehen gizonezkoek gehiago irabazten zutela; beste batek erantzun du bere kooperatiban lan baldintzak berdinak edo desberdinak izatea langilea bazkide edo denbora mugatuko langile izateak dakarrela, ez generoak, eta hiru emakumek adierazi dute gizonezkoek gehiago irabazten zutela (enpresa-batzordeko ordezkari sindikalak izan dira hirurak, eta langile guztien lansariak ezagutzen zituzten).

«Enpresa-batzordean parte hartzen genuen emakumeok ondo ezagutzen genituen langile guztien diru sarrierak eta genero desberdintasunak. Soldata txikiagoak emakumeentzat, etab.». (Parte hartzailea 6)

Administrazio eremuan lan egindako emakume batek adierazi du gizonezko lankideek lan berberaren truke *zertxobait* gehiago irabazten zutela. Beste lau emakumeetatik batek esan du teorikoki soldata berdinak izan beharko lituzketela, baina egiaztan, nahiz eta lan bera egin, batzuetan lanpostuak izen desberdina izaten zue-

²⁴⁸Emakunde (1993). Emakumeak eta hezkuntza Euskal Autonomi Elkartearen. Eusko Jaurlaritza. 61.or.

²⁴⁹Ibidem, 62.or.

²⁵⁰Ibidem, 69.or.

²⁵¹Ibidem, 71.or.

la. Kooperatibista batek adierazi du gertatu izan dela lan maila eta ardura bera izanda indize desberdina izatea. Eta hiru emakumek adierazi dute denborak aurrera egin ahala lansariarekin lotutako desberdinkeriak zuzentzen joan direla.

Bulego teknikoan lan egindako emakumeari dagokienez, batek adierazi du bere enpresan lansariaren oinarria baxuagoa zutela emakumezkoek gizonezkoek baino, eta urteek aurrera egindakoan berdintzen joan dela.

Bestalde, produkzio eremuan jardun baina gizonek eta emakumeek lanpostu berberak ez zituzten kasuetan, elkarriketatu gehienek adierazi dute orokorrean gizonezkoek lansari altuagoa jasotzen zutela. Bost emakumek lan egindako fabriketan, gizonezkoek esfortzu handia egin beharreko lanetan eta inguru gogor eta arrisksuetan egin beharrekoetan jarduten omen zuten: forjaketan, tenplaketan, fundizioan, manganesoa manipulatzeko, etab. Emakume horiek bidezkoztat daukate lansari handiagoa izatea lanaren arrisku maila eta gogortasunarengatik. Beste 11 emakumek lan egindako enpresetan, berriz, gizonezkoek, emakumeek beste esfortzua eginda eta emakumeek adinako gaitasun teknikoa eta formakuntza izanda (oinarrizko ikasketak), lansari handiagoa jasotzen zuten, elkarriketatuek esan dutenez. Era horretako jardunak dira, adibidez, emakumeek muntatutako piezak jaso eta zenbatzea, txokolate fabrika emakumeek behar zituzten elementuak banatzea, etab.

Lansari arrakala horren eragileetako bat *familia-soldata* da. Gerraostean, estatuak soldata-osagarri familiarista bat sortu eta txertatu zuen, gizonezko langile enplegatuek zegokien *ogi irabazlearen* soldata jaso zezaten, eta ez soilik banakako produktibitateagatik irabaziko lukeena. Estatuak hala aginduta, industria-enpresak derrigortuta zeuden familia-karga zuten langileen artean funts ekonomiko bat banatzera, beti ere enpresa bakoitzaren ezaugarrien arabera. Funts horretatik ordaintzen zieten familia-kargagatik plusa. Familiaburu gizonezkoen nominari aplikatzen zitzaion plus hori, eta emakumeek, jasoko bazuten, senarraren absentsia edo ezintasun osoa justifikatu behar zuten. Hala, gizonak bere lan errendimendu eta lanpostuarengatik irabaziko lukeen nominari familia-kargagatik plusa batuta familia-soldata jasotzen zuten.

Enpresa bakoitzak plusetarako zeukan funtsa puntu sistema baten bidez banatzen zuen gizon langileen artean, proportzio honen arabera: ezkonduak, emazteak lanik egiten ez bazuen, 5 puntu zituen; eta seme-alabadun ezkondu edo alargunak, 6-30 puntu (seme edo alaba bat izanda, 6 puntu; 2 seme-alaba, 7 puntu; 3 seme-alaba,

8 puntu; 4 seme-alaba, 10 puntu; 5 seme-alaba, 13 puntu; 6 seme-alaba, 16 puntu; 7 seme-alaba, 19 puntu; 8 seme-alaba, 22 puntu; 9 seme-alaba, 25 puntu, eta 10 seme-alaba, 30 puntu). Hamar seme-alabatik gorako seme edo alaba bakoitzeko bost puntu gehiago ematen zitzaizkion²⁵². Enpresaren funtsa plantillako langile guztien puntuen baturaz zatituta, puntu bakoitzaren balioa kalkulatzeko zen. Azkenik, balio hori langile bakoitzaren puntu kopuruaz biderkatu, eta emaitza langileak lan erredimenduarengatik jaso beharreko lansariari batzen zitzaion. 1946ko martxoaren 29ko Aginduaren 6. artikuluan ezarritako jatorrizko ehunekoa, arau orokor gisa, % 10 izan zen²⁵³; ehuneko hori handituz joan zen, zenbait arau sektorial eta erregelamenduzkoen bidez, eta kasu askotan soldata osoaren % 15etik % 35era bitartekoa ere izan zen.

Familia-politika horren helburu nagusietako bat demografia-hazkundera lortzea zen. Kasu batzuetan, ordea, hainbeste seme-alaba izatea industrian kontratatuak izateko oztopo bihurtu zitzaion gizonei. Izan ere, enpresa batean familia-karga handiko langile bat lanean hasteak, hainbeste plus izanda, esan nahi zuen beste lankideen puntu bakoitzari balioa murrizten zitzaioela, eta enpresa eta langileak kontratazio horren aurka agertzea bultzatzen zuen horrek. Parte hartzaileetako batek aipatu du bere aitak zortzi seme-alaba zituela eta, lanean ari zen fabrika itxi zutenean, ezin izan zuela industriako beste lanposturik aurkitu, karga horregatik, hain zuzen. Handik aurrera lehen sektorerako lanak egitetik bizi izan zen.

Lansari arrakalaren beste jatorri bat izan liteke emakumeek gizonen aldean beren burua eta lana gutxiago baloratzea lan baldintzak negoziatzerakoan. Elkarriketatu batek adierazi duenez, bere ustez, lan arloan mailaz igotzen diren gizonezkoek badakite beren lanari garrantzia ematen eta, horren ondorioz, lanpostu eta lansari hobeak lortzen dituzte. Beste emakume batek honela adierazi du:

«...lanakin aurrera itten beti izan da: lelen demostrau. 10 urte noia lan hau itten eta ondiok errekonozitu gabe. Zer in bihar dot demostraitteko lana itten nabilela? Ez gai naiela, ondo itten nabilela! Eta gero eskatu, eta artian be kosta. Hori gizonezkueri ez xake pasaitten. Ez gara baloratzen. Perspektibakin ikusitta, pentsaitten dot geixau borrokatu bihar nebela». (Parte hartzailea 22)

²⁵² García González, G. (2021). Trabajo, familia y previsión social en el primer franquismo: el plus de cargas familiares. IUSLabor, 3/2021, 206-241. 228.or.

²⁵³ 1946ko martxoaren 30eko BOE, 89. zk., 2433.or.

Lankideen arteko giroa

50 parte hartzaileei galdetu zaienean nolakoa zen fabrikako eta lankideen arteko giroa, denek adierazi dute giroa orokorrean ona zela. Emakumeen erdiak baino gehiagok lankide ohiekin egunero, astero edo hilero kafea hartzeko geratzen jarraitzen dute. Horiek eta beste batzuek ere adierazi dute urtean behin gutxienez bazkaria izaten dutela lankide ohiek (gehienak erretiratuta daude). Bost emakumek giro orokor horrek zituena ñabardura batzuk komentatu dituzte. Emakume batek esan du maila bereko lankideekin oso harreman ona zuela, baina enkargatuarekin ez. Beste batek gauza bera esan du, baina enkargatuarekin beharrean nagusiarekin zuela harreman eskasa. Elkarriketatu batek oso zuzendari gogorra izan zuen, eta lana uztekoan ere egon zen; ez omen zekien pertsonak tratatzen. Hain zuzen, zuzendari horri buruz komentatu zuen elkarriketatu horren lankide batek, «hasta ha llegado a dejar lloviendo a un hombre». Beste emakume batek esan zuen destajuan asko produzitzen zuela eta, horrek lankideak nabarmen uzten zituelako-edo, haietako batzuekin tirabirak izan zituela horregatik. Azkenik, batek adierazi du lankide guztiekin oso harreman ona izan duela, makina bera erabiltzen zuen lankide gizonezko batekin izan ezik: oso matxista zela eta ez zuela onartzen emakume gazteago batek makina nola zebilen erakustea. Azken ñabardura horren harira, emakume batek adierazi du soilik gizonezkoak aritzen ziren produkzio eremuetan gizon batzuei hasieran kosta egin zitzaiela emakumezko lankideetara moldatzea. Ez zeuden ohituta etxetik kanpo emakumeekin harremana izaten eta lan talde batean berdinkide izaten. Gehitu du, hala ere, egoera horretan zeuden gizon gehienak azkar egin zirela egoera berrira.

10 emakumek komentatu dute lankideen artean oso lan giro ona zutela, bai, baina hasieran kolektibitatea sendoagoa zela eta denborarekin hori galtzen joan zela. Lankidegoa gero eta indibidualagoa bihurtu dela adierazi da.

9.7 EREMU SENTSORIALA

Eremu sentSORIALA eta horrek sortutako emozioa funtsezkoak dira emakumeek fabrikako lana nola bizi izan zuten ulertzeko.

Lanean ari zirenean makinaren hotsaz gain beste soinu-rik bazegoen galdetu zaie elkarriketatuak (kantatzen al zuten, irratia entzun, etab.). 25 fabriketatik zazpitan kantatu egiten zuten, batzuetan asko gainera, eta bes-

te batean, berriz, enkargatua ez zegoenean bakarrik. 1950eko hamarkadan sei emakumek mahai baten bueltan egiten zuten lan, eta han kantuan aritzen zirenetako bik gaur egun ere abesbatza batean kantatzen jarraitzen dute. Abesten aritzen ziren emakume gehienak produkzioan egiten zuten lan, eta batek, garbiketan. Irratia hiru enpresatako produkzio eremuan eta bulego batean entzuten zen, eta beste bitan aurikularrekin entzuten zuten langileek.

Galdetegitik at ateratako gai bat erlijioarena izan da. Hiru fabrikatako produkzio eremuetan errosarioa errezatzen zuten. Hiru horietako batean angelusa 12:00etan eta beste batean ere bai. Kantuan egitea eta errezatzea 1950-1970eko hamarkadetakoa kontua izan zen gehienbat; gerora, noizean behingo egun zehatzagoetan bakarrik gertatzen zen.

«Al principio cantábamos muchísimo. Por la mañana rezábamos en Ángelus y por la tarde el rosario. En el tiempo de lo “religioso”, los encargados no se acercaban por la cadena de producción, lo respetaban». (Parte hartzailea 4)

Lana aspaldi utzitako emakumeei galdetu zaie ea geratu zaien fabrikako eremu sentSORIALIK oroimenean grabatuta. Usainak aipatu dituzte gehien: 34k. Fabrika bakoitzeko ekoizpen prozesuen arabera usainak dituzte gogoan: trikloroa, taladrina, nikelzatzarearen usaina, manganesoa, almendra txigortua, txokolatea, ogia, zur usaina, gasoila, erretxina, larrua eta metal usaina labetik pasatzerakoan. Txokolate fabrika batean lan egindako emakumeak harrotasunez hitz egin zuen fabrikako usainaz eta bertan egindako produktuez:

«Txokolate usaina eta aldiari be eruatzen geben. Egiten zan txokolata oso ona, txokolata etxekua zan fuera de serie... oso genero ona erabiltzen zan». (Parte hartzailea 10)

16 parte hartzaile makinaren soinuez ere oroitzen dira. Horietatik bost, prentsa/matxinoaren danbadaz; lau, josteko makinez; hiru, mailuen hotsaz; bi, zerraren eta hodiak egiteko makinaren soinuaz, eta bat, teklatuaz. Harreran lan egiten zuen emakumea telefonoaren hotsaz gogoratzen da gehien.

Fabrikari zeudenean nola sentitzen ziren galdetu zaie, eta ea gustura dauden egindako lanarekin eta lan taldearekin. 40 emakumek erantzun dute orokorrean gustura sentitzen zirela. Momentu batzuetan gaizki ere pasatu dutela adierazi dute batzuek, baina bizitza profesional osoa begiratuta gustura daudela. Bi elkarriketatuk esan dute estresatuta sentitzen zirela lanarekin;

bi nahiko haserretzen ziren lanean ari zirenean, baina ez zuten haserrikerik eramaten etxera; bi lanak ez zituen betetzen inola ere; bi larritu egiten zituen beraien esku ez zeuden arrazoiengatik lana ondo ez egiteak (material desegokia jasotzeagatik, adibidez), eta bat lanean zegoela amorratuta sentitzen zen. Beste emakume batek adierazi du pozik eta oso gustura sentitzen zela lanean eta lankideekin, oso giro ona zegoela; ordezkari sindikala izan zela urte luzez, eta horrek sentsazio positibo gehigarria ematen ziola, lankideen ongizateari ekarpena egiten ziolako.

Galdetegia bukatzeko azken galdera hauze zen: ea beren ustez fabrikako lanaren hutsunea sentitzerik badagoen. 41 elkarrizketatuk ezetz erantzun dute, eta horietatik hiruk, desiratzen zeudela erretiratzeko. Bi emakumek aditzera eman dute baietz, lanak asko betetzen bazaitu gerta daitekeela lanaren hutsunea sentitzea. Zazpi emakumek adierazi dute «lanarena ez, baina harremanena bai» senti daitekeela; horietako lau ezkondu ostean enplegua utzitako emakumeak dira. Ama izan arteko denboran lanaren hutsunea sentitzen zutela adierazi dute: lankideekin hitz egin eta sozializatzeko mira ere bai. Umeak izandakoan jada ez zuten sentitzen fabrikako lagunartean hutsunerik, astirik ez zuten eta. Horietako batzuk umeak koskortu zirenean lanean jardun zuten berriro, baina denbora gehiena enplegatuta egon gabe: garbiketan, garajeen, tabernan, umezain... Bi bai egon dira enplegatuta garbiketa-lanetarako, baina lanaldi murriztuan eta, beraz, gutxi kotizatzen.

«Nik han (fabrikan) jarraitu baneu, igual lasaixo biziko nintzan ba!, baina mundu danak itten ban orduan, eta horrela...». (Parte hartzailea 28)

Hiru parte hartzailek hausnarketa bera egin dute. Eta haratago ere joanda, esan dute denbora pasatuta konturatu direla bizitza guztia zaintzan eta enplegatu gabeko bestelako lanetan eman ondoren, enplegatuta denbora eta ordu gutxi batzuk egiteagatik, oso erretiro pentsio txikia dutela. Dena den, egia esan, elkarrizketatutako askok adierazi dute garai batean ez zirela arduratzen kotizatutakorik bazuten edo ez, ia-ia erretiroa gertu izan arte. Hiru emakume horiek alde batera pozik daude egindako sakrifizioarengatik, seme-alabak aurrera eta ondo atera dituztelako eta ikasketak ere eman ahal izan dizkietelako. Bestera, berriz, damu dira, seme-alabak koskortu zirenean fabrika edo baldintza hobegoko enplegu batera bueltatzen saiatu ez zirelako.

HUTSUNEA VII: soldata-arrakala.
HUTSUNEA VIII: lan produktiboen eta
erreproduktiboen arteko genero oreka falta.

10. FABRIKAZ KANPO EGINDAKO LAN PRODUKTIBOAK

Emakumeek fabrikaz kanpo egindako lanak ez zeuden aurreikusita ikerlanaren hasierako planteamenduan. Edozein ikerketa-prozesutan gertatzen den bezala, batek badaki zein den abiapuntua, baina ez zer ibilbide irekiko diren, ezta zer leku zehatzetara iritsiko den ere, ez beti behintzat. Horixe gertatu da kasu honetan: ikerketak aurrera egin ahala, emakumeen fabrikaz kanpoko jarduera produktiboaren zantzu errepikatuak agertu dira. Horregatik, jardun horretan parte hartu duten emakumeen kopuruarengatik, egindako ekarpen produktibo eta erreproduktiboaren garrantziarengatik, eta kontakizun ofizialetan ia ikusezin iraun duelako, atal propio bat eta proiektuaren beste aztergai bat bihurtu da.

Fabrikaz kanpoko lan produktiboak aztertzean, fabrikari lan egin duten emakumeengandik informazioa jaso nahi izan da. Fenomeno horren zenbaterainokoa zundatzeko, galdera hau txertatu zen galdetegian: *Eramaten zenuten lanik fabrikatik etxera, lanorduz kanpo egiteko?*

Erantzuna garbia izan da: produkzioan lan egin duten emakume guztiek aho batez erantzun dute enplegatuta egon ziren garaian ez zutela produkzioko lan gehigarri egin etxean beren kabuz. Hori esan ondoren, beste-lakoak gehitu dituzte batzuek:

- Ahizpak etxean aterkiak josteko, emakume batek materiala eramaten zion fabrikatik.
- Amak etxean aterkiak josteko, elkarriketatutako batek materiala eramaten zion fabrikatik. Emakume horrek adierazi zuenez, etxeko guztiek laguntzen zieten gurasoei. Familia ugaria ziren, eta etxean ez zegoen dirurik sobera. Amak aterkiak josten zituen, eta aitak sarrailek muntatzen zituen.
- Aterkien egituren ekoizpenean lan egin zuen emakume batek adierazi du lankide zituen gizonezko batzuek emazteei etxera materiala eramaten zietenla, egiturak muntatu zituzten.
- Emakume batek adierazi du bere fabrikari mutil bat lanordu erdiz aritzen zela etxeetara materiala banatzeko.
- Elkarriketatutako batek esan du ezkondu ondoren aterkien egiturak muntatzen aritzen zela garaje batean.



64. irudia. Oñatin ekoiztutako aterkia. Argazkia: Nagore Goñi.

Elkarriketatutako 50 emakumeetatik bostek zuzenean edo zeharka baina gertu izan dute fabrikaren luzapen modu hori. Horretaz gain, ikerlanaren inguruan herritarrekin hitz egiterakoan, honelakoak komentatu dituzte hainbatek: «nire amaginarrebak pilak soldiaitten eben», «nire amak parasolak josten eben», «gure etxe azpiko garajian zotzak enpaketaitten eben», etab.

Hori horrela, etxe eta garajeetan lan produktiboetan aritu ziren hiru emakume elkarriketatzea lortu da. Ez da erraza izan horretan jardun eta hitz egiteko prest zeuden emakumeak aurkitzea; fabrika barruan aritu eta elkarriketatzeke prest zeuden emakumeak topatzea baino zailago. Edonola, hiru emakume horiek eman dituzten testigantzak ez dira kontuan hartu aurreko ataleko analisisa egiteko, nahiz eta hirurak ezkondu aurretik fabrika barruan aritu ziren produkzio eremuan enplegatuta.

Hiru emakumeetatik bik zotzak paketatzen zituzten garajeetan, eta besteak itzalkinak edo parasolak josten zituen gehienbat. Zotzekin lan egiten jardundakoak lehendik zotz fabrikari arituak ziren, baina hirugarrena ez zen inoiz aterkiak eta itzalkinak ekoizten zituen fabrikari aritu.

Galdetu zaienean zergatik erabaki zuten lan horretan jardutea, hirurek erantzun dute ezkondu ostean ezin izan zutela fabrikari-eta lanean jarraitu zaintza-arduren-egatik, baina fabrikaz kanpoko lan horrek aukera ematen ziela dirua irabazteko, familia zaintzeko malgutasuna galdu gabe.

Zotzak paketatzen garajeen aritzen ziren, eta itzalkinak sualdean josten zituen hirugarrenak. Azken horrek eskertu du sualde handia izatea, espazio zabala behar baitzen horretarako.

Erabiltzen zituzten material eta lanabesei buruz galde-tutakoan, azaldu dute zotz fabrikak berak uzten ziela horretarako erabiltzen zuten mahaia. Erabiltzen zuten beste lanabes bat lepotik zintzilikatzeko taulatxo bat zen. Zotz enpresak helarazten zien materiala: zotzak, eta zotz kaxaren kartoia moztuta, baina tolestu gabe. Lehenik kartoia tolestu eta kaxak egiten zituzten, eta, ondoren, zotzak paketatu. Paketatzeko, zotz mordo bat mahaira botatzen zuten, eta, gero, handik eskukada bat hartu eta paparreko taulatxoaren kontrara eraman. Ondoren, libre zuten eskuarekin beste muturra lerrokatu, eta kartoizko kaxan sartzen zituzten. Zotzak eta kartoia helarazteko enpresak bidaltzen zien kaxan bertan sartuta bueltatzen zizkieten zotzak paketatuta enpresari. Zotz fabrikako banatzailea garajera etortzen zitzairen materiala ekarri eta paketatuak jasotzera.

Itzalkinak josten zituen emakumea, berriz, bera joaten zen tailerrera material bila. Egiturak jasotzen zituen, alde batetik, eta bestetik, telak moztuta. Esan zuen zati batzuk erraz josten zirela, baina beste batzuk aulki gainera igota josten zituela. Amaitutakoan, tailerrera bueltatzen zituen itzalkinak.

Zotzen kasuan, lana urte osoan izaten zuten. Itzalkinak josten zituenak, berriz, udaberri eta uda sasoian izaten zuen lan gehien. Egindako lan jardunak kotizatu zizkieten galdetutakoan, ezetz erantzun dute.

Hiru arrazoiengatik utzi zioten lan hori egiteari. Zotzetan lan egiten zuen emakumeetako bat erretiratu egin zen. Besteak komentatu du zotzen produkzioaren beherakada nabaritzen hasi zela, gero eta eskaera gutxiago egiten hasi zela enpresa, eta beste lan bat bilatu zuela. Itzalkinetakoak, berriz, utzi egin behar izan zuen, enpresa itxi zutelako.

Lan sistema informal horrek produkzio malgutasun handia ematen zien enpresei: langile kualifikatuak kostu txikiagoan lortzen zituen, eta haiekiko lotura formalik gabe. Emakumeei dagokienez, orduko legedi eta egiturarengatik, hirurek aditzera eman dute lan egiteko modu horrek autonomia ekonomikoa ematen ziela, eta lana zaintzako ardurekin bateragarri egiteko aukera.

Aurrez azaldutako kasuez gain, fabrikako lan produktiboan luzapena mojen komentuetaraino heldu zen garai batean. Bidaurretakoek adierazi dute gaur egun ez diete-

la enpresei zerbitzurik ematen. Santa Anakoak, aldiz, enpresa bateko langileen arropak garbitzen jarraitzen dute.

Hona hemen, laburbilduta, zer lan jardun egin izan dituzten enpresen eskari bidez bi komentuetan, bai Bidaurretan, bai Santa Anan: Betik enpresarentzat zotzak paketatu, aterkien piezak moztu, Natra-Zahorrek ekoiztutako bonboiak kaxaratu, eta Becusa enpresarentzat bisagrak muntatu²⁵⁴. Oñatiko komentuen kasuan, emakume-moja batzuek, ez denek, lan produktiboetan jarduteagatik Gizarte Segurantzaren kotizatu izan dute²⁵⁵.

Santa Anako klaratarrek ibilbide luzea egin dute industriako enpresentzat eta bestelako sektoreentzat lana egiten, hemen ikus daitekeen bezala²⁵⁶:

- 1944-1950: emakumeen bizikletetarako alboko sareak (liburuan ez da zehazten muntatu edo paketatzen zituzten.
- 1964-1967: Loyola txokolateak eta Betik zotzak paketatuta.
- 1964-1978: Zahorren gozokiak paketatu, kromoak banatu, eta bonboiak bildu eta kaxetan sartu.
- 1977-1979: Perosterena sehaska-koltxonetak egin.
- 1979-1981: Bandak muntatu eta errematxatu Becusa eta Corcosteguiarentzat.
- 1979tik aurrera: Zahorreko langileen arropak garbitu.
- 1987tik aurrera: Garayko langileen arropak garbitu.

Bidaurretako klaratarrek adierazi dutenez, lehen aipatutako lanez gain, honako hauek ere egin izan dituzte:

- Garayrentzat aterkiak muntatu.
- CEUR sarraila-ekoizlearentzat bandak muntatu.
- Loyola txokolate fabrikarentzat bonboiak eta txokolateak ontziratu eta paketatu.
- ULMA eta Chinchurretarentzat langileen buzo, alkandora eta prakak garbitu eta lisatu.

HUTSUNEA IX: fabrikaz kanpoko ekoizpen lanen ikusezintasuna.

²⁵⁴ Manias Muñoz, I., eta Arrazola Maiztegi, J. (2024). Oñatiko emakume-mojak: izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik. Selma Huxley Barkham bilduma (3). Oñatiko Udala. 46.or.

²⁵⁵ Ibidem, 47. or.

²⁵⁶ Mendizabal Mujika, M. (2002). Las monjas de Santa Ana de Oñati. Cinco siglos, tres casas, una misión. Arantzazu Edizio Frantziskotarrak. 213-214. or.

11. HUTSUNE: TARTE EDO GUNE HUTSA; GABEZIA²⁵⁷.

Atal honetan, aurrez aztertutako eremuetan ikuspuntu feministatik identifikatutako hutsuneak edo *gune hutsak* azaltzen dira. Gune huts horiek emakumeek industrian gizonekiko izandako parekotasun falta adierazten dute. Huts, gabezia edo ezaren kontzeptuari sarrera emateko, Oñatin bertan jazotako gertaera batekin hasiko gara. Anekdotak Arantzazun gertatu zela diote adituek, baina bilatu arren, ez da aurkitu erregistrorik egiaz hala gertatu zela ziurta dezakeenik.

Arantzazuko basilikaren fatxada nagusiko frisoa Jorge Oteiza Enbil artista jenialak 1969an bukatu zuen. Eraikin berriaren irekieran, aditu batek galdetu zion:

- (Aditua) ¿Sr. Oteiza, piensa dejar eso así, sin nada?...
- (Oteiza) No, voy a dejarlo CON NADA...

Oteizaren erantzuna espazioaz eta hutsaz zuen kontzeptuan oinarritzen da. Haren hitzetan:

«Espazioa lekua da, leku [...] okupatua edo okupatu gabea. Baina okupatu gabeko leku hau ez da hutsa. Hutsa lortu egiten da, espazioaren desokupazio baten emaitza da. Absentzia formal baten emaitza da, hutsa egin egiten da, emaitza bat da, ez da existitzen a priori.»²⁵⁸

Datozen puntuetan ikerlanean identifikatutako hutsuneak aurkeztuko dira. Hutsunea espazio desokupatu baten emaitzatzat hartu eta tratatuko da, eta hori eragin duten faktore nagusiak identifikatu.

HUTSUNEA I: Emakumeek industriarekin lotutako erregistro ofizialetan izan duten presentzia murrizta.

²⁵⁷ Euskaltzaindia. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_hiztegiabiltatu&task=bilaketa&Itemid=1693&lang=eu&nondik=0&zenbat=100&entryId=23760

²⁵⁸ Llamazares Blanco, P., Ramos Jular, J., eta Zaparaín Hernández, F. (2020). La construcción del espacio existencial de Heidegger. Vacío activo en Oteiza y espacio receptivo en Judd. Estoa, 9 (17), 17-29. 20. or.

Alarguntasunak emakumeei ezkonduak ziren bitartean izan ez zuten titulartasun eta ikusgaitasuna eman zien erregistro ofizialetan aztertutako urte tartean (1880-1964). Negozioen ordezkari edo arduradun formal bihurtu zituen egoera zibil berri horrek. Hori modu konstantean errepikatu dela egiazta daiteke. 1889ko Kode Zibilaren ondorioz, emakumeek ezkonduetakoan autonomia juridikoa galtzen zuten eta senarraren baimena behar zuten edozein kudeaketa administratibo edo ekonomiko egiteko. *Ezkontza-lizentzia* ere deitu izan zaio. Kode Zibileko artikuluek batzuek honela zioten:

- 57. art. Senarrak emaztea babestu eta emazteak senarra obedituko du.
- 59. art. Senarra da ezkontza-sozietatearen administraria.
- 60. art. Senarra da emaztearen ordezkaria.
- 61. art. Senarraren lizentziarik gabe emakumeak ezin du kostu bidezko edo irabaziriko ondasunik eskuratu²⁵⁹.

Bigarren Errepublikaren garaian, lege hori indargabetua izan arren, 1938an berriro ere indarrean ezarri zen. Azken lege hori ez zen behin betiko indargabetu maiztaren 2ko 14/1975 Legea onartu arte²⁶⁰. Hamarkada luzez lege hori indarrean egoteak hainbat emakumeren izen propioa ez agertzea eragin zuen.

HUTSUNEA II: 2007ra arte ez da identifikatu Oñatiko industrian lan egindako emakumerik liburuetan.

Eremu sozial, ekonomiko eta produktiboetan emakumeek izan duten presentzia agerian jartzea pixkanakako prozesua izan da. 1970eko hamarkadatik aurrera, feminismoaren bigarren olatuak eta historia sozialaren berritzeak markatutako testuinguruak inflexio puntu

²⁵⁹ Kode Zibila (1889ko uztailaren 25eko Madrilgo Gazeta, III. liburukia, 250. or.).

²⁶⁰ Moraga García, M.A. (2008). Notas sobre la situación jurídica de la mujer en el franquismo. Feminismo/s, 12, 229-252. 236. or.

bat ezarri zuten. Puntu horren aurreko historiografia-
ren itxurazko neutraltasuna zalantzan jartzen hasi, eta
emakumeen absentsia arazo epistemologiko eta politi-
ko gisa seinlatu zen.

Ikuspegi historiografiko berri horrek *emakumeak ikuse-
zintasunean* egotetik hori aztertzeke tresna teoriko be-
rriak proposatzera pasatzea ekarri zuen. Erreminta ho-
rrek bide emango zuen aztertzeke emakumeen parte
hartzea historian, desberdintasunean eta gizarte eral-
daketetan, generoen arteko desparekotasunaren ikus-
pegitik. Horrela, emakumeen historia historiografiaren
barruan txertatzen da eta ikerketa-korrante bezala eza-
gutzen da²⁶¹.

XXI. mendearen hasieratik aurrera, emakumeek eremu
sozial, ekonomiko eta politikoetan duten lekuarekiko
interesak (industriakoak barne) esparru akademiko hu-
tsetik haratago proiektzioa lortu du. Gizarteak jabetu da
protagonista guztiak barne hartuko dituen kontakizun
historiko berri bat eraiki beharra dagoela. Horren era-
kusgarri da 2007tik aurrera argitaratu eta aztertu diren
liburuetan industrian lan egindako emakumeek duten
presentzia. Solniten esanetan:

«Liburutegiek kontatuak izan diren istorio guztiak baldin
badituzte, badira kontatuak izan ez diren istorio guztiak
gordetzen dituzten liburutegi fantasmak. Eta fantasmak
gehiago dira liburuak baino, askoz-askoz gehiago».²⁶²

HUTSUNEA III: genero banaketa horizontala.

Aztertutako espedienteetatik eta enpresek helarazita-
ko informaziotik genero banaketa horizontala dagoela
identifikatu da. Produkzio eremuari dagokionez, jaso-
tako datuek erakusten dute generoaren ikuspuntutik
presentzia asimetrikoa eman dela produkzio eremuan.
Lan sektore edo jarduera espezifikoaren arabera ba-
naketa okupazional horizontalak²⁶³ emakumeak eta gi-
zonak neurritz kanpo banatzea dakar. 8.2 ataleko espe-
dienteetan erregistratutako datuek agerian uzten dute
generoaren arabera bereizketa horizontala jazo dela.

Garbi ikus daiteke hori produkzio prozesuetan emaku-
meen eta gizonen artean dagoen banaketan, eta azter-
tutako 19 enpresetatik 13tan identifikatu da. Enprese-
tatik eta testigantzetatik jasotako informazioarekin bat,
administrazio eremuan lan banaketa joera hau errepi-
katzen da emakumeen gehiengoarekin.

Datu horiek interpretatzean, uste da genero banaketa
horretan zerikusia dutela trebetasunarekin lotutako es-
tereotipoek. Izan ere, eskuzko trebetasuna eta lan erre-
pikakorretarako zehaztasuna, adibidez, gaitasun *feme-
ninotzat* jotzen dira, eta gaitasun *maskulinoak* lirateke,
aldiz, indar fisikoa eta gaitasun teknikoa, besteak beste.
Datu erregistratuak zituzten enpresetan lan moduak
eta produkzio prozesuak zer-nolakoak ziren ezin izan
da jakin beti, baina ezagutu ahal izan diren kasuetan oi-
narrituta, eta horietan produkzio langilerian emaku-
meen eta gizonen presentzia nolakoa zen kontuan izan-
da, trebetasunean oinarritutako genero banaketaren
hipotesiak pisu handia hartzen duela uste da.

Langilearen trebetasunak ezagutzen ez direnean, es-
tereotipoek produktibitatearen ordezkari adierazle gisa
jardun dezakete eta lanpostuen eraikuntza definitu.
Estereotipo eraikuntza adibide adierazgarri bat *Rosie
the Riveter* edo *Rosie Errematxatzailea* bezala ezagutzen
dena da: komunikabideek sortu zuten 1942 urtean, Bi-
garren Mundu Gerraren testuinguruan²⁶⁴. Emakume
errematxatzaile indartsuaren irudia eraiki zen, emaku-
meak defentsa industriako lanpostuetan jarduteko mo-
tibatzailerik gisa, *Gai Gara!*²⁶⁵ lelopean. *Rosierena* bezalako
irudiak propaganda-tresna izan ziren, baina ez ziren ge-
nero-rol tradizionala benetan aldatzeko gai izan. Ema-
kumeen lana ezinbestekoa izan zen arren, ez zen behar
bezala aitortu, eta emakume afroamerikarrek diskrimi-
nazio eta arrazakeria handiagoa pairatu behar izan zu-
ten²⁶⁶.

²⁶¹ Ana Lau, J. (1998). La historia de las mujeres: una historia so-
cial o una historia de género. In Gisela von Wobeser (koord.),
Cincuenta años de investigación histórica en México (159-169).
Universidad Nacional Autónoma de México, Instituto de Inves-
tigaciones Históricas / Universidad de Guanajuato. 161. or.

²⁶² Solnit, R. (2017). La madre de todas las preguntas. Capitán
Swing. 29. or.

²⁶³ Meseguer Chanzá, D. (2024). Segregación laboral en activida-
des feminizadas. Los servicios residenciales de atención a las
personas mayores. Papers, 109 (2), e3222. 3. or.

²⁶⁴ Emerek, R. (2008). Gender segregation in the labour market:
roots, implications and policy responses in Denmark: Report to
European Commission, Directorate-General for Employment,
Social Affairs and Equal Opportunities, Unit G. 1. Publications
Office. 25. or.

²⁶⁵ Itzulpen-oharra. We Can Do It! leloaren itzulpen zuzenena
Egin Dezakegu! izan arren, Gai Gara! moduan itzuli da: mezu
indartsuago eta lotura bisual estuagoa dituelako.

²⁶⁶ Cookmeyer, V. (2022). What Happened to Rosie the Riveter?:
Media Portrayals of Women in the Workforce, 1942-1946. Ho-
nors Theses. 846. 31. or.



66. irudia. Rosie Errematxatzailea bezala ezagutzen den J. Howard Miller artistaren 1942 urteko Westinghouse Electric & Manufacturing Companyren posterra²⁶⁷.

Gerra amaitu zenean, industria askok emakumeak behartu zituzten beraien lanpostu kualifikatuak gerratik itzultzen ziren beteranoei uztera. Industriako lanpostuetan jarraitu nahi izan zuten emakumeei, gizonak nahi ez zituzten lanak eskaini zitzaizkien. *Rosier*en irudia desagerrarazi eta emakumeak ahulak eta emozionalak zirenen ideia berrindartu zuten. Soldatapeko lanean jarraitu nahi izan zuten emakume asko, industrietatik at eta gerra aurretik emakume gehiengoa izandako lanpostuetara bueltatu ziren *errematxatzeari* utzi ondoren²⁶⁸.

Estereotipoen eraikuntza alde batera utzi eta lan banaketa horizontalera bueltatuta, azpimarratu daiteke industriako lan merkatuaren genero banaketa bi ikuspegi nagusitatik interpretatu dela. *Eskaintzaren faktore*

deritzenetan zentratutako perspektibek lan merkatua generoarekiko neutraltzat hartzen dute. Estatus, soldata eta kualifikazio apaleneko enpleguetan emakumeak kontzentratzea kanpoko baldintzatzaileei egotzen diete, hala nola hezkuntzari, gizarte egiturari, estatuaren esku hartzeari edo familia-estrategiei. Ikuspegi horren kontra, beste batzuek ekonomia politiko feministatik garatutako *eskariaren faktoreak* nabarmentzen dituzte. Azken horretan oinarritutako analisiek diote lan segregazioa ez dela albo ondorio bat, kapitalismo industriaren ezaugarri bat baizik²⁶⁹. Heidi Hartmann ekonomialariaren esanetan:

«Sexuen araberako enpleguen banaketa da gizarte kapitalistan emakumeen gainetik gizonen nagusitasunari eusten dion lehen mekanismoa, emakumeei soldata baxuagoak ezartzen dizkielako lan merkatuan. Soldata baxuek gizonen menpeko mantentzen dituzte emakumeak, ezkontzera bultzatzen dituztelako. Emakume ezkonduak etxeko lanak egin behar izaten dituzte senarrentzat, eta, beraz, gizonak dituzte soldata handienak eta onura ateratzen diete etxeko lanen banaketari. Etxeko lanen banaketa horrek, aldi berean, emakumeek lan merkatuan duten posizioa ahultzen du. Hala, lan merkatuak betikotu egiten du etxeko lan banaketa, eta alderantziz. Prozesu hori bi sistema engranaturen etengabeko interakzioaren emaitza da: kapitalismoa eta patriarkatua. Patriarkatuak, kapitalismoak garaitu ez baina, oso sendo jarraitzen du: kapitalismoaren garapenak instituzio patriarkalak eraldatu dituen modu berean gobernatzen du kapitalismo modernoak hartzen duen forman. Patriarkatua eta kapitalismoa bata bestera doitze horrek sorgin gurpila sortu du emakumeentzat»²⁷⁰.

HUTSUNEA IV: erregistroetako datu eskaeren lan sailkapenetan produkzioko langileetara mugatuta.

Industriako erregistroetan dauden eskaerak aztertuta, lan indarra kuantifikatzeaz gain, lan sailkapena egituratzen duten genero eraginak ere identifika daitezke. Generoa produkzioko langileen kategorian soilik banatzeak (*obrerros/obreras*) hierarkia sinboliko bat erakusten du, non emakumezkoen tokia produkzio egituraren mailarik baxuenean baino ezin den kokatu. Emakume langileak kuantifikatzeko jasotako testigantzetan eta

²⁶⁷Smithsonian. (1942). We Can Do It! Posterra. Irudia: J. Howard Miller. Erref.: 1985.0851.05. https://americanhistory.si.edu/collections/object/nmah_538122. Lizentzia: CCo.

²⁶⁸Cookmeyer, V. (2022). What Happened to Rosie the Riveter?: Media Portrayals of Women in the Workforce, 1942-1946. Honors Theses. 846. 26. or.

²⁶⁹Romero Marín, J. (2012). Estado, trabajadores y empleo femenino en los orígenes de la industria en la España contemporánea. *Mélanges de la Casa de Velázquez*, 42 (2), 95-115. 96. or.

²⁷⁰Hartmann, H. (1994). Capitalismo, patriarcado y segregación de los empleos por sexos. In C. Borderías, C. Carrasco eta C. Alemany (argit.), *Las mujeres y el trabajo. Rupturas conceptuales* (253-294). Icaria. 258. or.

bestelako informazioetan oinarrituta, ziurta daiteke emakumeen lan indarra erregistroetan adierazitakoa baino zabalagoa izan dela. Enpresa eta testigantzetatik jasotako informazioan oinarritua, hamarkada luzeetan zehar, administrazio eremuan emakumeek izandako toki nabarmena adierazle argia delarik.

Industria-eskaeretan aurkitutako langile sailkapenarekin lotuta, lerro arteko irakurketaz ari den testu hau identifikatu da Itxaso Martin Zapirainen tesian:

«Esaten denarekin batera, gure iritziz, garrantzi bera du testuetan esaten ez denak, isiltasunek. Isiltasunak ideologiaren presentziaren salatari adierazgarriak dira, izan ere, ezarritako irizpideen arabera eginiko edukien aurretiazko hautaketa bati lotuta daude»²⁷¹.

HUTSUNEA V: emakumezkoen lanbideen izendapen mugatua.

Industrian enplegatutako emakumeen lanbideen izendapenean, edo ofizioak definitzean, emakumezkoen jardun profesionala adierazten duten lanbideen edo lan kategorien kopurua oso txikia da gizonezkoenen aldean. Bi kasutan identifikatu da hau: enpleguak lan kategoriaren arabera sailkatzeko UGT-Zenbait Ofiziota-ko Langileen Elkartearen 1932ko orrian¹⁶⁶ eta 1924ko udal erroldan¹⁹³.

Enplegatuen lan kategoriaren arabera 1932ko sailkapenean, sindikatuak 6 emakumeren lan kategoriak aurkezten dizkio enpresari: hiru emakumeri *hornera* edo labezain kategoria esleitu zien, eta beste hirurak kategoriari gabe utzi zituen, lanean zeramaten denbora soilik adierazita. Gizonezkoen kasuan, bederatzitik bati ez zion lan kategoriarik esleitu, baina beste zortziak lau kategoriatan sailkatu zituen: doitzaile, tornulari, peoi espezializatu eta langile espezializatu.

Emakumeen industriako jardunaren gutxiespen egoera identifikatu da lanbideen izendapenetan. Lanpostuen ebaluazio prozeduretako estaldurazko edo estaldura gabeko alborapenek eta gaitasunen aitortza eskasak, emakumeak nagusi diren lanbide eta lanpostuak sarritan “desprofesionalizatutzat” jotzera eramaten dituzte.

²⁷¹ Martin Zapirain, I. (2015). Eromena, azpimemoria eta isiltasuna(k) idazten. Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu [Doktorego tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea]. 35 or. Beatriz Celayaren ondorioez: “El discurso médico del franquismo: persistencia de un modelo sexualizado de mujer” in R. Osborne (argit.), *Mujeres bajo sospecha*, Madrid: Editorial Fundamentos. 193-215.or.

Egoera horiek maizago gertatzen dira lan egituraren maila apalenetan²⁷².

1924ko udal erroldan ageri diren emakumeen jardun profesionalak eta industriarekin lotutakoak izan ahalko lirakeenak hauek dira: langile, okin, mekanografo eta aterkigile. 4 lanbide bakarrik daude, beraz, eta errolda berean gizonezkoen kasuan, aldiz, 18. Errolda horiek aztertzerakoan, emakumeen kasuan, lan esperientzia askotariko baten aurrean kokatu beharra dago. Emakumeak produkziara bideratutako jardueretan aritzen ziren, bai eta zaintza edo erreprodukziara bideratutakoetan ere. «Lanaren kontzeptua gizartean nagusi den pentsamoldeak ematen dion esanahiaren arabera da beti, eta aldatuz doa denboraren joanean. Zehazkiago, hori arazo bihurtu daiteke emakumeek egindako lanari dagokionez»²⁷³, ondoren erroldan erregistratutakoa aztertzean. Pilar Pérez-Fuentes Hernándezek dioen bezala: «erroldak lan modalitate desberdinen artean ezartzen den genero segregazio eta hierarkizazio gero eta handiagoa, eta prozesu horrek oro har dakarrena, argien laburbiltzen duen iturria dira»²⁷⁴.

HUTSUNEA VI: lan banaketa bertikala.

Banaketa okupazional bertikala genero bat eskala profesionaleko goiko mailetan infraordezkatuta egotean datza. *Kristalezko sabaia* eta *zoru itsaskorra* kontzeptuekin lotuta dago segregazio bertikala. Ikerlan honetarako jasotako informazioarekin ezinezkoa da fenomeno hori sakon aztertzea, baina zantzu batzuk garbi identifikatu dira. 8.2 atalean aztertutako espedienteetan ardura-ko lanpostuak ezin izan dira jaso generoaren arabera banatuta, genero maskulinoan adierazita zeudelako. 9. atalean, ordea, fabriketan lan egindako emakumeengandik jasotako testigantzen bidez ikusi denez, elkarriketatutakoek jardun duten enpresetako zuzendaritza lanpostuetan emakumezkoen presentzia oso-oso txikia edo hutsa da.

²⁷² Emerek, R. (2008). Gender segregation in the labour market: roots, implications and policy responses in Denmark: Report to European Commission, Directorate-General for Employment, Social Affairs and Equal Opportunities, Unit G. 1. Publications Office. 7. or.

²⁷³ Pareja Alonso, A., eta Zarraga Sangroniz, K. (2006). Bizkaiko emakumeen lanbideak eta zereginak. Atzoko eta gaurko irudiak. Bizkaiko Foru Aldundia. 30.or.

²⁷⁴ Pérez-Fuentes Hernández, P. (1995). El trabajo de las mujeres en la España de los siglos XIX y XX. Consideraciones metodológicas. *Arenal. Revista de Historia de las Mujeres*, 2 (2), 219-245. 223.or.

SIADecOk 1980an Oñatiko Udalarari aurkeztutako azterlaren txostenean²⁷⁵, 1972-1979 bitarteko industria-enpleguaren egitura sozioekonomikoaren bilakaera ageri da. 1972an industrian enplegatutako emakumezkoak % 23,2 dira, eta 1979an, aldiz, % 20,5. Bost kategorია sozio-profesionalen banatuta daude industriako enplegatuak, hierarkikoki: jabeak, ugazabak eta zuzendaria; erdi mailako arduradunak; administrariak eta teknikariak; ofizialak; eta peoiak, espezialista laguntzaileak, etab.

Jabe, ugazaba eta zuzendarien kategorian, emakumezkoak 1972an % 0,1 ziren, eta 1979an % 0,3 (gizonezkoak, aldiz, % 3 eta % 4,5). Erdi mailako arduradunen kasuan, berriz, emakumezkoak 1972an % 0,6 ziren, eta 1979an % 0,5 (gizonezkoak % 9,8 eta % 10,2). Beraz, industria-enplegatuen hierarkiako goi mailan emakumezkoen presentzia oso baxua dela azaleratzen dute SIADecOk aurkeztutako datuek.

Europako Batzordeko Genero eta Enplegu Aditu Taldeak argitaratutako txosten batetan, banaketa okupazionalaren inguruko azterketa sakona egiten da. Dokumentutik banaketa bertikalari lotutako bi portaera identifikatu dira: bata, enpresako barne prestakuntza aukerekin lotua; eta bestea, sustapen ibilbideen asimetriarekin. Lanpostu jakin batzuek eskatzen dituzten gaitasun espezializatuak eskuratzeko, oro har, emakumeek gizonek baino lanposturako prestakuntza ordu gutxiago jaso izan ohi dituztela enpresan adierazi da²⁷⁶. Herriko fabrikek hamarkadetan zehar, ikastunentzako programak edo antzeko baliabideak garatu bazituzten ere emakumeek sarbide nabarmen txikiagoa izan zuten halako prestakuntza-ibilbideetara, eta horrek eragin zuzena izan zuen haien lan-ibilbidearen garapenean eta sustapen aukeretan. Sustapen ibilbideen asimetriaren inguruan, gizonek nagusiki betetzen zituzten lanpostuetan sustapen-mailen arteko distantzia handiagoa izan ohi da, eta horrek goranzko mugikortasunerako aukera zabalagoak ahalbidetzen zituen. Emakumeak gehienbat kokatzen ziren lan-esparruetan, aldiz, sustapen-mailak elkarrengandik hurbilago zeuden; ondorioz, lanbide-garapenerako eta hierarkian gora egiteko aukerak mugatuagoak identifikatu dira²⁷⁷.

HUTSUNEA VII: soldata-arrakala.

Industriako gizonezko eta emakumezko enplegatuen lantsarien arteko arrakala, ezin izan arren neurtu ikerlanak aztertutako denboran, nabarmena izan dela adierazi dute elkarriketatutako emakumeek hainbat elementuren ondorio da. Eragile horietako bat lehen azaldutako generoaren araberrako lan banaketa izan da. Ikerlan honetan *familia-soldata* kontzeptuaz ere aritu gara, eta esan dugu soldata-arrakalan eragina izan duen beste eragileetako bat dela.

Gerraostean, estatuak soldata-osagarri familiarista bat sortu eta txertatu zuen. Horri esker, langile enplegatu bakoitzak banakako produktibitateagatik dagokion lantsariaz gain familia-kargagatik plus bat ere jasoko du. Ikusi da hamarkada luzez ezarritako halako neurriek egoera hori *naturalizat* hartzea eragin zutela, eta gizoneen lana emakumeena baino gehiago baloratzearen adierazletzat hartu da. Adibide bat ikusteko, 1993an *Kontzejupetik* aldizkarian argitaratutako elkarriketa batera jo daiteke²⁷⁸, nahiz eta ez den industriaren eremuko. Oñatiko lehen emakumezko taxi gidaria ageri da bertan, eta hara zer erantzun zuen galdetu ziotenean ea izan zuen zailtasunik hasieran, 1982an: «lehenengotan bastante zaila, ze batzuetan etzan normala andria paradan ikustia; beste batzuentzat gizon bateri lana kentzea zan».

Industriako soldata arrakalak hainbat eragile izan ditu. Hamarkadetan zehar mantendu den famili-soldataren inertziak gain, esan daiteke, lan banaketak eta estereotipoek bultzatuta, emakumezko gehiengo zabala batzen duten lanpostuek ordainsari apalagoak jaso dituztela. Fabrika duten posizio apalagoa ez da, produktibitate txikiago baten ondorioa, baizik eta lanpostuen balorazioan izan du oinarria. Bestalde, emakumezko eta gizonezkoen arteko zaintza lanen banaketa desorekatuak ere eragin nabarmena du ordainsariaren arrakalari dagokienez. Emakumeek lanaldi laburragoak edo malguagoak, eta orduko soldata maila apalagoko lanpostuak aukeratzen dituzte, zaintza eta soldatapeko langile izatearen rola uztartzeko²⁷⁹.

275 Oñatiko Udala (1980). Revisión de la estructura socio-económica: Oñate 1972-1987. SIADeco. 34. or. B.867.14

276 Emerek, R. (2008). Gender segregation in the labour market: roots, implications and policy responses in Denmark: Report to European Commission, Directorate-General for Employment, Social Affairs and Equal Opportunities, Unit G. 1. Publications Office. 24. or.

277 Ibidem, 26. or.

278 Laixan (1993, martxoa). Maria Jesús Aberasturi. *Kontzejupetik*, 6. 18-19. or.

279 Emerek, R. (2008). Gender segregation in the labour market: roots, implications and policy responses in Denmark: Report to European Commission, Directorate-General for Employment, Social Affairs and Equal Opportunities, Unit G. 1. Publications Office. 27. or.

HUTSUNEA VIII: lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko genero oreka falta.

Lan produktibo eta erreproduktiboetan gizonezkoek eta emakumezkoek ematen duten denborari buruzko datuak Emakunde 1992tik 1999ra bitartean argitaratutako txostenetatik jaso dira. Datu horiek Euskal Autonomia Erkidegorako orokorrak dira, hau da, ez daude industria-sektoreko langileetara mugatuta. Ez da aurkitu 1990. hamarkada aurreko mota horretako beste azterlanik.

1991: Senar-emaztez osatuta dauden etxeetan, etxeen % 8,7an dirudi gizonaren eta emakumearen arteko berdintasunak egiazkoa. Etxe gehienetan (% 54,7) gizonak ez du etxeko lanetan parte hartzen edota oso gutxitan parte hartzen du²⁸⁰.

1992: Gizonek ez dute ia batere parte hartzen etxeko lanetan; gehienek behin ere ez edo noizean behin bakarrik, kasuen % 70 eta % 80an. Gizonen % 15ek soilik egiten dituzte egunero etxeko lanak, hala nola haurrak zaindu, janaria prestatu edo ontziak garbitu, eta gehienbat gizon gazte ezkonduak dira²⁸¹.

1994: Enplegudun emakumeen % 43,3k adierazi dute emakumeek bakarrik egiten dituztela etxeko lanak. Soldatapeko emakume langileak dira, halaber, gizonaren parte hartze handiagoa aipatzen dutenak; % 26 pasatxo²⁸².

1996: Emakumezkoek lan erreproduktiboetan egunean 7 ordu eta 14 minutu ematen dituzte, eta gizonezkoek, 3 ordu eta 38 minutu. Lan erreproduktibo eta produktiboan guztira, berriz, emakumezkoek 13 ordu eta 50 minutu, eta gizonezkoek 11 ordu eta 54 minutu²⁸³.

1997: Emakumezko langileen adostasunik handiena (% 66) esaldi honen ingurukoa da: «Emakumeek etxeko arazoak lanera eramaten dituzten bitartean, gizonezkoek etxetik irtetean ahaztu egiten dituzte»²⁸⁴.

²⁸⁰ Emakunde (1991). Euskal Herriko emakumeen egoerari buruzko txostena. Eusko Jaurlaritza. 66.or. Hor ageri diren datuak ikerlan honetan oinarrituta daude: Emakumearen egoera Donostian, 1988, Donostiako Udaleko Emakumearen Arloa.

²⁸¹ Emakunde (1992). Emakumeak Euskal Autonomi Elkartearen. Eusko Jaurlaritza. 75.or.

²⁸² Emakunde (1994). Familia eta etxe-arlokoa Euskal Autonomi Elkartearen. Eusko Jaurlaritza. 60.or.

²⁸³ Emakunde (1996). Euskadiko emakumeen egoerari buruzko zifrak. Eusko Jaurlaritza. 91.or.

²⁸⁴ Emakunde (1997). Familia antolatzekeko estrategiak. Eusko Jaurlaritza. 136.or.

1999: Lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko banaketa gizon eta emakumeen nolakoa den aztertzean, egiaztatu dute «emakumeak lan produktiboan sartzen joan diren neurri berean, denbora gutxiago ematen dutela lan erreproduktiboetan; gizonezkoen kasuan, alderantziz gertatzen da, baina proportzio txikiagoan: alegia, lehen baino denbora gehiago ematen dute lan erreproduktiboetan eta lehen baino gutxiago lan produktiboetan. Hala eta guztiz ere, gizonezkoek etxeko zereginetan eta pertsonak zaintzen eta batetik bestera eramaten ematen duten denbora, oraindik ere, gutxiago izaten da emakumeek egin behar horietan ematen dutena baino; azken horiek, gainera, produkzioarako lanaldia luzatu dutenez, guztira 16 ordu eta 39 minutu egiten dute lan egunean. Gizonezkoek, ordea, 15 ordu eta 28 minutu ematen dituzte lan berdinetan»²⁸⁵.

Elkarriketa sakonetatik ateratako ondorioak ere bat datoz Emakundeko emaitzek erakusten duten joerarekin. Ezkondu ostean enplegatuta jarraitu zuten elkarriketatutako emakumeek, famili-soldatatik banakako-lan-sarira eman zen trantsizioa bizi izan zuten. Fabrikako lana eta familiako zaintza ardurak uztartu behar izan zituzten. Lan erreproduktiboaren ardura osoa beraien gain egon zen kasu askotan, senarraren gutxiengo laguntzarekin: zaintza emakumeen zeregin naturalizat jotzea normalizatuta zegoelako gizartean.

HUTSUNEA IX: fabrikaz kanpoko ekoizpen lanen ikusezintasuna.

Fabrikaz kanpoko jarduera produktiboaren ikusezintasuna: bai fabrikak, eta, baita langileek ere bultzatu izan dute. Ekonomia informaleko lan eremuak estatistika eta kontrol ofizialetatik kanpo geratzen dira; kasu honetan, etxeetan eta garajeetan fabrikarako egindako lanak. Erregistroetatik kanpo geratzeak esan nahi du badirudila jardun horiek ez direla gertatu.

Azpimarratu beharrekoa da, ikusezin bihurtutako sektore informaleko produkzio-lanetan emakumeen presentzia nabarmen zabalagoa izan dela gizonezkoena baino. Lan informalearen eta lanaren feminizazioaren arteko lotura estua identifikatu da²⁸⁶. Bai lan-merkatuaren eskari-dinamikek, bai emakumeen bizi- eta lan-baldintzek bultzatuta eman da. Enplegatzaileek maiz aprobetxatu dituzte emakumeen soldata apalagoak eta

²⁸⁵ Emakunde (1999). Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak. Eusko Jaurlaritza. 77.or.

²⁸⁶ Elgin, C., & Elveren, A. Y. (2021). Informality, inequality, and feminization of labor. Women's Studies International Forum, 88, 102505. 8. or.

lan-ibilbide etenagoak, kostu txikiagoarekin errentagarritasun handiagoa lortzeko. Aldi berean, sektore informalak emakume askori aukera eman die etxeko ardurak eta jarduera ekonomikoa uztartzeko, baita familien ekonomiako osagarri gisa jarduteko ere.

12. ONDORIOAK

Ikerlan hau egin ondoren argi geratu den lehen ondorioa da Oñatiko fabriketan lan egin duten emakumeak ere badirela herriko industria-historiaren protagonistak. Fabriketako emakume langileen ekarpena etengabea eta emankorra izan da, ikerlanak aztergai izan duen denbora-tarte osoan: 1866-2000 bitartean.

Ikuspegi historikotik egindako azterketan, emakumeek industrian izan duten lekuaz, zenbait gako identifikatu dira. Hasteko, 1880ko eta 1890eko industria-matrikulak eta 1900-1964 bitarteko industria-errolak aztertu direnean, ikusi da identifikatutako emakume izen propio gehienak titular gisa edo behin-behineko titular gisa ageri direla, batez ere alarguntasun testuinguruetan. Hori izan zen formalki jarduera ekonomikoetan ager zitezkeen kasu bakanetako bat. Nahiz eta titulartasun hori alargundutakoan jaso, negozioetan aktiboki lan egindako emakumeak ere identifikatu dira. Horren harira planteatutako hipotesi bat da emakume ezkonduak ere jardun dutela tailer eta fabriketan, baina alargundu ezean ezin izan direla erregistratu eta, beraz, horien azterna galdu egin dela.

Erregistro historikoen emaitzekin jarraituz, ikerketak erakusten du erregistro historikoetan jasota dauden emakume langileen kopuruak benetan ziren baino txikiagoak direla. «Izena duena, bada» dio esaerak, eta emakume horiek ere, izango badira, izena behar dute. Horrela, beste joera bat identifikatu da, non erregistratu dauden industriako herriko emakume langileen kopurua zabalagoa den errealitatean. 1939-1980 bitartean Industria Ministerioari egindako eskaeren espediente batzuk aztertu dira. Erregistro horietan ikusi dena da emakume sailkatzeko lanbide kategoria bakarra *obrero* edo produkzioko langile zela. Gizonezkoentzat maskulinoan adierazitako lanbide kategoria ugari zeuden bitartean (zuzendari, ingeniari, industria-maixu, administrari, etab.), femeninoan adierazitako lanbide kategoria bakarra zegoen (*obrero*) emakumezkoentzat. Espediente horiek adierazten dutena ez dator bat errealitatearekin, elkarriketatutako bi emakume behintzat administrari lanetan zebiltzan-eta espediente horiek erregistratutako unean.

Zenbat emakumek egin dute lan Oñatiko fabriketan? Ikerlanerako planteatutako galderetako bat zen hori.

Erantzun kuantitatibo bat ematea ezinezkoa izan arren, hurbilketa kualitatibo bat egiteko ahalegina egin da. Emaizta kualitatiboek zera adierazi dute, emakumezkoen lan indarrak bolumen handia izan duela herriko fabriketan. Lan asko egin dute emakumeek hainbat sektoretan. Adibidez, 1923-24ko Gipuzkoako Industria Ekoizpenaren Estatistikan, 3. tarifan, hau da, industria-kotzat hartzen ziren enpreetan, erregistratutako langileria osoaren % 30 emakumezkoak ziren.

Ikuspegi historiko-politikotik begiratuta, fabrikako langile ziren emakumeen eskubide eta lan legediak aztertzean nabaria da haustura esanguratsua gertatu zela Bigarren Errepublikan bultzatutako aurrerapen zantzetatik 36ko gerra ondorenera. Bigarren Errepublikak ez zuen nahikoa denbora izan ezarri nahi zituen eskubideak gizartean gauzatu ahal izateko. 1936ko altxamenduarekin batera, desegin egin ziren berdintasunaren arloan emandako aurrerapausoak (emakumeen bozka-eskubidea, afiliazio eskubidea, ezkondu ondoren lan egiteko eskubidea, etab.). Emakumearen lekua definitzen zuten arau sozial eta lege berriak ezarri ziren. Lan eremuan emakume ezkonduaren presentzia erabat mugatu zen. Testuinguru horrek azaltzen du 1980ko hamarkadara arte genero banaketak argi eta garbi markatutako industria-egitura bat izan zela Oñatiko fabriken ere. Segregazio horrek bi dimentsio izan ditu. Banaketa horizontala da bat, emakume kopuru zabala aritu delako sektore espezifiko batzuetan, eskulan fina behar zen jardunetan (txokolate eta bonboiak paketatu eta kaxaratzen, aterki egituren muntaketan eta horiei ondoren telak josten, pilen muntaketan, sarrailagintzan, zotzak paketatzen, etab.). Banaketa edo segregazio bertikala da beste dimentsioa, ardura postuetan eta erabakiak hartzeko *mahaietan* emakumerik ez delako egon, salbuespenen bat alde batera utzita.

Emakumeak ezkondu ondoren fabrikatik etxeratzen zirenen legediak beste fenomeno garrantzitsu bat sortzera bultzatu zuen: etxe eta garajeetan lan produktiboei jardutera. Fabrikako lan formaletik kanpo geratzen zen lan hori oso zabaldua egon da herrian, eta aterkiak jostea, zotzak paketatzea, eta sarraillak eta bandak muntatzea izan dira lan nagusiak. Lan horiek autonomia ekonomikoa eskaintzen zieten emakumeei, bai eta familiaren zaintzarekin bateragarria zen lansari osaga-

rri bat lortzeko modu bat ere. Jardun hori ez zen kowitzatzen, galdetutako emakume guztiek ezetz erantzun dute behintzat, eta ez du utzi inolako aztarnarik erregistroetan. Fabrikako lan produktiboak aurrera eraman dituzten emakume kopuru handia dago hemen ere.

Ikerlanean jaso diren testigantzek 1950-2000 bitarteko fabriketan lan egin duten emakumeen izaera eta bizi-modua ezagutzera hurbildu gaitu. Hasteko, gehiengo handi bat, oinarritzko ikasketak amaitu ondoren, 14-15 urterekin fabrika lanean hasi zen. Denek adierazi dute lan asko zegoela eta enpresek-eta eskulan behar handia zutela. Lanera bideratutako hezkuntza profesionala jasotako emakume gehienak 1970eko hamarkadaren ondoren hasi ziren lanean. 1975 baino lehen ez-kondutako emakume gehienek fabrikako enplegua utzi zuten ezkondutakoan, eta horietako batzuk garbitzaile, garajeen, umezain, dendari eta abar aritu ziren ondoren. Lana utzi beharrari dagokionez, emakume batzuek ezkondu ondoren ez dute etxetik kanpora lan egin beharrik izan, eta zaintza-lanetan aritu dira. 1970eko hamarkadatik aurrera ezkondu ostean fabrika enplegatuta jarraitu zuten emakumeak egoera berri baten aurrean aurkitu ziren: ez zegoen haurtzaindegirik, etxe-ko lanak emakumeen gain geratzen ziren, eta ez zegoen familia eta lana uztartzeko inolako neurrik. Garai horretan ezkondutakoen kasu askotan, senarraren laguntza gutxiengo edo hutsa izaten zuten lan erreproduktiboak aurrera eramateko. Zenbait estrategia erabili zituzten fabrika lanean egin ahal izateko: fabrika zeuden bitarteko norbait kontratatzea haurrak zaintzeko, familiaren laguntzaz baliatzea, etab. Amatasunaren lehen urteez hitz egiterakoan, honelakoak adierazi dituzte: «ez dakit nola heltzen nintzen denera», «ez dakit nola egiten nuen», «korrika alde batetik bestera», «batzutan zutik bazkaltzen neben»...

1980-2000 bitartean teknologiak emakumeek egiten zituzten lanetan eragindako eraldaketak ere garrantzi handia izan du horien jardunen lan moduetan. Azpimarratu behar da emakumeak momentu oro moldatu egin ahal izan direla teknologiak ezarritako erronka berrietara.

Ikerketan zehar jasotako testigantzek pertzepzio partekatu bi islatzen dituzte. Aditzera eman dutenez, ezkondu ostean lan egiten jarraitzea, lanaldi murritzua, eszedentzia eta oro har zaintza-ardurak bateratzeko neurriak lehenengoz eskatu zituzten emakumeek ez zieten baiezkoa eman lehenengoan. Bide hori abiatutako emakume ausart batzuek lana utzi behar izan zuten ezkondu ostean. Eskaerak egiten joan ziren heinean, eskubideak lortu zituzten, hainbatek esan dutenez «a base de pelear», indibidualki eta kolektiboki. Ezer ez zaiela oparitu, alegia.

Elkarriketatutako emakumeek galdetu zaienean laneko genero banaketaz eta horrekin lotutako ordainsariez, gehienek adierazi dute baietz, gertatu dela desberdinkeria hori, baina azkeneko hamarkadetan desagertzen joan dela. Bi emakumeek hausnarketa bat partekatu dute: emakumeek gure lana baloratu beharra daukagula, gizonen aldean guk ez dugulako baloratzen. Hori segregazio bertikalarekin eta jasotako heziketarekin eta arau sozialekin lotuta dago. Askori irakatsi zaie emakumeen portaera egokiak direla arreta ez deitzea, atsegin ematea, suabe hitz egitea, autoritatearekiko menpekotasuna, eta modu horretako hainbat ezaugarri. Umetatik tinto eratutako izaera horrek talka egiten du fabrikako arduradunekin negoziatzerakoan erabili beharreko estrategiekin, eta emaitza da, orokorrean, hasieratik airtortza jaso beharrean, berandu edo ez jasotzea. Bestalde, elkarriketatutako emakumeek adierazi dute, garai batean ardurako lanpostuak gizonen esleitzen zitzaizkiela soilik, naturalizat joaz hura. Gehitu da, emakumezko batek lanpostu mailaz igotzeko gehiago demostratu beharra zuela, eta hala eta guztiz ere, zailago zuela gizonetzko batekin alderatuz. Hainbat emakume adierazi dute denborak emandako perspektibatik ohartu direla gaitasunak eta norbere lana gehiago baloratzearen garrantziaz eta horiek balioan jartzen ikasi beharraz. Horrek ekarriko duelako, besteak beste, lanean hartutako ardurei dagokien ordainsaria lortzeko eta lan ibilbidean mailaz igotzeko aukera gehiago izatea.

Ikuspuntu feministatik identifikatutako 9 hutsuneek azaleratzen dute industriako lanetan jardundako emakumeek pairatutako genero-desberdintasunak ez zirela banakako egoeren edo momentuko erabakien ondorio izan; aitzitik, patriarkatu kapitalistaren logikek egituratutako lan-antolamenduaren emaitza sistemikoa izan dira. Sistema horrek ideologia eta legedia erabili zituen industriako emakumezkoen presentzia eta baldintzak interesatzen zitzaizkion eremuetara mugatzeko. Legediaren bidez: hamarkada luzeetan zehar emakumeak autonomia ekonomiko eta juridikorik gabe senarraren menpe egotera bultzatu; ezkondu ondoren fabrikako emakume enplegatuak lanpostua uztera behartu; familia soldataren bidez, soldata arrakala areagotu; eta, zaintza soilik emakumeen ardura izatearen ideia indartu zen. Industrializazioari lotutako sistema sozioekonomikoa egituratutako ideologiak emakumearen tokia ez zuen ikusten fabrika gizonetzkoekiko botere-harreman orekatu batean. Patriarkatuaren ideologoen etxera bideratu nahi izan arren, sistema kapitalistarentzako probetxugarria zen emakumezkoen industriako lan indarra, horien menpekotasunak eraginda lansari baxuagoak ordaintzera eramaten zituelako. Arrazoi horregatik, industrian lan egiteko aukerak lansari baxuenak jasotzen zituzten ekoizpeneko eremu jakin batzuetara

eta administrazioa mugatuta zituzten. Emakumezko enplegatuek ez zuten formazio eta garapen aukerarik izan aztertutako kasu gehienetan 1980 hamarkadara arte, eta horren hainbat adierazle identifikatu dira: lan-banaketa horizontala eta bertikala; lan sailkapen ofizialetan emakumezkoen lanbide bakarra maila baxueneko produkzioko langilera mugatua egon izana; emakumezkoen industriako lanbide izendapenak oso murrizkak izatea gizonezkoekin alboratuz; hau da, emakumeen fabrikako lana gutxietsiz. Gutxiespen guzti horiek egitura ekonomiko eta sozial baten adierazpen gisa ulertzen dira: 2007 urtera arte fabriketan emakumeek izan duten presentzia argitalpenetan ikusezin izatera eramana; eta gaur egunera arte ikusezin izanda fabrikaz kanpo industriako ekoizpen lanetan jardun duten emakumeena.

Oñatiko industriaren historia ezin da behar bezala ulertu fabrika barruan eta kanpoan lan egin duten emakumeak kontuan hartu gabe. Emakumeen ikuspegia txertatzeak alde historiografikoa eta iraganeko isiltasunak zuzentzera eramaten gaitu, eta legeen bidez nahiz sozialki ezarritako genero rolek eragindako oztopoak aitortzen ditu. Horrela, herriko industria-ondarearen ezagutza osoago bat lortuko da, protagonista guztien kontakizunak bateratuta.

Bukatzeko, aipa dezadan ikerlan hau oraintxe abiatuko banu aldatuko nukeen alderdietako bat elkarrizketak hasi aurretik iturri dokumental historikoaren analisia sendotzea litzatekeela. Elkarrizketatu nagusienak oso adin handikoak izateak eragindako beldurrarengatik, landa-lana lehenetsi nuen, marko teorikoa eta oinarri historiografikoa behar bezala finkatu gabe eta elkarrizketei aldi berean ekinez. Elkarrizketen gidoia informazio guztiaren analisia egin ondoren zehaztu izan banu, elkarrizketak hobeto bideratzeko eta jasotako informazioa sakontasun handiagoz aprobetxatzeko aukera izango nuke. Elkarrizketen inguruko beste hausnarketa batek bi emakume baino gehiagoko elkarrizketak egitea saihestera eramana nau, talde handietan biltzeak erantzun indibidualetan sakontzea zaildu duelako. Dokumentuaren akabera hobetze aldera, lan egiteko moduan alderdi bat aldatuko nuke. Oñatiko fabriketan lanean ageri diren emakumeen argazkien bilaketa eta hautaketa ez nuke proiektuaren azken faserako utziko: aurreikusitako baino zeregin zailagoa izan da eta uste baino askoz denbora gehiago behar izan dut.

13. ETORKIZUNeko LAN ILDOAK

Ikerlan honi jarraipena emateko, etorkizunera begira bi ibilbide aurreikusten dira. Lehenengo ikerketa-ildoak, 2000tik 2025era bitarteko aldia aztertzea da, denbora-tarte berri horrek datu gaurkotuagoak, askotarikoagoak eta fidagarriagoak lortzeko aukera ematen duela uste da. Alde batetik, gizarte eta ekonomia mailako datu gehiago eskuratzeko aukera ematen du, aztergai izango liratekeen aldagaiak ezagutu ahal izateko. Bestalde, digitalizazio ezak eraginda ikerlan honetan enpresetatik jaso den informazio murriztasuna saihestuko litzateke. Espazio/denbora berri horrek aukera emango luke fabrikako soldatapeko lana eta zaintza bateragarri egitearren abiatutako neurrien joera ezagutzeko, lan banaketan egiturazko aldaketarik egon den jakiteko eta iraun ahal izan duten arrakalak identifikatzea errazteko. Denboraren ikuspegi zabaldu horrek ikuspegi zehatzagoa emango du lortutako aurrerapenez eta indarrean dirauten erronkez. Ikerlan hau genero ikuspegi bina-riotik egin da, baina aniztasun zabalagoa du errealitateak. Etorkizunean aniztasun hori beste aldagai bat izan beharko litzatekeela uste da.

Bigarren ikerketa-ildoak 2026ko udazkenean jarriko da martxan. Lan horretarako, 1900-1964 bitartean Oñatiko enpresek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari egindako zerga-ordainketak erregistratzen dituzten industria-eroldak aztertu dira. 1965-2000 bitartean aktibo egon diren enpresen zerrenda ere eginda dago, baina ez du aurrekoak besteko jarraitutasunik, urte batzuetakoak falta direlako. Inbentario bat egin da emakume izen propioak ezagutzeko, 6. atalean aurkeztu den bezala. Hasiera batean, inbentarioa lan honekin batera argitaratzeko asmoa zegoen, baina lanketa sakonagoa merezi du. Enpresa horien eta enpresa-ordezkarien izenen azpian produktu, fabrikazio prozesu, material eta lan egiteko moduak daude. Elementu horiek guztiek industria-ondarearen ikuspuntutik eskaintzen duten aberastasuna dela-eta, beste lan bat abiatuko da: herriko fabriketan 2000 urtea aurretik lan egin duten emakume eta gizonak sortu duten industria historiaren azterketa. Proiektu berri hori eraginkorra izateko, modu kolektiboan lan egitea erabaki da. Inbentario hori oinarritzat hartuta, herriko fabrika, prozesu, produktu eta lan moduak aztertuko dira. Herriko fabriketan lan egin duten eta parte hartu nahiko luketen emakumeek eta gizonak edurne.iriondo@ehu.

eus helbidera idaztea besterik ez dute, eta proiektuan unean une dauden beharren inguruko informazioa helaraziko zaie.



Selma Huxley Barkham bilduma

ISBN: 978-84-921814-9-0



OÑATI
dabilen herria